

Goienkaria

2010eko maiatzaren 21a > Egubakoitza > X. urtea > 422. zenbakia > Doan banatzekoa



www.goiena.net



"Udan lanak
hasi eta
datorren urteko
udazkenean
Aretxabaletan
izango gara"

Nekane Arratibel
Huhezi fakultateko
dekanoa > 09



G2a

**Mendiko
meteorologia
aztergai > 31**

ARRASATE

**Erretiratuen egoitzetan erretzen
dutenen aurka egingo dute > 12**

ARETXABALETA

**Biodibertsitatea eta elikadura
landuko dituzte Aste Berdean > 22**

KIROLA

**Mondrak eta Bergarak ligako azken
derbia jokatu dute bihar > 28**

JENDARTEA > MEMORIA HISTORIKOA

Domekan inauguratuko dute Intxortako ibilbide tematikoa

ELGETAN Intxortako frontea
Espainiako gerran zegoen
moduan ikusteko aukera izango
dute aurrerantzean bisitariak

EKITALDIA Harreragunea eta
interpretaziogunea egongo dira
Espaloian; hantxe izango da
etziko ekitaldia, 12:00etan

ERAKUTSI Helburua da Elgetan
gerrak izan zuen eragin latza
bistaratzea eta biktimen
memoria berreskuratzea > 11

JAIAK > MENDEKOSTEAK

Gaur hasiko dira Pazkoak Bergaran

Musika emanaldiak,
umeendako jolasak
eta lehiaketak, aste
bukaerako ekitaldi
nagusiak > 17

Athleticeko jokalaria Koikili Aramaioko umekin izan zen atzo

Zuiako Koadrilako euskara
sailak antolatuta, Koikili Ler-
txundi Athleticeko jokalaria
Aramaioko izan zen atzo. San
Martin eskolako eta Legutio-
ko eskolako umekin eman du
goiza, jolas egiten, betiere
euskaraz. Izan ere, futbol joka-
laria izateaz gain, besteak
beste, kirolaren eta jolasen
bitartez euskara bultzatzea
helburu duen aholkularitza
enpresa bat ere badu Koiki-
lik. Umeak euskaraz egin
dezaten motibatzea du enpre-
sa horrek zereginetako bat,
eta horretan ibili zen futbo-
laria Aramaion. > 26



AUTOGRAFOA Neska-mutikoetako askok autografoa eskatu zioten Athleticeko jokariari.

JULEN IRONDO

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05
Iritzia > 06
Gutunak > 07
Elkarrizketa > 08
Herriak > 11-27
Kirola > 28-29
Kultura > 32-33
Gazteak > 34
Sailkatuak > 35
Telebista-Irratia > 36
Zerbitzuak > 36
Berri-zakua > 37
Eskelak > 37
Non-zer > 38-39

www.mondragon.edu/gep



MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

**Etorriko zarela
jakinarazi!**
943 71 21 91
e-mail : aarriaran@eps.mondragon.edu

GOI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK 2010-2011

Ate irekiko jardunaldiak Arrasateko Goi Eskola Politeknikoan

EGUNA	ORDUA	LEKUA	TITULUAK
apirilak 29 (osteguna)	18:00	Aula 5001	• Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak • Sareko Informatika Sistemen Administrazioa • Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
maiatzak 22 (larunbata)	11:00	Aula 5001	• Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa • Industri Ekipoaren Mantenimendua

Kontsulta pertsonalak: 943 71 21 91 • E-posta: aarriaran@eps.mondragon.edu

EKONOMIA > KRISIARI AURRE EGITEKO NEURRIAK

Ibarrean ere denak aurka ditu Zapaterok

KALTETUAK Herritar asko eta, batez ere, afektatuak haserre eta nahigabetuta daude Zapaterok iragarritako neurriekin

URTE GOGORRAK Perez de Calleja ekonomialariaren ustez, neurri gehiago hartu beharko zitezkeen; hala ere, krisiak jarraitu egingo du

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Atzo, eguna, zen onartzekoa Espainiako Gobernua Zapatero presidentek joan den astean aurkeztutako neurriak, Espainiako eta Hego Euskal Herriko defizit publikoa 15.000 milioi murrizteko; jendartean eta eragileongan, oro har, protesta eta kexua eragin dutenak: aurten, enplegatu publikoei batez beste %5 murriztea soldata, eta 2011n izoztea; datorren ekitaldian pentsioak izoztea; erretiro partzialerako 60 urtetik 61 urte artekoek daukaten progresibotasuna; 2011ko urtarilaren 1etik, jaiotza bakoitzeko ematen diren 2.500 euroak ez ematea; Mendekotasun Legea ez izatea atzeraeraginezkoa; botiketan egiten den gastua txikitze-ko neurriak; garapenerako laguntza ofizialaren partidatik 600 milioi kentzea; inbertsio publi-

**Lopez lehendakariak ahal-
dun nagusiekin eta Eudelekin
zehaztuko ditu EAEko murrizketak**

Zapaterok eta haren presidenteordeek kontraesana izan dute errenta altuak ukitzearen gainean

koetan 6.045 milioi gutxiago inbertitzea (Sustapen Ministerioak izango du eragin handiena, eta dagoeneko gezurtatu dute, adibidez, Euskal Herriko AHT atzeratu egingo dela); eta autonomia erkidegoen eta udalen gastua 1.500 milioi txikitzea. Kasu horretan, zalantzatik kanpo geratu da zuzenean Estatuarenak ez diren enplegatu publikoei ere soldata txikituko zaiela; hori denondako berdina izango da.

Bestalde, Patxi Lopez lehendakaria datorren astelehenean, seguruenik, batzartuko da Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ahal-
dun nagusiekin, neurriok EAEn zelan ezarriko diren zehazteko.

Oihartzun mediatiko eta sozial handiena izan dute hiru neurrik -jaioberriengatik laguntza kentzea, eta pentsioak eta enplegatu publikoen diru-sarrerak ukitzea- baina badira eragin handia izango duten beste batzuk ere: datozen urteotan erretiroa hartzeko gertu zeuden langile askok uste baino hilabete gehiago egin beharko dute lan, 61 urte beteta izan arte, gutxienez.

"MILA EURORA EZ DIRA IRISTEN"
Enplegatu publikoei soldata murriztu eta, datorren urtean,

izoztu egingo diete, baina afektatuek euren ez dute oraindik informazio zehatzagorik. Hone-
la dio Arrasateko Udaleko Per-
sonal saileko buru Jose Mari Erañak: "Komunikabideen bitartez jakin dugu. Lege-Dekretu bidez onartuko dute, baina ikusi egin beharko da zelan onartuko den. EAEn, beharbada filtro batzuk egongo dira; baina ezer ez dakigu". "Soldata murriztea ez da inoren gustukoa izaten, eta suposatzen dut kezka egongo dela", gaineratzen du; baina, horren gainetik, "denetariko iritziak" egon daitezkeela gaineratzen du. Bes-

talde, hilaren 25erako ELAk eta LABek egin duten greba deialdia ere hedabideetan ikusi zuten.

Soldatapeko askok ondo ikusi dute enplegatu publikoen soldata murrizketa; baina langile horietaz jendeak duen irudia ez dator errealitatearekin bat, INE-Meko enplegatu publiko Elena Mondragonek Arrasate Irratian esandakoaren arabera: "Urte piloa daramagu soldatak izoztuta, eta urterik urte ikusten dugu ez dizkigutela igotzen. Jendeak hori ez daki, eta sindikatuak isildu izan dira. Erostea ahalmena galdu dugu urteetan. Jendeak

ANTZUOLAKO UDAL ETXEGINTZA, S.A

ETXEAK SALGAI

Lizarraga kaleko 9ko lehenengo solairuko ezkerrean kokatuta dagoen etxebizitzaren salmenta prozedura ireki (enkante) bidez.

Lehiaketaren oinarria 135.000€ izango da onartuko den gutxieneko eskaintza. Lizitatzailleek oinarri hau gorantza hobetu ahal izango dutelarik.

Behin behineko bermea: Ez dago.

Proposamenak aurkezteko azken eguna: 2010eko ekainaren 1a.

Dokumentazioa:

Antzuolako Udal Etxegintza S.A.ren bulegoetan edo Antzuolako Udaletxean; Herriko Plaza 8an (10etatik 14etara)

Antzuolan, 2010eko maiatzaren 13a.

ANTZUOLA UDAL
ETXEGINTZAKO PRESIDENTEA

ESANAK

"Komunikabideen bitartez izan dugu murrizketaren berri: lege-dekretu bidez onartuko dute; ea zelan geratzen den"

Jose Mari Eraña > Udal langilea

"Beste neurri batzuk hartu beharko lirateke, gehiago aurrezteko bidea emango luketeenak, ez pentsioak txikitzea"

Jose Riviere > Erretiratu

"Urte piloa daramagu soldatak izoztuta; gobernu zentralaren mende gaudenon soldata ez da ona"

Elena Mondragon > INEMeko langilea

"Beharbada, gehiago pentsatuko du jendeak bigarren edo hirugarren umea noiz eduki dirulaguntza kentzen dutenean"

Maria Unamuno > Ginekologoa

"Herritarren kontrako politika fiskala da: guri dirua kentzea finantzarioei emateko; aldaketa fiskala behar dugu"

Maite Barreña > LABeko kidea

"Likidezia krisia da hau; zor handia du Estatuak, eta diru-sarrerarik ez; egoera larria da"

Antton Perez de Calleja > Ekonomialaria





UNAI BUSTURIA

uste du funtzionarioen soldata ona dela, baina gobernu zentralaren mende gaudenok ez dugu hain ona: lankide batzuk ez dira iristen 1.000 eurora". Honela laburtzen ditu Mondragonek bere sententzioak: "Ea behintzat zerbitutarako balio duen. Pozik egon beharko dugu, behintzat lana badaukagu-eta".

Udal langileendako behintzat, Eudelen eskutik etorri beharko dira neurriak, eta hango arduradunek baieztatu digute lehendakariarekin eta foru aldundiekin hitz egin ondoren irtengo direla neurri zehatzak. Udalhitz delako hitzarmena hiru urtean behin egiten da, eta horrek arautzen ditu funtzionario horien soldatak; bada, orain indarrean dagoena abenduan iraungitzen da.

ZERBITZU PUBLIKOEN KALTETAN
Sindikatuak izan dira erantzuten lehenengoak: ELA eta LABek greba deitu dute sektore publiko osoan hilaren 25rako, eta UGT eta CCOOk, ekainaren 8rako. LABeko Maite Barreñak, ordea, zabaldu egiten du deialdia: "Orokorrean planteatu dugu greba. Batetik, Espainiako estatuaren errealtatean oinarritutako neurriak direlako, eta Espainiako estatuko egoerak eraman gaituelako gu ere atzetik; eta, bestetik, murrizketa zerbitzu publikoena delako, eta hor daude ordezkapenak, errelebuak, umeak izaten dituztenak... Herritarren kontrako politika fiskal bat da: guri dirua kentzea

finantzarioei emateko. Aldaketa fiskal bat behar dugu, gehien dutenek gehiago eman dezaten, eta kalitatezko zerbitzu publikoak izan ditzagun".

Gogoratu behar da CCOOk eta UGTk jakinarazi zutela, eguaztenean, soldata jaitsiera neurrien aurka errekurtsua aurkeztuko dutela.

Deialdi zabal horretan sartzen dira, beraz, pentsiodun gehienak ere –pentsio minimoa eta zergarik ez dutenak–; horien artean, erretiratuak. Gipuzkoako Erretiratu eta Pentsiodunen Elkarteko presidenteak, Jose Riviere arrasatearrak, honakoa esan dio Goiena Telebistari: "Pentsiodunok erabaki horren kontra gaude guztiz. Krisia ez dugu guk sortu, eta ez dagokigu guri berau konpontzea. Beste neurri batzuk hartuko beharko lirateke, nire ustez; gehiago aurrezteko bidea ematen duten beste neurri batzuk".

Rivierek gaineratu duenez, pentsiodunak ez daude murrizketak jasateko moduan: "Pentsio batzuek, minimoak ez izanda ere, ez dira nahikoak, eta pobreziatik oso gertu daude horiek jasotzen dituztenak. Ikusi beharko da Legebiltzarrak onartuko duen neurri hori edo ez, 67 urteko erretiroarekin egin zuten bezala; azkenean, hura atzera bota zuten".

"ORAINGOZ, EZ DUGU EZER IGARRI"
2011ko urtarrilean hasita, umea izateagatik ez dute 2.500 euroko dirulaguntzarik izango ama berriek. Komunikabide batzuek

argitara eman dute zelan erditzea urtarril hasierarako aurreikusita duten ama batzuek zesarea egin diezaieten eskatzen hasi direla, abenduan erditzeko.

Debagoienean, Ospitaleko ginekologo Maria Unamunok dioten bezala, "oraingoz ez da neurri horren eraginik igartzen; beharbada igarriko da, hau da, beharbada jendeak gehiago pentsatuko du bigarren edo hirugarren umea noiz eduki".

*Jaioberri-txeke*a delako horrekin, helburua zen jaiotze gehiago egotea. Hori hemen lortu den galdetuta, Maria Unamunok hauxe dio: "Batez ere, emakume etorkinen artean igarri da; ume gehiago izan dituzte".

KONTRAESANAK
Xehetasun batzuk ez ditu argitu Zapaterok, hala nola "erkidegoen eta udalen gastua" zelan txikitu nahi duen zehazki, edo funtzionarioen soldata murrizketa izango den enplegatu bakoitza kontuan hartuta edo enplegatuen multzoa kontuan hartuta; edo ordainsari osoari kenduko dioten %5 hori edo oinarritzko soldatari, adibidez. Horrez gain, hemen ere kontraesanik ez zaio falta izan Espainiako Gobernuari: De la Vega presidenteordeak martitzenean esan zuen errenta altuei igoko zizkietela bereziki zergak, eta egun berean Salgado presidenteordeak ezeztatu egin zuen hori. Beti bezala, itxoin egin beharko da asmoak zertan konkretatzen diren jakiteko.

Antton Perez de Calleja > Ekonomialaria

"Benetako aberatsek ez dute errenta aitorpenik egiten, eta horrela jarraituko dute"

L.K. > ARETXABALETA

Antton Perez de Callejak (Zarautz, 1943) garbi hitz egiten du: neurriok "sutea itsungitzea" soilik dira, eta benetako arazoak ez dituzte ukitzen. Etorkizuna beltz ikusten du.

Zer iruditzen zaizkizu Zapaterok hartutako neurriak?

Beste erremediorik ez zuen; dagoeneko ez zuen ekiteko marjinarik. Erreskate fiskalari ekin behar zion. Zapaterok bi aukera zituen: doikuntza neurriak poliki-poliki hartu edo denbora luzeagoa pasatzen utzi.

Autonomia erkidegoek izango dute maniobra-marjinarik?

Espero dut ezetz; espero dut enplegatu publikoen soldatak jaits ditzatela, eta hori baino gehiago egin beharko litzateke. Euskadin Espainian baino %40-50 gehiago irabazten dute, eta ez dago horretarako produktibitate edo eraginkortasun arrazoirik. Bestalde, funtzionario larregi dago, argi eta garbi. Espainian hiru milioi funtzionario daude eta EAEn, 137.000 bat; soldatapekoen %17.

Eta zer deritzozu pentsioak izozteari eta murrizteari?

Zalantza ez zen hori egin edo ez, noiz egin baizik. Oraingo hamarkadan, oso-oso gutxi haziko da ekonomia, eta oinarritzko kontzeptuetan eragin behar da. Hala, erretiratzeko gutxieneko adina igo egin behar da, baina ez da premiazkoena; gero ere egin daiteke.

Oro har, neurri hauekin merkatuei mezu bat bidali nahi izan zaie. Eta neurri okerrago bat ere etorriko da: murrizketa fiskalak eta BEZa igotzea. Horren ondorioz, 2011n berriz atzeraldian sartuko gara.

Krisia luzerako daukagu, bada...
Nazioarteko Moneta Funtsak aurreikusi du 2016ra arte ekonomia %2ko erritmoan igoko dela; oso motel, hortaz. Oso urte latzak ditugu aurrean, arazo handiekin: aurrezki kutxen krisia, lehiakortasun falta...

Batzuek diote errenta altuenei igo behar zaizkiela zergak, eta


"Zapaterok ezinbestean hartu behar izan ditu neurriok; marjinarik ez zeukan dagoeneko"

"Ez dago eraginkortasun edo produktibitate arrazoirik enplegatu publikoen soldatarako"

Zapaterok esan du "gehien dutenei" zergak igoko dizkiela. Zer diozu?

Demagogia hutsa da. Errenta aitorpena egiten dutenen %3ren errenta da 50.000 eurotik gorakoa. Eta zuk uste duzu horiek aberatsak direla? Benetako aberatsek ez dute errenta aitorpenik egiten, eta horrela jarraituko dute. Haiek ez dute zergarik ordaintzen.

Beste zerbait egin zitekeen?
Ordezkariek lehenago onartu izan balute krisian geundela, urtebete irabazi izango genukeen. Eta Euskadiko ordezkariek ere hori egin zuten: Eusko Jaurlaritzako lehendakariordeak esan zuen ez ginela krisian sartuko. Hala, 2009an tontokeria asko egin ziren, tartean E Plana. Benetako arazoek hor jarraitzen dute: etxebizitzaren burbuila, aurrezki kutxei eragiten



GOIENKARIA

diena; osasun gastua, osasuna guztiz doakoa delako eta gastua izugarria delako; pentsioak... Osasunari dagokionez, hainbat ekonomialarik gomendatu genuen neurri baten ordainpekoa izan zedila: adibidez, medikuarengana joaten den bakoitzean zertxobait ordaintzea; eta ez da ezertxo ere egin.

Funtsean, likidezia krisia da hau; zor handia du Estatuak, eta diru-sarrerarik ez; hortaz, haren egoera larria da. Ez dugu kaudimenik, solbentziarik. Gazteen egoera bereziki latza da, %40ko langabezia tasarekin.

Neurri hauekin, presazkoa egin da, baina ez benetan inportantea zena.

"Zalantza ez zen pentsioak izoztu eta murriztu edo ez, baizik eta noiz"

"Neurri hauekin, presazkoenari eragin zaio, baina ez benetan inportantea denari"

GASTRONOMIA > DEBAGOIENeko V. JARDUNALDI GASTRONOMIKOAK

Pintxo dastatzea dago martitzenean Bergaran

Izango da bailarako V. jardunaldi gastronomikoen baitan. Jardunaldiotako menu guztietan baratzeko produktuak eta bakailaoa egongo dira

MIRIAN BITERI > ARRASATE

Debagoieneko Mankomunitateak eta bailarako hainbat jate-txek gertu dituzte V. jardunaldi gastronomikoak. Horien aurkez-

pena egiteko, edizio honetan ere pintxo dastatzea antolatu dute. Hilaren 25ean, martitzena, egingo dute hori, Bergarako Herriko Plazan. 18:30ean hasiko dira jardunaldietan parte hartzen duten sukaldariak egindako pintxoak banatzen; 1.000tik gora banatzea espero dute.

EKAINAREN 1ETIK 30ERA

Jardunaldiak, dena dela, ekainaren 1etik 30era bitartean izango dira eta eskualdeko sei jate-txek parte hartuko dute: Arrasateko Hilarion; Bergarako Lasa; Leintz Gatzagako Soran etxea; eta Oñatiko Etxe-Aundi, Goiko Benta eta

Arantzazuko Santutegia hotelak, hain justu ere.

Edizio honetan, sukaldariak Debagoieneko baratzeko produktuekin eta bakailaoarekin egingo dutela lan jakinarazi zuten joan den egunean, Arrasaten, horren harira egin zuten agerraldian. Horren harira, Mankomunitateko Turismo teknikari Ana Herizek gogorarazi zuen menu bereziak gertatuko dituztela, prezio bereziekin; 33 eta 40 euro artekoak izango dira. Nabarmendu zuen menua dastatzeaz gain bailarako eskaintza turistikoak ezagutzeko aukera ere izango dutela bisitariek.



Ezkerretik, Iker Basurko, Gabino Iarza, Monse Valerio, Ana Heriz eta Koldo Lasa atzoko aurkezpenean.

MIRIAN BITERI

JENDARTEA > TEKNOLOGIA BERRIAK

Argazki ondarea gizarteratzeko tailerra Antzuolan

Diputazioak eta KZguneek 'Guregipuzkoa.net' webgunearen gaineko ikastaroa emango dute

M.B. > ANTZUOLA

Gipuzkoa 2.0 ekimenaren barruan eta herritarren argazkilaritza ondarearen partekatze eta gizarteratzea bultzatzeko asmoz, *Guregipuzkoa.net* webgunearen erabilpena azaltzen duen ikastaro multzoa jarriko dute martxan Gipuzkoako Diputazioak eta KZguneek. Debagoienean, Antzuolan emango dute ikastaro hori.

Webgune hori Gipuzkoako Diputazioko Kultura eta Euskara Departamentuak sortatutako zerbitzua da, eta bi sail horien menpean dauden argazki bilduma, milaka irudi eta askotariko baliabide grafikoei ikusgarritasuna eskaintzea eta bermatzea bilatzen du. Horrez gain, modu ireki eta askean, herritarrei horiek erabiltzeko aukera eskaintzea ere lortu nahi da.

GIPUZKOAKO IRUDI BIZIA SORTU

Ikastaro horiek nazioarteko Internet egunaren barruan aurkeztu zituzten joan den astelehenean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sustapen eta Hedapeneko zuzendari Haritz Solupek eta KZguneen zuzendari Txomin Alkorta.

Ikastaroen helburu nagusia da denon artean iraganeko eta oraingo Gipuzkoaren irudi bizia sortzea. Horretarako, elkarlanean, herritarrei euren edukiak beste erabiltzaile batzuekin partekatzea eskatzen zaie; besteak beste, bakoitzaren bizimodu edo kulturarekin, auzoarekin edo herriekin erlazioa izango duen material grafikoa parteka daiteke.

ARGAZKIA WEBGUNERA IGO

Asteleheneko aurkezpenean jakinarazi zutenez, ikastaroak KZguneek duten azpiegitura erabiliz eskainiko dira, eta bi ataletan egongo dira banatuta: lehenengoa Interneten nabigazio oinarritzko ikastaroa da; eta bigarrenean, webgunearen nondik norakoak azalduko dira, argazki bat nola eskaneatu eta hori webgunera nola igo ikasiko dute ikastaroan parte hartzen dutenek.

BOST HERRITAN

Antzuolaz gain, Beasain, Zestoa, Urnieta eta Hondarribia ere izango dira Gipuzkoako argazki ondarea gizarteratzeko ikastaroak jasoko dituzten lehenengo herriak.



ULMA Agrícola, Koop. E
Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA

DEIA

Eguna: 2010eko maiatzaren 27a
Ordua: 14:30ean lehen deialdia eta 15:00etan bigarrena
Tokia: ULMA Taldeko auditorioa – Oñati (Gipuzkoa)

GAI ZERRENDIA

1. Aurreko akta onartzeari buruzko txostena eta Batzar Nagusi honen akta onartzeko bazkideak izendatzea
2. 2009ko ekitaldiko memoria irakurtzea eta onartzea, eta 2010eko gestio plana berrestea
3. ULMA Taldeari buruzko txostena
4. 2009ko ekitaldiko kontuak aztertzea eta, hala badagokio, onartzea
5. Auditorea izendatzea
6. 2009ko interesak sortzea eta kapitalizatzea
7. Emaizak banatzea
8. Heziketako eta Kooperatiba Sustapeneko eta interes publikoko beste xede batzuetarako ekarpenaren (H.K.S.E.) erabilera
9. Egituraz gaindiko erakundeekin zerikusia duten gaiak
10. Ekonomia araubideko estatutu-xedapenak
11. Menpeko ekarpen finantzarioen jaulkipena
12. Zaintza Batzordeko kide bat berritzea
13. Galderak eta eskaerak

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA
Oñati, 2010eko maiatza

OHARRA: Bazkide guztiei gogorarazten zaie kanpo auditoriak aztertutako urteko kontuak, emaitzak banatzeko proposamena eta gestio txostena egoitza sozialean eskura dituztela Batzar Nagusira bitartean aztertu ahal izateko.

KULTURA > MUNDUMIRA

Debekatuta egongo da GI-632 errepidean oinez ibiltzea

M.B. > ANTZUOLA

Maiatzaren 29an eta 30ean munduko kulturen festaren hiriburu bihurtuko da Antzuola, eta horrek hainbat moldaketa eragingo ditu zirkulazioan. Pedro Iturbe alkatetik azaldu du, hasiera baten, Ber-

garatik Antzuolarako bidea auto pribatuarendako ez dela mugatuko; dena dela, gaineratu du arazoak sortzen baldin badira, neurriak hartuko dituztela; hortaz, garraio publikoa erabiltzeko dei egin du oster. Antzuolarrei, gai-

nera, autoak garajeetan sar ditzatela eskatu die. Ertzaintzatik, berriz, jakinarazi dute zapatuan eta domekan debekatuta egongo dela GI-632 errepidean oinez ibiltzea eta ohartarazi dute bide baterrean uzten diren ibilgailuak erretiratu egingo dituztela.

KAMISETA, 24 EUROTAN

Bestalde, aurten Mundumirako kamiseta solidarioa dagoeneko salgai dago bailarako herri gehienetan. Ternuak diseinatu-tako elastikoak 24 euro balioko du eta saldutako kamiseta bakoitzarengatik 3 euro jasoko dira. Lortutako diru guztia eskualdeko gobernuz kanpoko erakundeek martxan dituzten proiektuak bultzatzeko bideratuko da.

MENDI IBILBIDEAK

Bestetik, eskualdeko baliabide kulturalak eta naturalak ezagutzera emateko antolatu dituzten bisita gidatu eta mendi irteeretan izena emateko epea gaur amaitzen da. Interesatuak 943 79 64 63 telefono zenbakira dei dezakete, edo, nahiago izanez gero, *turismo@debagoiena.net* helbidera mezua bidali.

LANBIDE HEZIKETA CES



ILE-APAINKETA
ESTETIKA
HOBEKUNTZA

kurtsoak

MATRIKULAZIO
EPEAK ZABALIK

Nazioarteko titulu ofiziala
Goi mailako diplomatura
3.maila Erresuma Batuan



Olagibel kalea 61 B
Tel.: 945 12 03 60
Gasteiz

formacionprofesionalce@gmail.com | www.estudiapeluqueria.com



Markole auzoko etxeetako erosleak enpresa eraikitzailearekin negoziatzen ari dira, kalte ordainak jasotzeko. MIRARI ALTUBE

KRISIA > ETXEBIZITZA


Kalte ordainen eske, etxeak bahitu dizkietelako

Diru arazoak medio, Estorbat 2005 enpresak ezin izan ditu Aretxabaletako Markole auzoko 11 etxe amaitu; kaltetuek kalte ordainak eskatzen dituzte

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE
Aretxabaletako Markole auzoko 11 erosle etxebizitza barik geratu dira. Kaltetuen esanetan, etxearen %40 ordainduta duten arren, enpresa eraikitzaileak hondoa jo du eta etxebizitzok erabat bukatzeke laga ditu.

Kaltetuek azaldu dutenez, kapital eskasarekin sortu zen Estorbat 2005 enpresa eraikitzaile eta Aretxabaletako etxeak egiterako orduan Kutzak jarri zuen diru kopuru handiena. Etxeok salgai jarri zirenean –oraindik amaitu barik–, 11 etxe saltzea lortu zuten eta zazpi geratu ziren saltzeke. Baina lanak amaitu baino lehen diru barik geratu zen

Estorbat 2005 enpresa, obrak gelditzeraino. Horren aurrean, beste promotore batek hartu zuen etxeon ardura eta obrak martxa



Etxeen erosleek %40 ordaindu zuten etxea eraiki aurretik; azaldu dutenez, "diru asko" da. Asteon enpresa eraikitzailearekin bilerak egin dituzte, baina soluzioa "Kutxaren eskuetan" dagoela diote.

onean berrabiarazi zituen, baina azkeneko sei hilabeteetan hornitzaileei ez diete ordaindu eta, ondorioz, etxeak bahitu –enbargatu– egin ditu Kutzak. Hortaz, bahitura ez badute alxatzen, erosleek ezin dute etxea jaso. Hamai-ka atzerapen eta buruhausteren ostean, kaltetuek osatzen duten taldea negoziatzen ari da, atzerapenak egindako kalteen ordaina jaso ahal izateko; diotenez, "oso handiak" dira kalteok. Asteon bi batzar egin dituzte bi aldeek.

"KUTXAK EZ DU AURPEGIA EMATEN"
Kutxarekin eta enpresa eraikitzailearekin mahaian esertzea da kaltetuek eskatzen dutena. Erosleetako batek honakoa adierazi du: "Kutzak ez du aurpegia ematen, harremana zuzenean enpresarekin dutela diote, eta hori ez da egia. Gure bermea dira eta bete-behar batzuk dituzte gurekin; eztabaida horretan dihardugu".

EKONOMIA > KRISIA

LASA enpresa itxi egingo dute, eta 25 langile kaleratu

J.BEREZIARTUA / U.MADERA > ARRASATE
Krisi ekonomikoak gure ibarreko enpresak astintzen jarraitzen du. Oraingoan Arrasateko Markulete industrialdean dagoen Lasa enpresaren txanda izan da. Bertako egoitza itxi eta 25 langile kalean geratuko dira, ELAk prentsa oharrean jakinarazi duenez. Kasua epaitegietan dago eta epaileak astebete bat barru jakinaraziko du erabakia.

IRAILETIK SOLDATARIK GABE
ELA sindikatuak salatu duenez, enpresak "soldatarik ez du ordaintzen irailetik eta EREan

daude azarotik". Eta honakoa ere gaineratu du: "Enpresa itxi nahi dute orain lanik ez dagoela argudiatuz. Hori bai, gaur egun oraindik lana eskaintzen dute eta Txinan egiten da lana enpresako planoekin".

KALTE ORDAINEN BILA
Euskal sindikatuak jakinarazita-koaren arabera, langileak Foga-saren, soldatak bermatzeko fonda-aren bitartez ari dira kobratzen. Hala ere, honakoa adierazi du ELAk: "Fogasak bost hilabete-ko soldata estaltzen du baka-rrik, eta hortik aurrera norbera-

ren langabeziatik jaten" dabil-tza. Horrez gain, 25 langileak kalean geratzen badira, 20 eguneko kalte ordaina emango dietela jakinarazi diete, baina ELA sindikatuak 45 eguneko kalte ordainak eskatzen ditu. Erabaki hori ere epailearen esku dago.

Enpresa ixten denean kalean geratuko direnen egoera ere azpimarratu du ELA sindikatuak: "Gazteenak 34 urte ditu, eta gero 40 urtetik gorakoak dira guztiak". Beraz, lana berriz aurkitzeko zailtasunak izango dituzten langileak dira kalean geratuko direnak.

ZUZENDARITZAK, ADIERAZPENIK EZ
Lasa Lineas Automaticas enpresako zuzendaritza batzordeari galdetuta, ez du Arrasateko lantokiaren gaineko adierazpenik egin gura izan oraingoz.

etxeko leihotik



Iban Arantzabal > 'iarantzabal@goiena.com'

Funtzionarioak kexati; gainontzeko langileak?

Ez dut kexen zirimola gertu-gertutik jarraitu, baina jakin-ekoa da funtzionarioak kexaz daudela. Sindikatuak dira kexei bozgorailua jartzen dietenak eta ez dago sindikaturik bozgorailu lan hori egin ez duenik.

Zapatero serio agertu zaigu eta hori bai ikusi nuela. Ezingo dugu esan borondatea falta zaionik gizonari, ze horrelako neurriak zerbait ez badira dira popularrak. Neurriok hartzea ez dut uste politikarien gustukoa denik. Aurretik bota zuen beraien soldatak direla gehien jaitsiko direnak eta hori ere bada.

Eta funtzionarioen kexak ez dakit nondik datozen zehatz, ze huelga orokorra deitzeko serioa izan behar du gaiak. Jubilatze-ra bitarte lortuta duten plaza galtzeko arriskua ote arrazoia? Lan baldintzak zeharo okertu zaizkie milaka eta milaka funtzionariori?

Asteburuan telebistan ikusi ditut Fagorreko hainbat langile ez ehuneko hiru, ez ehuneko bost, baizik eta soldataren ehuneko zortzi jaistea erabaki dutenak. Aparteko soldata kobratzeari ere uko egin zioten lehenago eta enpresa horietan badira ERE famosoa jasaten dihardutenak ere.

Zein den paradoxa? Ba, hain zuzen ere, kooperatibetan lanean diharduten horiexek direla funtzionarioen soldataren parte bat ordaintzeko dirua ematen dutenak. Hauek ez dute *manifik* egin, beraiek hartu dituzte neurriak.

> Ekoizten duten ekonomiaren parte dira goian aipatutako batzuk; beste batzuk, berriz, gastatzen duen ekonomiaren parte. Aldeok beharrezko diren zalan-tzan jarri barik, biek jakin beharko lukete egoera ekonomiko berri honetara moldatzen.

> Pentsiodunei egingo zaien jaitsiera eta umea izateagatik dirua ez kobratzea okerragoak dira, baina momentuz hauek ez dute manifik egingo. Kontrara, historian lehenengo aldiz soldata jaitsiko zaien funtzionarioak kalera aterako ei dira.

> POLITIKA

Pello Urizarrek EAren etorkizuna izango du hizpide Eskoriatzan

Gaur egungo Eusko Alkartasunaren proiektu berriaren gaineko hitzaldia izango da datorren maiatzaren 26an. Pello Urizar alderdiko idazkari nagusiak hartuko du hitza eta egungo egoera politikoaren analisisa egin ostean, etorkizunera begira alderdi abertzaleak dituen erronkak izango ditu hizpide.

Horrez gain, EAren azken kongresuko erabakien gainean ere jardungo du Urizarrek. Hitzaldia, esandako moduan, datorren eguaztenean izango da, hilak 26, Eskoriatzako Kultur etxean (18:30). Deialdia irekia da, eta beraz, herritar guztiak daude gonbidatuta.

> EUSKALGINTZA

Mintza Eguneako herri bazkarirako txartelak salgai jarri dituzte

Mintza praktika egitasmoetan parte hartzen duten lagunek jai berezia ospatuko dute datorren ekainaren 6an: Mintza Eguna. Aurten Arrasateri egokitu zaio jaia antolatzea, hau da, Zahar Berri eta AED elkarte-aren ardura izango da. Antolatzaileek aurreratu dutenez, Euskal Herri osotik etorritako 300 lagun izango dira gurean.

Mintzalagunez gain, Zahar Berri eta AEDk Arrasateko eta Debagoieneko herritarrei jai-aren parte hartzera deitu die, bereziki herri bazkarira gertura daitezen. Txartelak AEDn, Jardunen eta Loramendin jarri dituzte salgai, 20 eurotan.



zabalik

Rufina Olasagasti

Hiru gizon prestu

Bergarako hiru gizon dira gaurko hizpide. Jendea animatzen, ekitaldiak antolatzen eta burutzen parte hartzen dute Bergarako Udalaren Jai batzordearen barnean.

Batzorde honen baitan egiten dute herrigintzarako euren aportazioa Luis Marik (Gutierrez, *Guti*) eta Felixin-ek (Felix Iñiguez de Heredia). Baita Felixek (Beitia) ere duela gutxi arte.

Hiruko hau Jai batzordean aritu izan den gisara, elkarte propioetan aritzen dira beste asko: musika arloan, kantuan, dantzan, antzerkian, aisialdian, euskaran, filatelian, argazkiak egiten, ingurumenean, irratian, pinturan, tailan, zeramikan, kirolatan... baita alderdi politikoetan edo sindikatuetan ere.

Entitate horietan parte hartuz eta euren lana zabalduz bizitasuna ematen diote herriari.

Jaietan azaldu ohi da gizon hauek eta beste hainbat pertsonak Jai batzordean egiten duten lana: ohiko ekitaldiez gain, berritasunak ikusten ditugu Pazkoetako egitarauan, eta horrek sortzen duen ilusioa jendearengan.

Ilusio horixe ageri zen iaz Tuterako Santa Ana festetan. Musika taldeek edo orkestrek emanaldia bukatzean, Udal Musika Bandak *La Revoltosa* obra jotzen zuen gauero. Astiro dantzatzu hasi kioskoaren bueltan eta musikaren erritmora dantza bizkortuz zihoazen, erritmo bizian guztiak nahasita bukatuz dantzan pozkario betean.

Musika bandakoei galdetzean ea ez al ziren jaietako egun guztietan parte hartzeaz nekatzen, algara batekin erantzun zuten: "Ez, horixe! Sekulako gozatua da jendea dibertitzen ikus-tea!".

Honelako zerbaitek bultzatzen ote ditu Luis Mari, Felixin eta Felix?

Gure esker ona zuoi, hiru gizon prestuoi!

"Jai batzordearen baitan egiten dute herrigintzarako euren aportazioa"

usteak uste

Jokin Bereziartua

Erraz igo? Ez dator Realarekin bat

Reala bolada txarra bizitzen ari da atearen aurrean. Azken zortzi jardunaldietan hiru aldiz zulatu dute etsaiaren atea; ez dira lider sendo baten zenbakiak. Denboraldia luzea egiten ari zaie, eta eskerrak besteak asko ari direla barkatzen. Realak huts egin, Herculesek berdin. Aldi berean, onartu beharra dago ez datorrela Realarekin bat denboraldi bateko helburuak erraz lortzea. Sufritzea gustatzen zaio talde txuri-urdinari, sufrimendu barik ez dago-eta loriarik. Hori bai, igo edo ez, barre edo negar egin, ez ahaztu futbola dela, besterik ez.

marrazkiz

Alex Ugalde



blog-top

'84 Charing Cross Road' (Helene Hanff, 1970)

Asier Sarasua

<http://eibar.org/blogak/sarasua/>

Nere amak, joan zen astean: "Hau liburuau ez dozu irakorri? Hartuizu. Delizia bat da".

Liburu epistolarra, idazle baten korrespondentziarekin osatutakoa. Helene Hanff idazleak eta Londresko liburu-denda bateko langileek 20 urtean izandako eskutitz-trukea da *'84 Charing Cross Road*.

1949a. Mundu-gerra amaitu berri. Hanff idazlea New Yorken bizi da. Bakartia, kultura handikoa, diruz urri, baina liburuak erosteko gosez. Ameriketara dirua dago, baina liburu merke eta ganorabakoak. Ozeanoaren beste aldean, Frank Doel, Londresko Charing Cross kaleko Marks & Co liburu-denda zaharreko langilea. Ingalaterran gerraren aztarnak gain-gainean dituzte eta ez dago ez janaririk, ez dirudik ezertarako. Bai, baina, liburu ederrak eta literatura maite duten lagunak.

Bien artean izandako eskutitzak biltzen ditu eleberri honek. Liburuak, literatura eta liburu-denda bat. Dena goxotasun, umore eta benetakotasun printza batzuekin hornituta. Horixe da liburu hau. Kultura-liburu ere bilakatu da askoren-tzat. Antzezlanak eta filmak ere ekarri zituen bere sasoian.

Ondo dago. 100 orrialde eskas, siesta sasoian irakurtzeko modukoa, gustura, liburu artean.

Gure telebista: Youtube

Joxe Aranzabal

<http://goiena.net/blogak/faroa/>

Bost urte baino ez ditu, eta denbora horretan Youtube jende askoren telebista bihurtu da. Beste modu bateko telebista da, jakina, bertan ikusi beharrekoa (ia edozer) ikusten baitugu guk nahi dugun tokian eta aukeratzen dugun orduan. AEBetako kate handiek elkarrekin duten audientzia ia halako bi lortu du, eta bertan minuturo 24 orduko telebista igoten du jendeak. Ez da harrigarria?

koplak

Andere Arriolabengoa

Azpiko etxera orain

Jon Agirre Azpikorentzako gaurko nire aldarriak, aste honetan omendu dute famili eta herriak.

Zuhaitzak eta baso loreak loratzen diren bezperan, hogeita bederatzigarrena bete berri du kartzelan.

Puerto, Sevilla, Logroño eta Malaga, Huelva tartean, Espainia dena zeharkatu du lau paretaren artean.

Gaixotasuna zuretzako da gaur egun nahikoa kate, behingoagatik haien legea zurekin bete bezate.

Gogoan izan nahiz ta kondanak izan hamaika luzapen, zure famili eta lagunak ez zaituztela ahazten.

Gauza bat dauka zure herriak une honetan seguru, berandu baino lehen Aramaion elkar ikusiko dugu.

Goienkaria

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • E05 Basabe Poligonoa • 20550 ARETXABALETA

Lehendakaria Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak eta Goienka2a), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Oxel Arrieta eta Imanol Soriano **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Igone Osinaga, Ziorza Martin, Edurne Gorosabel, Aintzane Muruamendiarrak **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Ibarra kalea 6 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxe: 943 25 05 12

Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxe: 943 25 05 00

Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxe: 943 77 18 54

Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxe: 943 25 05 09

Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 20.000 ale • **Difusioa:** 19.724 ale.



OID erakundeak
ikuskatutako astekaria



LAGUNTZAILEAK



Eusko
Jaurlaritza



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Bergarako
Udala



Oñatiko
Udala



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Antzuolako
Udala



Aramaioko
Udala



Elgetako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Arrasateko Lizarra gara dadin

Eukene Mondragon
(Zustarrak Errotuz taldearen izenean)
Arrasate

Ez dakigu denbora doan aurrera, ala geu garen, natura-ren atal (konsziente) gisa, aurrera egiten ari garenak. Kontua da XXI. mendearen, jada, 10. urtea igaro zaigula. Izan garenaren kontzien-tzia, memoria bidez, berregi-ten dugu. Etorkizuna, ordea, ez da inoiz heldzen, orainaren forman ez bada.

Arrasatek (Montdragon gatzizenez) 750 urte betetzen omen ditu batzuen arabera; topikotan oinarriturik, iraganari buruzko lelo berdi-nak errepikatuz.

Euskaldunoi, eta arrasatea-rroi ere, arrotzek kontatu (edo ezkutatu) digute "gure" historia.

Guk geuk badugu iragan oparoa dugun kontzientzia; euskaldun nahiz arrasatear gisa. Baina kontzientzia hori bizirik mantentzen ditugun zenbait elementu bereizgarri eta propiotan oinarritzen da, eta ez gure iraganaren behar besteko ezagutzan.

Geure borondatez atxiki omen ginen Gaztelara 1200ean, oraindik existitzen ez zen Gipuzkoarekin batera.

Gaztelako Alfonso VIII.a hona iritsi zenean, guk Santxo VII.a Azkarra genuen errege. Eta gebaratarrak haien "tenente".

Alfonso X el Sabio baino 100 urte luze lehenago izan genuen Santxo VI.a Jakintsua.

Eta ganboatar ala oinaztar ginen? Ala ez bata eta ez bestea? Eta 1448ko Arrasate-ren erreketa zergatik izan zen? Eta zergatik gara hain egoskor geureari eusten?

Gure historia etxekoek kontatu izan baligute; edo arrotzek ezabatu izan ez baligute...

Zergatik ez dugu arakatzen gehixeago gure iraganean, gure historiaren jabe egin eta duen garrantziaz jabetu...?

Izan berri diren hitzaldiek horretan lagundu digute. Leze-Txiki ezkeroztik 1260ra arteko hutsuneak eta hortik aurrera kontatu zaigunak zalantza asko sortzen digu. Horri guztiari erantzun nahian, hainbat galdera egin diogu geure buruari eta erantzunik ere jaso dugu, baina gure egoskortasuna esplikatzeko haina, ez. Horretan saiatzeko asmoa dugu. Zuretzat ere, irakurle, lekua bada; anima zaitez, informatu eta hausnar-tzera.

Eskerrik asko

Gotzon Osinaga
Oñati

Lau berba bakarrik eskerrak emuteko. Zapatuan [maiatzak 8] Euskal Herriko Txistulari Elkartiaren eskutik zilarrezko domina jaso neban. Nere familixiarekin batera, senti-menduz eta emozinoz betetako arratsalde hunkigarri bat bizi ahal izan neban.

Bertan, domina jaso nebanian, urduri eta negar malkuairi eutsi ezinik, berba batzuk esatia lortu neban, baina gaur, oindiok be, zapa-tuan emundako eskerrak azpimarraketia gurako neke. Eskerrik asko urte guzti honeittan nerekin lan egin dauein txistulari, lagun eta abarrei. Domina honek ez leke inondik inora zentzurik eukiko, ezingo banintza bidian lagundu doztain pertsona danakin gogoratu.

Euskal Herrixak herri moduan dakon nortasuna ikaragarrixa da eta balore hau ez dogu galtzen itxi bihar. Bultzaketan, indarketan edota bere alde borroka egitten saiatu naiz. Eta neretzat, txistua eta euskal dantzak aitzakixa eder bat baino ez dia izan, hau guztixa aurrera eruateko.

Eskerrik asko.

Ustelkeria Bergarako Futbito Txapelketan

Josu Lete eta Gorka Martinez
(Niutim taldearen izenean)
Bergara

Idatzi honek NIUTIM taldeko kide guztien iritzia jasotzen du, eta bere helburua herrita-rrei informatzeaz gain aurten txapelketan parte hartu duten talde guztiei liga amaieran gertatutakoaren gainean zenbait puntu argitzea da.

Txapelketa urrian hasi zen eta liga amaitzeko bi jardunal-diren faltan 3 talde geunden liga irabazteko aukerekin (Errotagain liderra, eta bi puntura bai UDAkabauak zein Niutim taldeak). Gainera, azken jardunaldian Niutim eta Errotagain taldeen arteko partidua jokatu beharra zegoen.

Gauzak horrela, Erramu Zapatuko aste bukaera iritsi zen. Lan asuntoak eta lesioak zirela medio Niutim taldekoak jendez justu geunden, hain zuzen ere 6 jokalarirekin. Hortaz, aurreko astelehenean antolakuntzari abisatu genion

(Errotagain taldea) jokatu beharreko partiduak igande arratsalderako programatzeko; izan ere, nahiz eta justu egon arratsalde horretan jokatzeko ez genuen inongo arazorik.

Gure sorpresarako ostegu-nean partiduen programazioa-rekin batera informatu zitzaigun aste bukaera horretan derrigorrezkoa zela liga txapelketa amaitzea eta, hortaz, bi partidu programa-tzen zizkigutela (ez zegoen inongo beharrik aste bukaera horretan amaitzeko, baina antolakuntzari “bapatean” presa sartu zitzaion), bata Erramu Zapatuko arratsaldean eta bestea igande goizean 9etan Errotagain taldearen aurka (kasualitatea). Hau ikusirik, antolakuntzako kide batekin harremanetan jarri ginen gure egoera beste behin azaltzeko; hau da, larunbat arratsalde zein igande goizerako 4 kide besterik ez geundela eta jokatzeko genuen aukera bakarra igande arratsaldea zela.

Ostiralean berriz ere antolakuntzako kide berdinari deitu genion eta berau parti-duen programazioa aldatzea-ren aurka azaldu zen. Kontuan izan behar da Niutim taldeak partiduen programazioa egin baino zenbait egun lehenago egin zuela igande arratsaldean jokatzeko eskakizuna. Bestalde, azaldu beharra dago igande arratsaldean jokatzeko aukera bazela; izan ere, aste bukaera horretako partidu guztiak igande arratsaldean jokatzeko programatu ziren, Niutim taldeak jokatu behar zituen bi partiduak izan ezik (berriz ere kasualitatea).

Antolakuntzaren jarrera ikusirik eta partidu duin bat jokatzeko aukera ez zegoela ikusita, Niutim taldeak antolakuntzari partiduak jokatuko ez genituela komuni-katu genion. Aste bukaerari amaiera emateko, larunbat eguerdian antolakuntzaren sms bat jaso genuen, non informatzen baitzitzaigun gure partiduen ordutegia ez zutela aldatuko. Gainera, hau gutxi balitz, ez ziren gai izan larun-bat arratsaldeko gure aurka-riei partidurik ez zela jokatuko abisatzeko.

Hurrengo *Asteleheneko Goienkaria*-n artikulu bat publikatu zen non argazki eta guzti Errotagain taldea ikus baitzitekeen txapelketaren irabazle bezala eta berau ospatzen; hori bai, garaipen hau lortzeko jarraitu zuten trikimailuaz informatu gabe.

Orduz geroztik erantzunik gabeko dozenaka dei egin dizkiogu antolakuntzari egoera konpontzeko asmoz (bi partiduak jokatzeko fetxa berri bat jartzeko, besteak beste),

baina argi geratu zaigu ez dutela inongo gogorik.

Hainbeste urtetan zehar txapelketan parte hartu ostean Niutim-eko taldekideek errespetu gehiago merezi dugula uste dugu. Egia da txapelketa antolatzeak lan handia duela, eta guk, behin-tzat, hori beti baloratu izan dugu. Hala ere, iruditzen zaigu horrek ez diola antolakuntzari (Errotagain) eskubidea ematen txapelketa beraien antojora manipulatzeko beste taldeak kontuan izan gabe.

Bukatzeko, esan beharra daukagu Niutim taldeak nahiago dugula txapelketa ez irabaztea duintasunik gabe lortutako trofeo bat apaletan izatea baino. Hori bai, azken gauza bat eskatuko diogu antolakuntzari: hurrengo urterako horrela jarraitzeko asmoa baldin badago, abisatu, mesedez... parte ez hartzeko!

Jose Luis, etxera

Anaje Narbaiza eta Maite Aristegi
Bergara

2.500 karaktere bere espazioe-kin, eta zela adierazi tarte labur honetan Jose Luisen izaeraren edertasuna, umilta-sunetik beti erakutsi izan duen gizatasuna; zela kabidu hemen herri eta herritarrekiko bere neurrigabeko maitasuna; eta zela adierazi bizi guztiko on-egite ahaleginaren ordainetan jasotzen ari dena, bere egoera-ren krudelkeria, zentzugabeke-ria, miseria?

Konturatzen ete gara zelako suertea izan dugun bera ondoan izatean,bere ekarpen xumeak hainbat arlotan,bere-ziki gutxietsienei dagokienean, izan duen garrantziaz

Hitz gutxirekin asko esan daitekeela erakutsi digu,eta ekin eta egiteari sekula beldurrik izan barik, mundua hobexeagoa izan daitekeela frogatu digu etengabe, bere eguneroko jardunarekin. Herria eta herritarren beha-rrekiko, bereziki sufrimendua-rekiko,beti azaldu duen sentsibilitate berezi eta xamurtasunak, barne-barneko kristau konpromiso eta espiritualitate sakonetik abiatuta beti erakutsi duen izaera zabalak, bere argitasu-nak eman dion sortzaile amorratuaren sena eta nego-ziatzeko gaitasunaz lagunduta, eta, zela ez, bere herrian sinestearen tinkotasuna bidaide, benetako bide-erakus-le, herri-egile eta eragile, euskaldun handi bihurtu dute Jose Luis. Sentitu, pentsatu, aztertu, proposatu...! Herri bultzatzaile etengabea, eta betirako alkate eredugarria.

Baina euskaldunok menpe-ko eta zapalduta ikusi nahi gaituen espainiar handikeriak, ezin jasan herriak dion hain-besterainoko maitasunik. Jose Luisen duintasuna zigortu nahi; umiltasunez herriaren alde lan-egite hutsagatik, atzerriko epai bidegabe eta mendekuzale batek, han dauka, bortxaz, urrutiko paramoetan, kartzela-zoko umel, ilun eta hotz batean krudelkeriaz zigortua, sikiera "humanitatea-ren" izenean ere 75 urte-luze nekatuak eta gaixotasun larria ere aintzakotzat ere hartu gabe. Euskaldunon aurkako errepresioaren ankerkeriak baditu mila aurpegi, baina gure herritar kuttunarekikoak neurri guztiak gainditzen ditu. Nelson Mandela herri zapal-duen sinbolo bihurtu zaigun honetan, nork ukatu Euskal Herriak ere baduela bere Mandela, Jose Luis Elkoron pertsonifikatua?

Baina izenik ere ez duen egoera malapartatu honetan izan arren, bakarrik eta urrin izanagatik ere, Jose Luis gertu sentitzen dugu, badakigulako oso bestelakoa litzatekeela epaia bere herriak epaituko balu. Beti jakin izan duelako bere izaera umilarekin jendea-ren inguruan egoten, jendeari entzun eta arazoei erantzuten, jaietan ere oso presente izango dugu eta zor diogun guztiaren ordain txikia baino ez bada, bildu gaitezen herritar guztiok, lehenbailehen etxean, herrian, besarka dezagun.

Futbolari ezagunek ere, euskararekiko konpromisoa

Valentin Arriola
Aramaio

Hori frogatuta geratu da gaur Aramaion: Athletic futbol taldeko Koikili egon da herriko San Martin eskolan, goizean. Zuiako Koadrilak antolatu du ekitaldia.

Zera, jokalaria horrek enpresa bat dauka, aholkulari-tza enpresa bat. Batez ere, zerbitzuerako enpresa da, eta bere zerbitzu bat da euskara bultzatzeko kirolaren bitartez.

Gutxitan ikusi ohi ditugu halako jarrerak kirolean, kirol profesionalean; beti jotzen baita espainolerantz. Nahiz eta euskaldun bat baino gehiago izan euskal taldeetan, elkarren artean berba egiterakoan sarritan jotzen da *errazenera*.

Ba, zorionak, Koikiliri, eta Euskal Herriko beste kirolari batzuek ere har dezatela etsenplu. Aupa, Athletic!

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karak-tere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin bate-ra bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



**Barrenkalea 33
20570 BERGARA**



**Telefonaoa:
943 25 05 05**



**Faxa:
943 25 05 12**



**Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com**

MUren hiru hanketako bat da Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea. Eskoriatzan

dago, baina Aretxabaletara ere eroango dute aurki ikasketak adar bat: Ikus-entzunezkoen

Komunikazioa. Fakultate euskalduna, euskaltzalea, proiektu berezia daukana eta koopera-

tiba. Horiek egiten dute Huhez berezi, bakar, Nekane Arratibel dekanook dioenez.

Nekane Arratibel > Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanoa

"Udan lanak hasi eta datorren urteko udazkenean Aretxabaletan izango gara"

ENEKO AZKARATE > ESKORIATZA

Antzuolan bizi den Nekane Arratibel lazkaotarra da Huhezi fakultateko dekanoa 2007a ezkerro. Bologniara egokitzea eta Aretxabaletan eraiki nahi duten fakultate berria dira haren erronka nagusiak. Horiei buruz dihardu.

MUko hiru hanketako bat da Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea. Ze adar dauka fakultate honek?

Hiru ezagutza arlo dauzkagu: batetik, hezkuntzarekin lotutakoak eta, horren barruan, Irakasle eta Psikopedagogia ikasketak eta beste hainbat gradu-ondo: DBHko irakasleendako master ofiziala, aurren abiatuko duguna, Kultura Arteketasuna eta Eleaniztasuna izena daukana, eta baita Euskal Kulturgintzako Transmisioako masterra ere. Bigarren ezagutza arloa da Ikus-entzunezkoen Komunikazioa. Azkenik, lankidetzaren arloa: Lan-ki Institutua: batik bat, formazioa eta ikerkuntza egiten ditu eta kooperatibismoaren gaineko gradu bat ere eskaintzen du.

Eskoriatzan zaudete kokatuta. Zenbat ikasle ditu Huhezik?

1.150 ikasle inguru, kontuan hartuta gradu eta diplomatura zaharrak, nahiz gradu-ondo eta hirugarren zikloko ikasketak. Bi eraikinetan gaude Eskoriatzan.

Fakultatea txiki geratu zaizue eta Huheziko adar bat, Ikus-entzunezkoen Komunikazioa, Aretxabaletara eroango duzue.

Bai. Hasieran pentsatu genuen Eskoriatzan bertan egitea handitze lanak. Aparkalekua dagoen tokian beste eraikin bat egitea zen aukeretako bat, baina ez zen aukera ona, besteak beste, nahikoa masifikatuta dagoelako fakultatea... Halako batean sortu zitzaigun Aretxabaletako Udaletik aukera Tubos izenarekin ezaguna den fabrikaren eraikinera joateko. Azterketa egin dugu eta fakultateko adar bat, Ikus-entzunezkoena, hara erortea egoki iruditu zaigu.

Noiz joango zarete Aretxabaletako egoitza berrira?

Aurreikuspena da 2011-2012 ikasturte hasierarako hara joatea; udan obrak hastea eta urtebeteko epean amaitzea. Orain daukagun arazoa da Irakasle ikasketak hiru urteko diplomatura izatetik lau urteko gradu izatera pasa direla. Horrek esan

nahi du aurreikusi behar dugula, gutxienez, 200 ikasle gehiago Eskoriatzako Irakasle Eskolan.

Ze berrikuntza ekarriko dio leku aldaketak Ikus-entzunezko Komunikazioari?

Eskoriatzako fakultatean egokitu ditugu ikasketak espaziora; oster, Aretxabaletan, gure ikasketetara egokitzeo aukera eman digu espazio berriak. Esaterako, Huhez in gaur egun ez daukagu telebistako platorik eta Goierna Telebistara etorri behar izan dira praktikak egitera. Orain, Aretxabaletan bertan egingo ditugu telebistako plotoa, irratiko estudioa... Bestalde, proiektu berri-tzailea egin nahi dugu eta hemengo komunikazio enpresa batekin gabiltza lanean elkarrekin proiektu komun bat garatzeko.

Eskoriatzako fakultatean zer lagako duzue?

Hezkuntza arlo guztia, irakasle ikasketak, graduak, masterrak... Eta, horrekin batera, Lan-ki Institutua.

MUK urteak daroatza euskarazko ikasle gaiak hezten edo sortzen, Eskoriatzako Irakasle Eskolan. Noiztik?

Irakasle Eskola 1976. urtean sortu zen. Garai hartan ikusi zen bazela behar bat euskarazko irakasleak formatzeko, ikastolen sorreragatik batik bat.

Azkeneko urteotan loraldia izan du karrera horrek.

Bai, azkeneko 4 urteotan eza-gutu dugu loraldi bat. Zergatik? Arrazoietakoa bat da irakasle asko erretiroa hartzeko sasoiaren edo sasoiatik gertu daudela. Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren aurreikuspenen arabera, etorkizunean, irakasle premia handia egongo da. Mezu hori jendartearen zabaldu da eta gaur egun eskari asko kanpoan uzten gabiltza.

Zer eskaintzen du Huhezik beste fakultate batzuek eskaintzen ez dutena?

Batetik, daukagu hezkuntza proiektu berezia: Mendeberrri. 2000 urtetik garatzen gabiltza proiektua eta, horrek, erraztu du Bologniara egokitzea. Metodologia aldetik, aldaketa sakona ekarri duena. Ikasle eta irakasleen arteko rola erabat aldatu da. Bestetik, euskaraz ikasteko aukera eskaintzen dugu. Euskaldunak gara, euskaraz bizi nahi dugu fakultatean eta, gutxienez, gra-



Nekane Arratibel Huheziko dekanoa, Arrasaten martitzenean.

ENEKO AZKARATE

IKASLE GEHIAGO

"Gutxienez 200 ikasle gehiago izango ditugu Eskoriatzako Irakasle Eskolan"

IKASLEEN JATORRIA

"Bailarakoak dira ikasle gehienak, baina azkenaldian asko datoz Donostia edo Durangotik"

du mailako ikasketak euskaraz ematen ditugu. Horrez gain, kooperatiba gara eta horrek berezi egiten gaitu: ikasleak proiektuaren protagonista eta parte dira.

Euskal Kulturgintza Aditu Titulua masterra antolatuko duzue aurren Huhez in. Hirugarren edizioa izango da aurtengoa. Ze berrikuntza?

Berrikuntza handirik ez. Beharbada aditu berriak izango ditugu. Master honen berezitasuna da biltzen duela euskal kulturgintzan egin diren hainbat

eta hainbat esperientzia eta horiek gertutik eta protagonisten eskutik ezagutzeko aukera ematen digula.

Bada beste master bat, datorren ikasturtean hasiko duzue-na: Hezkuntza Testuinguru Multikultural eta Eleaniztasun. Zer izango da?

Master ofiziala. *On-line* eman go da, euskaraz eta gaztelaniaz. Gure jendartearen geroz eta handiagoa da migrazioa, kulturen arteko gero eta nahaste handiagoa dago, gero eta hizkuntza gehiago entzuten da kalean... Hori dena kudeatzeko jakinduria eta formazio berriak behar dira. Master honek erantzun nahi die eskaera berriei. Irakasleei zuzenduta dago batik bat.

Zein da Huheziko ikaslearen tipologia, adina, sexua eta jatorriari dagokionean?

Ez dago tipo bakarra, ikasle-ten arabera ezberdina da-eta. Gradu-etan, 18 urteko ikaslea da tipoa eta, orain dela gutxira arte, emakumezkoak batez ere. Azken urteotan, ordea, gero eta gizonezko gehiago dator, heziketa fisikoarekin lotutako espezialitatea eskaintzen gabiltzalako. Bestalde, psikopedagogian, denetik daukagu: irakasle ikasketak amaitu berri dituztenak, baina baita 50 urteko ikasleak ere. Masterretan eta gradu-ondoetan ere espezializatu nahi den jende heldua daukagu. Bestalde, ikasle gehienak bailarakoak dira, baina baita Gipuzkoako beste toki batzuetakoak ere. Azkeneko urteotan, jende asko dator Donostia eta Durango aldetik.

Zer moduz Huhezinema izeneko film laburren lehiaketa?

Oso pozik gaude; izan ere, hirugarren urtez antolatu dugu aurren eta urtetik urtera handitzen doa parte hartzea eta oihartzuna. Azpimarratzekoa da, gainera, ikasleek duten protagonismoa, haiek antolatzen dute-eta, ikasleen gidaritzapean.

Literatura Astea ere urtero antolatzen duzue...

Bai; urtero, gai baten gainean antolatzen da eta kanpoko jendea ekartzen dugu. Hemen ere, Literatura Astearen azkeneko egunaren antolaketa ikasleen euren eskuetan uzte dugu.

goiena.net/bideoak
Elkarriketa osoa, webgunean.

HIPOTEKA ZORUGABEA ETA GASTUGABEA




Ekarri zeure hipoteka kutxara.

Gastuak ordainduko dizkizugu, 1.000 €raino
eta Euribor + %0,40rainoko kuota ahal izango duzu lortu.
Eskura ezazu eskaintza honen baldintzei buruzko informazioa.

Baietz bizitza arrosa kolorez ikusi.

zer nahi duzu bihar?

Debagoieneko GREMIOAK



AROTEGIAK

AZKARATE AROTEGIA

Bergara

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzailleak, sukaldeak
- K-21

Telleria 19 B02-B03

T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

www.goiena.net/blogak/azkarate

ELEKTRIZITATEA

AITZORROTZ ELEKTRONIKA

Aretxabaleta

- Telebista, audio eta bideoa
Salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak

Otalora 14

T: 943 79 16 10

F: 943 79 16 10

ARANZABAL KOOP. E.

Arrasate

- Instalazio elektrikoak
- Antena kolektiboak

Zerkaosteta 15

T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

F: 943 79 68 21

ERAIKUNTZAK

ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

Arrasate

Meatzerreka auzoa

T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59

e.arrasate@euskalnet.net

FRIXI ERAIKUNTZAK

Eskoriatza

- Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
- Kontratak

- Enpresen mantentze-lanak

Intxartxueta 5

T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22

F: 943 71 55 15

DEKORAZIOA

J. ORTIZ

Bergara

- Mota guztietako pladur lanak
- Igeltsu-lanen dekorazioa
- Sabai eta apaletan espezialistak
- Isolamendu akustikoa
- Gremioen koordinazioa

Alkabieta kalea z/g.

T: 943 76 03 51 / 663 90 93 18

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

Arrasate

Gipuzkoa etorbidea 39, behe

T: 943 77 01 85

IMANOL ITURGINTZA

Arrasate

- Iturgintza
- Berogailua eta gasa
- Bainugelak

Kale Txiki 9 behe

Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

OYANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

T: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

T: 943 77 19 88

F: 943 79 59 97

VALES ITURGINTZA

Aretxabaleta

- Hargintza lanak
- Bainugelako altzariak
- Berogailuak
- Erretenak ipini eta garbitzea

Santa Kurtz 7, 3. ezk.

Tel.: 620 17 80 46

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK

Arrasate

- PVC leihoak
 - Aluminio termikoko leihoak
 - Poliuretanozko leihoak
- Zigarrola 1- 8 pab.
Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18
F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

ION LEIHOAK

Arrasate

- Metal arotzgia, PVC eta arotzgia
- Debagoiena Industrialdea 11. pabilioia
T: 943 79 11 35

F: 943 77 31 20

YOSU THERMIK

Arrasate

- Lehiu eta ate isolatzaileak
 - PVC leihoak
 - Aluminio termikoko leihoak
 - Arotzgi mistoa (aluminio-egurra)
- Kataide poligonoa 4 Pab.
Tel: 943 77 01 57

F: 943 77 03 21

LOREZAJINTZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

Aretxabaleta

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
 - Ureztatzeko sistemak
 - Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
- Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
F: 943 79 78 45

MARGOAK

APAIN MARGO ETA APAINKETA

Arrasate

- Pintura orokorrean
- Pareztatzeak
- Errotulazioa

Maitena 3-1.

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Herriak

Arrasate > 12-15 Bergara > 16-19 Oñati > 20-21 Aretxabaleta > 22-23
Eskoriatza > 24 Antzuola > 25 Aramaio > 26 Elgeta > 27 Gatzaga > 27



> **ARRASATE**
Joko eta jolas
tradizionalak
landuko ditu bihar
Txatxilipurdik > 13



> **BERGARA**
Antonio Irazola
zinegotzi
izandakoak botako
du txupinazoa > 17



> **ESKORIATZA**
Ehun lagun espero
dituzte etzi egingo
duten elizateen V.
martxan > 24



> **OÑATI**
Agirrerren omenez,
Aloña eta Real
aurrez aurre
izango dira > 20



Oxel Erostarbe, Elgetako alkatea, eta Edurne Alberdi, Turismo zinegotzia, Intxortako frontearen maketa ondoan, Espaloian.

LEIRE KORTABARRIA

ELGETA > MEMORIA HISTORIKOA

Etzi inauguratuko dute Intxortako ibilbidea eta Espaloiko harreragunea

ZABALIK

Domeka eguerdian inauguratuko dute, eta bidea zabalik geratuko da bisitariendako

ERAKUSKETA

Antzokian erakusketa ipini dute, eta 12.000 biktimaren izenak eta 800en argazkiak ere

LEIRE KORTABARRIA > ELGETA

Hasi eta urte bete pasatxora, azkenean gertu dago Debagoienean memoria historikoa berreskuratzeke egin den proiektu handietariko bat: Intxortaren magalean gertatu duten ibilbide tematikoa, Espaloia antzokiko harreragunearekin batera. Egunotan, azken ukituak ematen egon dira langileak, eta etzi, domeka, inauguratuko dute dena. Ekitaldia Espaloian hasiko da, 12:00etan; handik autobusez Asentziara joango dira, eta ibilbidea egiteko aukera izango da. Handik aurrera, zabalik geratuko da bidea.

Oxel Erostarbe alkateak honakoa dio: "Ekimen honetan lagundu duten guztiak gogoratuko ditugu: herritarrak, askok parte hartu dutelako lubakiak berreskuratzen eta materiala ekartzen; eta erakundeak, 450.000

euro kostatu delako proiektua, eta Jaurlearitzaren, Diputazioaren... laguntzarik gabe ezin izango genukeelako proiektua aurrera eraman".

ERAKUTSI BEHARRA

Edurne Alberdi Turismo zinegotziak honakoa dio: "Elgetarrek eta debagoiendarrek badakite Elgetan zelako une latzak pasa

ziren gerra garaian eta ostean, eta derrigorrezkoa zen erakustea jendeari hemen, Alemanian, Polonian, Vietnamen... bezala, sarraskiak egin zirela zirela".

Gerrako atxiloketa batzuk antzeztu zituzten Arrasaten

Arrasate gerra garaia itzuli zen joan den domekan, filmaketa baterako izan bazen ere. Intxorta 1937 Kultura Elkartek *Gerra zibila Aretxabaletan* proiektua lantzen dihardu, eta izenburu hori duen dokumentala grabatu zuen Artemanek, arrasatearrak aktore zirela. Arrasateko Herriko Plazan eta Bidasoro baserrian ibili ziren. Zinemagileen gisa, gerra garaiko jantziak ekarri zituzten Madrildik, eta sasoiko auto bat eta kamioi bat erabili zituzten Arrasaten gertatutako atxiloketa batzuk birsortzeko. Jende mordo bat zen Herriko Plazan grabazioa ikustera. Aretxabaletako lekukotasun batzuk ere batzen ditu dokumentalak.



Filmaketaren une bat.

ARTEMAN

ZERBITZUAK > OSPITALEKO APARKALEKUEN AUZIA

EAJk Udalaren "borondate politiko falta" salatu du

Aparkaleku faltari "premiatzeko erantzuna" emateko eskatu diote jeltzaleek Udalari

Ino Galparsorok dio Udala arazoari irtenbide bat eman guran lanean dabilela

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

EAJk uste du Udalak "borondate politiko falta" duela. Debagoieneko ospitaleko aparkaleku gabeziak sortzen dituen arazoak konpontzeko. Udalaren jarrera gaitzetsi eta Osakidetzarekin "elkartasun falta" egotzi diote jeltzaleek: "Beste edozein udalek aparkalekua eraikiko luke, ospitalea herrian egotearen truke". Horrez gain, EAJk salatu du 2007tik Udalak ez duela aurrekontuetan jaso behin-behineko aparkalekuak egitea, ospitalearen handitze-obra amaitu arte.



EAJk behin-behineko aparkalekua ez egitea kritikatu du; Udalak dio, bestalde, arazoaren konponbiderako lanean dabilela. J.B.

"KONPONBIDERAKO LANEAN"

Ino Galparsoro alkateak, bestalde, Udala arazoaren "konponbiderako lanean" dabilela dio: "Arazoari irtenbidea bilatu behar zaio eta horretan ari gara modu bate-

an edo bestean; harremanetan ari gara Osakidetzarekin". Lan hori amaitu arte bestelako adierazpenik egingo ez duela esan du Galparsorok. Hortik aurrerakoak "giroa gaiztotzen" duela uste du,

eta azkenik, honakoa gogorarazi die jeltzaleei: "Halako gaiak lantzeko gobernu batzarrak ditugu; guk konpromisoa daukagu euren ideiak entzuteko, beste edozein alderdirekin moduan".

ONGIZATEA > ERRETIRATUEN ETXEA

Egoitzen barruan erretzen dutenen aurka egingo dute

Hiru abisu emango dituzte; azkenaren ostean, erre duena kaleratu egin dezakete

J.B. > ARRASATE

Arrasateko erretiratu etxeetako zenbait erabiltzailek ez dute erretzeko debekua errespetatzen, eta batzordeek eta tabernariak ez daki nola jokatu halako kasuetan. Hala, Udalarekin batzarra egin eta

erabaki dute prozedura berria ezartzea. Hiru abisu bidezko prozedura izango da: lehenean abisua ematea, bigarrenetan tabernariak ez dio zerbitzatuko eta hirugarrenean, Udala sartuko da tartean; erretzailea kaleratu ahaliko du.

"BEHARREZKOA DA NEURRIA"

Jose Riviere Abaroa erretiratuen elkarteak presidenteak begi onez ikusten du neurria: "Erretiratuek nahiko arazo dituzte osasun aldetik eta ezin dena onartu da halako inongo etxetan erretzea".

OSPAKIZUNAK > AL-ANDALUS

Ekitaldi sorta interesgarria 21. Kultura Astea agurtzeko

'Playback' lehiaketa, afari berezia eta zuzeneko musika emanaldi tipikoa falta dira oraindik

J.B. > ARRASATE

Musakolako jaietan *Urrezko Astakiloa* jasotzea pozgarria izan zen Al-Andalus elkartearendako. Rafael Gomez presidenteak honakoa adierazi du: "Ez genuen saria espero, baina bide onetik goazela ziurtatzeko balio izan digu". Gomezek dioenez, "Andaluziaren enbaxadoreak" dira hemen, baina baita Euskal Herri-

ko enbaxadoreak Andaluzian. Finean, Arrasaten integratzeko ahalegin berezia egin dute.

Orain arteko ekitaldiak arrakastatsuak izan dira. Baina oraindik badago zer egin: gaur bazkideek osatutako taldeen arteko *playback* lehiaketa, zapatuan afaria eta domekan Alegria de la Sierra eta Sueños de Andalucía taldeen kontzertua.

bere ustez



Oihan Zubizarreta

Garesti daude kontuak gure herrian

Zail daude kontuak gure herrian. Niri bederen, kontuak ez zaizkit ateratzen ongi. Garesti daude ekonomiaren kontuak, krisiak krisi. Langileen poltsikoetatik ordaintzen dira kolkoa diruz lepo duten horien proiektu erraldoiak eta haien kontu garestiak, inoren kontura kobratuz eta guztionak behar luketen kontu publikoak murriztuz.

Are garestiago daude politikaren kontuak eta urrats berriak egitea gero eta garestiago ordainarazi

"Ezer ez duenari garesti kobratu nahi zaio, odolustu, etenik gabe, isilago, sotilago, krudelki"

nahi da gainera. Ez dakit hipokresia hutsa den, historiarekiko ezjakintasun totala edota gorroto hutsa. Ezer zor ez duenari garesti kobratu nahi zaio, odolustu, etenik gabe, isilago, sotilago, krudelki.

Gure herrian, torturatua izan dena borrarero bihurtzen dute torturatzaileak salatzen baditu, egunkari bat argitaratzen duen editorea edota udalgintza ehuntzen duen hautetsia terrorista bihurtzen duten bezalaxe, berak ezer jakin gabe, inoiz ikusi duen arma bakarra polizia-ri gerretik dariona bada ere.

Euskaldunen kontu erok garestitxoak dira inondik inora, baina niri inork kantatu zidan, *euskaldun izatia zein nekeza dan...*

> ARIZMENDI

Erizaintza laguntzaileen egungo erronken gainerako jardunaldiak

Erizaintza laguntzaileak gaur izenburuarekin jardunaldia egingo dute Arizmendi ikastolak eta Mondragon Healthek. Datorren maiatzaren 26an izango dira, Feri-xalekuan. Lau hitzaldi egingo dituzte, eta erizaintza laguntzaileek egun dituzten erronkak emango dituzte aditzera. Izenematea bihar amaitzen da, hilak 22.

> LAPURRETAK

Autoetako aparailu elektrikoak lapurtu dituzte berriz ere

Eguazten goizaldean gutxienez lau autotan sartu ziren lapurrak, kaltetueta bategi jakinarazi duenez. Irratikaseteak eraman zituzten, autoetako kristalak apurtuta. Oraingoan, herriko auzo periferikoetan izan dira lapurretak; besteak beste, Altamira eta Makatzena auzoetan. Kaltetuek salaketa jarri dute Udaltzaingoan.

MIGUEL ANGEL LARRAÑAGA

DEKORAZIOAK

Lurzoruetan espezializatua

- Kortxo.
- Moketa.
- Sintasol.
- Saipolan, etab...


Pinturak orokorrean.

Tel.: 943 79 62 85
629 91 80 15

Sailuente plaza, 1-B

ARRASATE

PUB HAIZEA





Txatxilipurdik hainbat ekimen antolatu ditu guraso eta haurren arteko jolaskidetza bultzatzeko. Irudian, Gurasolandia.

AISIALDIA > HAURRAK

PlayStationa baino lehen, betiko jolasak gurasoekin ezagutzeko

Txatxilipurdik familia bidezko hizkuntza transmisioa lantzeko ekimena antolatu du biharko

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE
PlayStationa baino lehen ziba, kromo, txapa edo txingor jolasa ezagutzea. Eta, noski, hori guztia euskara ahoan dutela egitea. Hori da, labur esanda, Txatxilipurdik biharko antolatu duen ekimenaren helburua. Euskara

elkartearak familia bidezko hizkuntza transmisioa landu gura du. Aurretik ere egin izan dituzte halako ekimenak: Gurasolandia gurasoendako jolasparkea da horren adibide garbia.

Bada, galbidean dauden aspaldiko jolasak errekupeatzeko aha-

legina egingo du Txatxilipurdik bihar. Ziba, txapa, kanika, kromo eta txingor jolasak egingo dituzte, gurasoak ere jolaskide direla. Santa Marinako ludotekan izango da, 11:30etik 13:30era.

GAZTE TXOKOAK ERE, JO ETA KE
Gazte txokoek, bestalde, futbito maratonia egingo dute bihar arratsaldean Zaldibarren, *Erdigunea piztu* ekimenaren barruan.

JENDARTEA > DESAGERPENA

Tolosan (Frantzia) agertu da Alfredo Villar arrasatearra

J.B. > ARRASATE

San Juan de Dios ospitaleko Alfredo Villar gaixo arrasatearra aurkitu egin dute. Senitatekoen bozeramaile Andoni de Bedialaunetak jakinarazi duenez, astelehenean jakin zuten Frantziako Tolosa hirian dagoela, ospitale psikiatriko baten.

EGOERA KEZKAGARRIA

Medikazioa hartu barik dago eta familia kezkatuta dago haren egoerarekin Beraz, lehentasuna da San Juan de Dios ospitaleko medikuek medikamentua zein den zehaztea Frantziakoei. Behin medikazioa hartuta Arrasatera ekarri gura du familiak.



ARRASATE MUSIKAL

Haizezko eta harizkoen txanda da

Arrasate Musikalek hainbat kontzertu emango ditu herrian datozen egunotan. Haizezko eta sokazko instrumentuak jotzen dituztenen txanda izango da: gaur, biolin ikasleek joko dute parrokan (19:00); hilaren 25ean tronpa eta tronpeta ikasleek Kulturaten (18:30); eta azkenik, maiatzaren 27an leku eta ordu berean gitarra ikasleek. Bestalde, matrikulazio epea zabalik dago, ekainaren 18ra arte. Izena emateko: egoitzara jo astelehenetik eguenera, 17:00etatik 20:00etara.



Matrikulazio epea zabalik:
Ekainaren 17ra arte.

Berritasuna:
Dantza garaikidea

4 urtetik aurrera
Helduentzako eskolak
Balleta

Tel.: 943 77 05 40





Mondrako eta Arizmendiko neskak, azken derbian. "Partidu batzuk gol asko eginda irabazi ditugu, baina ez da erraza izan, lana dago atzean".

GOIENKARIA

Iaz moduan,
Bergarako Ipintza
zelaian jokatu
dute kopako finala,
bihar, Mondrak eta
Eibarrek

FUTBOLA > KOPA TXAPELKETA

Mondrako neskek kopako finala dute bihar

XABIER URTZELAI > ARRASATE
Kategoriaz igotzeko hiruko torneoa jokatu dute EAEko talde onenek. Eta biharko (18:30, Ipintza) kopako finalean jakingo dugu nor den Gipuzkoako onena. Eibarko emakumezkoen taldeari, antza, ez zaio Ipintza futbol zelaia gustatzen; Eibarrek finala beste zelai batean jokatzeko eskaera egin dio

federazioari, eta belar naturalezko zelaian jokatzeko eskaera egin dute: "Baina horrek ez du zentzurik, urte osoan ez dugu eta horrelako zelaietan jokatu". Mondrako entrenatzaile Txiskok ez dio garrantzirik ematen kontu horri; gainera, Ipintzak *feeling* ona ematen dio: iaz ere han irabazi zuten kopako finala.

EIBARREN KONTRA, 18:30EAN
Mondrak Eibar izango du aurrean: "Nazional mailatik jaitsitako taldea da Eibar, eta bertako jokalariek batzuek superligan ere jokatzen dute, nahiz eta fitxa beheko taldean duten. Finalak beti dira irabazteko zailak, baina jokatu egin behar dira, eta gu gogotsu gaudela finalari begira".

Arrasatekoek garbi dute helburua: "Nazional mailara igotzea da gure asmoa, nahiz eta atezain finkorik gabe ibili garen. Iaz ere asmo hori genuen esku artean, eta, kopa irabazi bagenuen ere, hiruko torneoan bigarren geratu ginen. Arantza hori dugu barruan, baina, lehenengo, zapatuko finala jokatu behar dugu".

zaldibar

EMAITZAK

AT Celaya-Dublin	3-5
Abokajarro-McAwenDauen	3-2
Dribling-Betrayer	5-2
Iriztu-Lasagabaster	2-6

PARTIDUAK

Maiatzak 22, zapatua	Epaileak
11:30 Iriztu-Dribling	Antolatzaia.
12:30 Abokajarro-Dublin	Antolatzaia.

Maiatzak 23, domeka	Epaileak
11:30 Betrayer-Lasagabaster	Antolatzaia.
12:30 AT celaya-McAwenDauen	Antolatzaia.

SAILKAPENA (A TALDEA)

	P	J
1. Abokajarro	6	2
2. McAwen Dauen	3	2
3. Dublin	3	2
4. AT Celaya.....	0	2

SAILKAPENA (B TALDEA)

	P	J
1. Dribling	6	2
2. Lasagabaster.....	3	2
3. Betrayer.....	3	2
4. Iriztu	0	2

Abokajarro eta Driblin, indartsu

Bi talde horiek indartsu hasi dute fase berria, jokatu dute bi partidua irabazita. Ikusi egin behar Dublinen eta Abokajarron arteko partiduan Abokak bolada on horri eusten dion. Driblingek, berriz, oraindik punturik batu ez duen Iriztu izango du zapatu goizean aurrean.

ARTko alebinak nagusi Kontxako txapelketan

Arrasateko errugbi jokalariek Eibarkoekin batera osatu zuten taldea, joan den astean, Kontxako errugbi txapelketan. Hiru partidua irabazita nagusitu ziren txapelketan: lehenengo biak Atletico San Sebastian eta Hernaniren kontra eta finala Zarautzen kontra.



ARRASATE ERRUGBI TALDEA

> FUTBOLA

Domekan Gorbeia, eta ekaina ere hitzorduz beteta

Besaide mendi elkarteak domekan egingo du maiatzeko lehenengo irteera; Gorbeia joango dira, egun osorako.

Ekainean izango dituzte, baina, hainbat hitzordu potolo: batetik, ekainaren 5ean egingo dute urteroko beterranoen martxa, Debara eta Zumaiara. Eta, ekainerako antolatu dute, baita ere, mendi meteorologia ikastaroa.

> FUTBOLA

Arizmendikoak Bordeleko futbol txapelketan izango dira

Hamargarren urtez Arizmendiko futbol talde batek Bordeleko nazioarteko futbol txapelketan hartuko du esku asteburuan. Alebin eta infantil mailako 13 gaztetxok osatuko dute taldea. Hala, hiru egun iraungo duen torneoan kontrario izango dituzte Bartzelona, Gironde de Bourdeaux edota Bayer Leverkusen moduko taldeak izango dituzte aurrean.

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonei laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

arbolapeta

arrasate

beinko

DRAME & IGARLEA - MEDIUMA



Edozein arazo konpontzen dut, nahiz eta zaila izan: maitasuna, lana, arazo familiarra...



672 55 14 44
945 10 94 03

UGARAN

Jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Mari Asun Pagoaga > Aktorea

"Emakume asko identifikatuta sentituko dira filma ikusita"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

Adineko bi emakumeren arteko harremana azaltzen duen *80 egunean* filmeko protagonistetako bat da Mari Asun Pagoaga. Goiena Telebistako platoan egon zen eta Arri-txu Barruso kazetariak elkarrizketatu zuen.

Doke antzerki taldetik pantaila handira egin duzu jauzi. Nola bukatu du Mari Asun Pagoagak zineman?

Orain dela urtebete, antzerkiko zuzendariak telefonoz deitu zidan. Txantxetan esan zidan Hollywoordera joateko aukera neukala... Erantzun nion presaka nenbilela eta bakean uzteko.

Pentsatu nuen antzerkiko konturen bat esan gura zidala, baina telefonoan Jose Mari Velez de Mendizabal jarri zen. Benetan zebiltzala esan zidaten: 60 urte inguruko emakumeak gura zituztela, euskaraz ondo zekitenak. Hala, deitu egin nuen.

Nolako probak izan ziren?

Testu bat bidali ziguten; han, argi ikusten zen zeri buruzko filma zen. Horrelako proba bat zer zen ikusteko asmoarekin joan ginen Arrasatetik.



Mari Asun Pagoaga. ARRI TXU BARRUSO

"Itziar Aizpuru eta biok oso ondo konpondu gara eta hark asko lagundu dit"

Bi emakumeren arteko erlazioa kontatzen du filmak.

Istorio oso polita da. Segurue-nez, emakume asko identifikatuta sentituko dira. Orain dela 50 urte zaila zen hainbat sentimen-

du azalaraztea. Baina Maitek, nire pertsonaiak, oso argi zeukan bera zer zen: lesbiana. Haren lagun Asunek, oster, bestelako bizimodu bat hartu zuen: base-rrira ezkondu zen.

Baina 50 urteren buruan bi lagunak elkartu egingo dira.

Bai; ospitale baten elkartuko dira. Bi emakumeak oso lagun egiten dira, baina Asunek borroka dauka bere buruarekin: alde batetik, gizona dauka etxean; eta, bestetik, orain arte galdu duenaz ohartzen da.

Hain zuzen, Itziar Aizpururen -Asun- eta bion arteko kimi-ka onagatik aukeratu zintuz-ten filma egiteko?

Entseguen hasi ginenetik oso ondo konpondu gara. Gainera, laguntza handia eman dit Itziarrek. Ni antzerkian ibilitakoa naiz, eta, gainera, denbora laburrean. Itziarrek, oster, ibil-bide luzea dauka.

Eta ez duzu beldurrik izan?

Baiezkoa eman nuenean beldurtu nintzen. "Non sartu naiz ni?", pentsatzen nuen. Baina esperientzia oso ona izan da.



Sun magoa eta laguntzailea.

GOIENKARIA

MAGIA > IKUSKIZUNA

Errealitateak eta fantasiak bat egingo dute Amaian

Bihar da, zapatua, eta 19:30ean hasiko da; sarrerak 10 eurotan daude salgai

Ikusle guztiei zuzendutako goi mailako magia ikuskizuna da *Sunkers*. Areto eta antzoki onenetan aurkeztu du Sun magoak *Sunkers*, eta arrakasta izugarria izan da.

SENTSUALITATEA


Errealitatea eta fantasia nahasten diren ikuskizunean denetik gerta daiteke.

Umorea, indarra, sentsualitatea eta exotismoa nahasten ditu magiaren profesional horrek ikuskizunean. Taula gainean, Sun magoaz gain, haren laguntzailea ere egongo da.

A.E. > ARRASATE

Bihar, magiaz beteko da Amaia antzokia. 19:30ean hasita, Sun mago arabarrak azken lana ekarriko du Amaia: *Sunkers*. Sarrera 10 euro kostako da; sarrerak dagoeneko salgai daude *generaltickets.com* atarian; eta bihar, leihatilan.

ARKAUZ
MUEBLES
ARETXABALETAKO



ETXE MOBEL
ALTZARIAK
ARRASATE

ARKAUZ
COCINA INTEGRAL
ARETXABALETAKO



ARKAUZ
ELECTRODOMESTICOS
ARETXABALETAKO

expert
banatzaile ofiziala

Arkauz zure etxea da.



GRUPO
ARKAUZ

ARETXABALETAKO • ARRASATE
1950•2010

60 urte

UDALA > AURREKONTUA

Udal aurrekontua %19,6 txikiagoa izango da aurten

24.647.930 euroko aurrekontu bateratua onartu dute 2010erako

Gobernu taldearen aldeko botoekin, EAren abstentzioarekin eta EAJren eta PSE-EEren kontrakoekin onartu da

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Udalbatzak 2010eko aurrekontuak onartu zituen asteleheneko osoko bilkuran. Onartutako udal aurrekontua 21.430.177 eurokoa izan da, aurreko urtean baino %19,6 txikiagoa, eta aurrera egin zuen Gobernu taldearen aldeko botoekin, EAren abstentzioarekin eta EAJren eta PSE-EEren kontrako botoekin.

Bestalde, Udalaren eta haren erakunde aurrekontu bateratua 24.647.930 euro da –Udal Euskaltgia, 491.843 euro; Mizpirualde egoitza, 3.769.676 euro; Bergarako Bihargintza, 358.200 euro.

INBERTSIOAK BEHERA NABARMEN

Udal aurrekontuaren jaitsierak eragin zuzena izan du Udalaren inbertsioetarako gaitasunean: 1.650.123 euro izango dituzte inbertsioetarako, iaz baino %72,3 gutxiago –iaz 5.960.470 euro izan zituen–. Aitor Goiti Ogasun zinegotziak honela azaldu du horren arrazoia: "Gastu arruntei dagokienez, ahalagin guztiak egin ditugu jaitseko, baina kasu batzuetan ez da posible izan, gure esku ez daudelako. Esaterako, uraren prezioa, zaborrena... beste batzuek markatzen dituzte horiek. Bestetik, sarre arruntak ere jaitsi egin dira; Foru fondoa jaitsi egin da eta tasen eta zergen sarrera bakarrik dago. Hala, sarrera eta gastu arruntak antzekoak izan dira. Hain justu, bien arteko aldea 1.650.123 euro dira eta horixe da inbertsioetarako geratu dena". Eta gehitu du:



Ibaiondoko urbanizazio lanek eroango dute inbertsioetako zatirik handiena.

MONIKA BELASTEGI

"Orain arte lursailen salmenta ere izan da Udalarendako diru iturri, baina egun ez dago eroslerik. Udalak badu terrenoa saltzeko, Algodonerakoa, esaterako, baina eroslerik ez".

Horrekin guztiarekin, dirua inbertituko dute dagoeneko egin dauden eta lehentasunezkoak diren proiektuetan –ikus taula.

PERTSONAL GASTUA

Pertsonal gastuak izandako igorakerak –%9,2– zeresan handia eragin du, eta EAJ eta PSE-EE horren kexu dira. Igoeraren arrazoia hau da, Goitiren esanetan: "Igoera horrek ez du esan nahi udal langileen soldata igo egin dugunik edo halakorik; arrazoia da bi zerbitzu gureganatu ditugula, ur zerbitzua eta kale garbiketarena, eta, ondorioz, langile gehiago dagoela Udalean. Horrez gain, udaltzain kopurua ere igo egin da".

Aitor Goiti zinegotziak gehitu duenez, zerbitzuok euren gain hartu dituzte "zerbitzu hobia eta merkeagoa" emateko asmoz. Goitiren esanetan, "askoz merkeagoa da langileon kargu egitea zerbitzuok azpikontratatzeari baino".

Inbertsio aipagarrienak

Ibaiondoko urb.	433.210
Saneamendu lanak	279.080
Musika Eskola, UNED eta beste konpontzea	247.086
San Antonio eta San Migeleko orubeak egokitzea	110.500
Kulturako proiektuak	110.000
Martokoko aparkalekuak	91.800
Herrigunearen zoladura	50.000
Zirkulazio ordenazioa	45.000

ITURRIA: UDALA

EAJ KONTRA

EAJren lehenengo kexua da "aurreko urteetan bezala, aurten ere aurrekontuak berandu aurkeztu" direla. Horrez gain, aurrekontuetan "aurreko urteetako ahuldade berak antzeman" dituzte, "baina aurten nabarmenago: batetik, sarrerak gutxitu egin direlako; eta bestetik, gastu arrunta igo egin delako eta horren ondorioz inbertsioetarako dirudik ez delako geratzen", German Muruamendiarrak zinegotziaren esanetan.

Pertsonal gastuen igoerarekin ere ez dago ados EAJ. Hala azaldu zuen bilkuran Muruamendiarrak: "Pertsonal gastuak gorako joera du. 2010eko aurreikuspenak betetzen badira, azkeneko hiru urteetan pertsonal gastua %32 igoko da, eta hori jasanezina da".

Ur zerbitzuaren eta kale garbiketaren harira ere egin zuen berra Muruamendiarrak: "Ur zerbitzua eta kale garbiketa Udalak bere gain hartzearen kontra gaude, baldin eta ez bada irizpide ekonomikoengatik edo zerbitzua hobetzeko. Kasu honetan, Udalak bi zerbitzuok bere gain hartzearen arrazoia politikoa dela uste dugu".

PSE-EE ERE KONTRA

PSE-EEK, berriz, uste du gastu arruntak –personalarenak, batik bat– txikitu egin beharko liritekeela, eta inbertsioak "barregarriak" direla. Bestalde, presoen familiei laguntza bideratzearekin –98.400 euro– eta Mendekoste jaietara bideratutakoarekin ere –140.000 euro– ez daude ados. Gainera, kexu dira barrakendako lurzorua doan utzi dutelako eta hortik ez delako diru sarrerarik egongo

PREBENTZIOA

Hamar tabernari prebentzio ikastaroan

Gaueko jai giroaren kalitatea hobetzeko jarraibideak jaso dituzte besteak beste

M.B. > BERGARA

Prebentziarako Udal zerbitzuak ostalaritzako langileei zein herriko jaietan parte hartzen duten txosna batzordeko kideei zuzendutako ikastaroan hamar lagunek hartu dute parte. Horietatik bederatzia, Jam aretoko langileak dira eta hamargarrena, herriko tabernaria.

Ikastaroak bi saio izan ditu: lehenengoan, aurreko martitzenean, gaueko jai giroaren kalitatea hobetzeko ingururumen jarraibideak eta drogen gaineko informazioa –eraginak, arriskuak...– landu zituzten; bigarrenan, oraingo martitzenean, berriz, alkohola eta gainerako drogak hartzearen ondorioz sor daitezkeen egoerei aurre egiteko lehen laguntzen gainean.

Udaleko Ongizate zerbitzutik aurreratu dutenez, parte-hartzaileek ikastaroaren balorazio positiboa egin dute.

> UDALA

Adin txikikoekin lan egiteko zerbitzua kontratatzeko deia

Udala kontratatzekoa da aurten ere adin txikikoen eta gazteen inguruan egon daitezkeen arrisku egoerei aurre hartzeko zerbitzua. Eskaintzak udaletxeko erregistro orokorrean aurkeztu behar dira maiatzaren 26ko 13:00ak baino lehen. Lizitazio oinarria dira urteko 53.450 euro, BEZa kanpo. Baldintzak eskura daitezke udaletxeko idazkaritzan eta www.bergara.net webgunean.

Ondo ibili
Pazkoetan!

KORTAZAR TABERNA

Astelehenetik igandera
EGUNERO ARRATSALDEZ ZABALIK
Zapatuetan egun osoan zabalik.

•PINTXOAK
•BOKATAK
•Eta orain
GOIZALDE HANBURGESA
Ostegunetan pintxo poteoa

Barrenkalea 16 BERGARA 943 76 20 62

JAIIAK > PAZKOAK

Jaiei hasiera Bitorianatxok eta Antonio Irazolak emango diete

Irazolak jaurtiko du txupinazoa eta gero jaitsiko da Bitorianatxo

MONIKA BELASTEGI > BERGARA
Guztia prest dago gaur, eguba-koitza, Pazkoei hasiera emate-ko. Gainera, berrikuntza garran-

tzitsu batekin hasiko dira jaiak aurtten. Hain justu ere, 20:00etan Bitorianatxo jaitsi eta jaien hasiera iragartzen duen txupi-

nazoa Antonio Irazola zinegotzi izandakoak jaurtiko du. Aurten arte alkateak jaurti izan du, baina, ohitura aldatu, eta urte-

ro herriko pertsona ezberdin batek botako du.

Irazolak 11 urte eman zituen zinegotzi, lehenengo Luis Laskurainen eta gero Jose Luis Elkororen gobernuetan. Hura izan zen, esaterako, udaletxeko balkoian ikurrina lehenengoz jarri zuena.

HERRI BAZKARIAN 750 LAGUN
Errekor guztiak gaindituko dituen ekitaldia herri bazkaria da. Hain justu, 750 txartel saldu dituztela aurreratu dute kultura etxetik. Hasiera baten 700 atera bazituzten ere, aurreko egubakoitzean beste 50 jarri zituzten salgai, zegoen eskariari erantzun ahal izateko. Herri bazkariaren kasuan, gogoratu behar da San Martin plazan izango dela, astelehenean, baina eguraldi txarrarekin Labegaraietako kiroldegian egingo dutela. Hori gertatuz gero, Udalak urbano zerbitzua jarriko du.

GOITIBEHERA LEHIAKETA
Aurtten egingo da lehenengo aldiz, eta sei goitibeherak hartuko dute parte lehiaketan. Horrez gain, lehiaketatik kanpo ere jardungo du beste batek erakustaldia egiten. Zapatuan izango da, 12:00etan, San Martzialgo bidean. Zapatuan egitekoak ziren beste ekitaldi bat rock maratokia zen, baina, azkenean, bertan behera geratu da ez duelako talde nahikok izena eman, Txosna batzordekoen esanetan. Bestalde, dei egin dute txosnagunean baso berrerabilgarriak erabiltzeko. Edalontzi bakoitzak 50 zentimo balioko du. Hala ere, diru hori berreskuratzeko aukera egongo da. Hain justu, egunero 12:00-21:00 ordutegian edalontzia itzuliz gero dirua bueltatuko dute. Bestalde, Bai Euskal Herriari taldeak jaiek iraun artean balkoian ikurrina jartzeko dei ere egin du.

EUSKARA Etorkinei euskara eskura jarriko diete

Auzoko izeneko programa berria jarriko du laster martxan Udalak

M.B. > BERGARA
Auzoko programa abiarazte-kotan da Udala. Programa hori Topaguneak eta UEMAK diseinatu dute eta gurean Jardun elkarteak dinamizatuko du. Programaren helburua da euskaren erabilera bultzatzea eta, bide batez, etorkinei eta euskaratik urrun bizi direnei euskara eskura jartzea. Euskara da gure herriko komunikazio hizkuntza nagusia, baina beste hizkuntza batzuk ere egiten dira. Auzoko egitasmoa, herriko hizkuntza aniztasun horretatik abiatuta, euskarazko urratsak egitean datza euskara ezezagun zaien lagunekin batera. Hala, Auzokon bi parte-hartzaile mota egongo dira: auzotarrak, hau da, euskaraz bizi diren herritarrak; eta auzokideak, hau da, euskaraz jakin ez ezta beste hizkuntza batzuk berba egiten dituzten herritarrak. Jardun dagoeneko hasi da taldeak osatzen. Hortaz, programan interesa duenak izena eman dezake Jardunen bulegoan (kultura etxea) edo 943 76 36 61 zenbakian.

Egitaraua

EGUBAKOITZA, 21

20:00 BITORIANATXOREN JAITSIERA, San Martin plazan. Segidan, UDAL MUSIKA BANDAREN KALEJIRA, hiriguneko kaleetan.
20:15 KATAIA taldearekin kalejira, San Martin plazatik txosnetara. Bideberrin XAXAU JAITSIERA eta TXOSNEN IREKITZEA eta iluntzean, Matxiategin BARRAKEN IREKITZEA.
22:30 DANTZALDIA TXIMELETA taldearekin, San Martin plazan. Ordu berean KONTZERTUA BIDEBERRIN: Giza-proiektua, Klabo Oxidado, Emon eta Xiero Xete taldeak.

ZAPATUA, 22

09:00 BIGANTXAK zezen-plazan, Igandea TXARANGAK alaituta.
10:00 30. haur eta gazteen PLASTIKA LEHIAKETA, Beart Bergarako arte elkarteak antolatuta, San Martin plazan.
10:00 Diana Oxirondotik Ekaitz Otxoa eta Aitor Astorkia Bergarako trikitilariekin. Labegaraietatik Udal Txistulari Bandarekin. Bolutik, Elgoibarko dultzaineroekin. Dianaren ondoren, herriko plazan elkartuko dira guztiak, eta Mizpirualdera joango dira.
11:00 Herriko elkarleen arteko BAKAILAO LEHIAKETA, San Martin plazan.
12:00 GOITIBEHERA lehiaketa, San Martzialgo bidean.
13:30 Haur eta gazteen plastika lehiaketako SARI BANAKETA, San Martin plazan.
13:45 Bakailao lehiaketako SARI EMATEA, San Martin plazan.

14:30 Kantu bazkaria, txosnetan.
17:30 ERREMONTEKO PILOTA PARTIDUAK, Udal Pilotalekuan.
18:15 Haurrentzako BONBA JAPONIARRAK, San Martin plazan.
18:30 Bergarako ERRALDOIEN KONPARTSAREN KALEJIRA, herriko kaleetan.
18:30 ERREKORTADORE TXAPELKETA, Seminarioko zezen-plazan.
20:00 ERROMERIA TRIKIDANTZ taldearekin, San Martin plazan.
22:30 KONTZERTUA TXOSNETAN: Governors, Los Zopilotes Txirriaos (lehenengo Impecables) eta talde sorpresa.
23:30 Afaldu eta gero berriz ERROMERIA TRIKIDANTZ taldearekin.

DOMEKA, 23

07:30 Herri gosaria txosnetan.
08:00 ALBORADA Udal Txistulari Bandarekin.
09:00 Bigantxak zezen-plazan.
09:30 75. Mendekoste saria TXIRRINDULARI LASTERKETA, Lehendakari txapelketarako puntuagarria.
10:00 BANAKAKO XAKE AZKARREKO TXAPELKETA Agorrosinen
10:00- 14:00: FUTBOLIN, PING-PONG, MINIGOLF, BILLAR eta SKALEXTRICEan jolasteko aukera, San Martin plazan.
11:00 Haurrendako JOLAS TRADIZIONALAK, Munibe plazan.
11:30-14:00 ZALDIEKIN LEHEN HARREMANAK, 5 eta 12 urte arteko umeendako, Seminarioko zezen-plazan.

12:30 UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA, Espoloian.
Egitaraua:
Campo de rosas (pasodoble). M. Gonzalez Bastida
La Belle Helene (Obertura). J. Offenbach
Ezpada dantza. M. Gonzalez Bastida
Jericho (Fantasia). B. Appermont.
Desafinado (Bossa nova). C. Jobim
Bergarako ereserkia. A. Gonzalez Chirlaque
Zuzendaria: Alfredo Gonzalez Chirlaque

16:00 Bergara Hiria, TALDEKAKO XAKE TXAPELKETA, Agorrosinen. Antolatzailea: Bergarako Xake KE.
17:00 ESKUZ BANAKAKO ligaxkako pilota partiduen final-laurdenak. Udal Pilotalekuan.
17:00 APAR FESTA, Munibe plazan.
17:30 33. EUSKADIKO DANTZA ASKATUKO TXAPELKETA, San Martin plazan, Abarka dantza elkarteak antolatuta.
17:30 BALSA JAITSIERA.
18:30 Euskal Herriko ERREKORTADOREEN ikuskizuna, Seminarioko zezen-plazan.
18:30 EUSKAL HERRIKO ERREKORTADOREEN IKUSKIZUNA, zezen-plazan.
19:30 BERTSO-KANTU-POTEOA, txosnetan.
20:00 BLUES GAUA txosnetan. OS GALLARDOS, BELCEBLUES eta ENRIQUE MINGO Y LOS EFIKAZES taldeekin.
21:30 KONTZERTUAK, txosnetan: Napoka Iria, Patinazo de Neurona, talde sorpresa.
22:30 DANTZALDIA LUHARTZ erromeria taldearekin, San Martin plazan.

ETXALAR

Ondo pasau jaixak!

UKONDOAK

KAZUELATXOAK

PAPATA BRABAK

Boni Laskurain 4

Bergara

Tel: 943 76 05 09

ARANE KRISTALDEGIA

Artekaleara, 18-behea.
BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903

TOKI-ONA

Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53

Mujika

gozotegia



Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekaleara 3 BERGARA
943 76 10 34

Altzari denda
Ikerleku zeharbidea
BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

- Proiektuak
- Koltxoak



- Horma-armairuak
- Altzariak neurrira



Aroztegia
San Juan 1a
BERGARA
Tel.: 943 76 54 91
Faxa: 943 76 08 04

- Ateak
- Eskailerak
- Leihoak
- Tarimak
- Egur lanak orokorrean



PILOTA > 15. BERGARA HIRIA TXAPELKETA

Bergara Hiria pilota txapelketako finalak Pazkoetako astelehenean

Nagusietan, Larrañaga eta Huntoria, Gorka eta Galarragaren aurka; GOITBk eskainiko ditu finalak, martitzenean

EDU MENDIBIL > BERGARA

Bergara Hiria pilota txapelketako finalak jokatu dira astelehenean Udal Pilotalekuan. Jaialdia 19:30ean hasiko da; lehen partiduan, 22 urtetik azpikoetan, Antsoategi-Lana eta Jauregi-Aizpuru bikoteak izango dira aurrez

aurre eta jarraian, nagusien mailan, Larrañagak eta Huntoria Gorka eta Galarragaren aurka neurtuko dituzte indarrak. Hain zuzen ere, martitzenean jokatutako finalerdietan Jauregik eta Aizpuru 22-19 irabazi zieten Mendinuetari eta Arriagari. Nagusien arteko finalerdia maila handikoa izan zen: Gorkak ondo baino hobeto bete zuen Ontsaloren tokia eta Galarragarekin batera finalerako txartela eskuratu zuen; 22-11 irabazi zieten Yoldiri eta Lintzoaini. 56 minutu iraun zuen partidua. Ohikoa denez, giro ederra izan



Finalak, astelehenean.

GOIENKARIA

zen Udal Pilotalekuan, eta asteleheneko finaletan ere zaleen babesa izango dute lau finalistek. Aurtengoa txapelketaren 15. ekitaldia da. Ohiko bilakatu denez, GOITBk finalak eskainiko ditu martitzenean, 22:15ean.

HERRI ARTEKOA, GAUR

Gaur, egubakoitza, herri arteko txapelketaren barruan, Bergarak Azpeitia hartuko du Udal Pilotalekuan, 19:30ean. Kadete mailan irabazi (20-22) baina gazte eta nagusien mailan galdu (22-11 eta 22-18) egin zuten bergararek joanekoan.

> KIROLA
Udako kirol eskaintzarako izenematea zabalik

Ekainaren 28an hasiko den udako kirol eskaintza bereziarako izenematea zabalik dago ekainaren 4ra bitartean. 3-18 urte bitartekoendako multijarduera, natura ekintzak, igeriketa, batuka, funka, irristaketa eta tenisa antolatu dituzte. Helduei dagokienez, ondoko eskaintza daukate udari begira: pilatesa, aerodancea, aquaerobika, dantza latindarra, funka, irristaketa, areto txirringa, 3. adinekoen mantenu gimnasia, igeriketa, gimnasia harmonikoa eta gimnasia abdominal hipopresiboa.

Plazak mugatuak dira. Argibide gehiago Agorrosin Ekintza Gunean, 943 77 70 95 telefono zenbakian jaso ditzaizkete interesatuek.

ESKUBALOIA > IGOERA FASEA

Bergarak Deustuan jokatuko du zapatu arratsaldean

E.M. > BERGARA

Euskadiko ligarako igoera fasearen barruan, Bergara KE senior mutilen eskubaloitza Deustuko Unibertsitatearen kontra jokatuko du bihar, zapatua, 18:00etan. Sei talde dira igoera fasean eta Bergara bigarren dago, Elgoibarrekin berdinduta, 9 punturekin. Egia dute aurretik, 10 punturekin.

Hain zuzen ere, Deustuko Unibertsitateak sorpresa eman zuen azken jardunaldian, Egiari Donostian irabazita. Bergara zein Deustuko Unibertsitatearentzat partidu erabakigarria da zapatuko. Irabaziz gero, Josetxo Muniategiren mutilek urrats garrantzitsua emango lukete. Igoera faseko lehen biak igoko dira Euskadiko Ligara. Hurrengo jardunaldian, maiatzaren 30ean, Corazonistas taldea hartuko du Bergarak etxean eta azken jardunaldian Elgoibarri egingo diote bisita. Muniategiren hitzetan, "zapatuko finala da talde biontzat eta Deusturi irabazita gure esku izango genuke igoera. Ez da erraza izango Bilbon irabaztea".

ERREMONTEA BIHAR

Bergarako I. Erremonte Txapelketako partidua izango dira bihar, zapatua, Udal Pilotalekuan, 17:30ean: Etxeberria IV.ak eta Urrutiak Juaristiren eta Etxeberria III.aren aurka jokatuko dute lehenbizi eta ondoren Urtasun-Lizaso eta Uterga-Badiola izango dira aurrez aurre. Final laurdeneko beste bi partidua hurrengo zapatuan, ordu berean, izango dira.

Beti Bustikoak Galizian

Beti Bustiko piraguitak Padronen lehiatu ziren asteburuan (Coruña), Espainiako Kopako azken proban. Iñaki Usabiaga zazpigarrena izan zen junior mailan; kadete mailan, Beñat Lizarralde ere zazpigarren postua eskuratu zuen, bigarrenarengandik oso gertu, baina; eta Patxi Ugalde hamargarrena izan zen. Hain zuzen ere, piragua iraili ondoren, lehen postuetan sailkatzeko aukera galdu zuen Ugalde gazteak.



BETI BUSTI



ANDUZU
GARRAIOAK

Grua zerbitzua

Zerbitzu publikoa | Era guztietako kargak

BERGARA
607 34 90 43

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

TXARRAN TXA
jaTeTxea

**EGUNEROKO
MENUA
eta KARTA**

*Ondo pasau
Jaixak!!*

Zubiaurre 33 • Bergara
943 76 50 99

BERGARA
Margoak



Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31 Faxe: 943 76 97 32. bergara@bergaramargoak.com

JOXAN
ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

MUSIKA > KONTZERTUAK

Estilo askotako emanaldi ugari, kalitate onaren bermearekin

Txosnagunean eta gaztetxean zuzeneko musikak protagonismo berezia izango du aurten

JOKIN BEREZIARTUA > BERGARA

Mendekoste jaietan ohikoa den musika eskaintza are zabalagoa izango da aurten. Gaztetxean, eta Txosnagunean bereziki, askotarikoino doinuak izango dira protagonista. Estilo asko, beraz. Baina baita kontzertu ugari ere: egubakoitzetik astelehenera bitartean 17 taldek joko dute Bergarako erdigunean; 13 taldek txosnagunean; eta beste lauk gaztetxean. Txalotzekoa da Txosna batzordeak presatatu duen egitaraua.

EMON, LABETIK IRTEN BERRI

Txosna batzordeak egunero talde bat herrikoa izatea erabaki du; gaur Emon izango da etxekoa. Zortzi kidek osatzen dute taldea, eta, Aritz Alustitza trikiti-jotzaileak adierazi duenez, Bergara da euren "topaleku zentrala". Tolosako Bonberenean aurkeztu ondoren, Bergarako jaietara datoz *Piztu herria* euren lehen diskoarekin. Ska eta reggaea dute oinarri, eta, hortik aurrera, hamaika musika molde jorratzen dituzte. Alusti-



Jaietan izango den musika uholdearen lekukotza, ezkerretik eskuinera: (goian) Emon, Des-kontrol eta Governors.

GOIENKARIA



tzak argi utzi gura izan du euren musikak "festa eta geldi ez egoitea" duela helburu. Bestalde, Bergaratik kanpoko taldeen artean Arrasateko Governorsen ema-

naldia nabarmendu behar da. Juan Sangreren gidaritzapean, *Frenetikodrome* disko berriko erritmo azkarrak, hitz itsasorrak eta Sangreren ahots zain-

duak ikuskizuna bermatuko dute; bihar, 22:30ean. Eta astelehenean bost taldek joko dute txosnagunean: datorren urtera arte agurtzeko modurik onena.

LEHIAKETAK > ARGAZKILARITZA


Bergara Hiria argazki lehiaketak arrakasta borobila izan du: parte-hartzeak eta lanen kalitateak gora egin du nabarmen

Koloretan egindako argazkien artean Felix Idigoras bergararrak eroan du lehen saria

J.B. > BERGARA

Pol-Pol argazki taldeak antolatzen duen Bergara Hiria argazki lehiaketa osasuntsu dago, 26. edizioa bizi du aurten, eta Euskal Herri osoko argazkilari eta argazkilaritzaileen artean errotuta dagoen lehiaketa da.

Iaz baino 70 lan gehiago jaso dituzte, eta parte-hartzeak gora egin du nabarmen: 275 argazki jaso dira, zuri-beltzeko modalitaterako 121 eta koloretakoan 154. Hala, koloretako modalitaterako 49 partaidek eman dute

Koloretan, Felix Idigoras bergararraren *La calle* izan da irabazlea.

FELIX IDIGORAS

izena; horietatik 15 bergararrak dira. Bestalde, zuri-beltzean argazkilari gutxiago aurkeztu dira: 36 lan; eta horietatik 11 Ber-

garakoak dira. Epaimahaiak hiru lan aukeratu ditu eta laugarren saria herritarrek eman dute. Epaimahaia honako hiru

argazkilariek osatu dute: Eloorrioko argazkizale elkarteko Luis Madinak, Eibarko Club Deportivo argazkilari elkarteko Juan Antonio Palaciosek eta Ortzadar argazkilari elkarteko Julio Albarranek. Zuri-beltzean, Irungo Andres Indurainen *Parada y silencio* lana izan da irabazlea eta koloretan, berriz, Felix Idigoras bergararrak irabazi du, *La Calle* obrarekin.

40 ONENEKIN ERAKUSKETA

Epaimahaiak aukeratutako 40 argazkirekin erakusketa zabalduko dute Aroztegin; gaurtik hilaren 29ra arte. Beraz, aurten -normalean jaien ostean ematen dira ezagutzera irabazleak- Mendekoste jaietan izango da aukera goi mailako argazkiekin gozatzeko.

ANTZERKIA

Gogoetarako antzezlanak, etxekoen eskutik

J.B. > BERGARA

Bergarako Enramonad@s antzerki taldeak *Somos Iguales, somos diferentes* antzezlanak ekarriko du Zabalotegiko agertokira maiatzaren 28an. Antzezlanak duela urte bi estreinatu zuten gaztetxean.


Bergaran bizi den Blanca Carrasco antzezle madrildarrek sortutako antzerki taldeak sexuen arteko borroka eszenaratuko du, hiru emakume eta hiru gizonezkoren eskutik. Umorea izango da protagonista; gogoeta eragin eta bere buruaz barre egitea eragingo diote ikusleari.

Zumelaga
JATETXEA

JAIETAN EGUNERO ZABALIK
Zuen zerbitzura izango gaituzue!

Ondo pasau jaixetan!

San Antonio 5 • BERGARA. • 943 76 20 21



KIROLA > OMENALDIA

Aloñako eta Realeko beteranoen norgehiagoka Agirreren omenez

Futbol sailak
antolatutako lehia
ekainaren 12an
jokatuko dute

Fernando Azpiazuk eta
Jabi Agirrek Aloñan
ibilitalako 22 jokalaria
aukeratu dituzte

MIREIA BIKUÑA > OÑATI
Aloña Mendi elkarteko futbol
sailak partidu berezia antolatu
du ekainaren 12rako; hain zuzen
ere, iazko ekainean hil zen Jose
Luis Agirreren omenezko nor-
gehiagoka. Egun berezia izateko,
jokalaria bereziak gonbidatu dituz-
te: Aloña Mendiko eta Realeko
jokalaria beterranoak.
Azkogainen jokatuko dute
partidua, esan bezala, ekainaren
12an, 17:00etan.
Unerik hunkigarriena parti-
dua hasi aurretik biziko dute.
Jose Luis Agirreren alargunari
eta semeei oparia eta lore-sorta
emango diete futbolaren alde
egindako lana eskertuz.

Ondoren jokatuko dute par-
tidua: 35 minutuko bi zati joka-
tuko dituzte. Bien artean 15 minu-
tuko atseden hartuko dute.

ENTRENAMENDUAK EGITEN
Aloñako beterranoen arduradu-
nak Fernando Azpiazu eta Jabi
Agirre dira, eta 22 jokalaria auke-
ratu dituzte (ikus ondoko taula).
Horietako jokalaria batzuek Alo-
ña hirugarren mailara igo zuten,
eta beste askok, Erregional Pre-
ferentean eta beste maila batzue-
tan jokatuko dute.

Guztiek itxura ona eman gura
dute ekainaren 12an, eta dagoe-
neko hasi dira entrenamenduak
egiten: astelehenetan elkartzen

dira Azkoagainen 19:00etatik
20:00etara. "Omenezko partidua
jokatu dugun gehienok beterran-
uen txapelketan dihardugu, eta
fisikoki nahiko ondo gaude. Dena
den, entrenamenduak egiten hasi
gara, Realeko jokalaria gorpuz-
tez ondo daude-eta", esan digu
omenaldian parte hartuko duen
Imanol Oleagak.

"MEREZITAKO OMENALDIA"
Gainera, Agirreren omenezko
partidua jokatzeke deia jaso zue-
nean asko poztu zela esan digu:
"Gustura hartu nuen gonbidape-
na. Alde batetik, futboleko joka-
tzea atsegin dudalako; eta beste
alde batetik, taldekide izandako-
ekin elkartzeke aukera nuelako.
Baina, bereziki, Jose Luisen ome-
nezko partidu zelako. Jose Luis
aita bat izan da guztiondako, eta
norbaitek omenaldia merezi
badu, duda barik, bera da".

Aloñako jokalaria

- > Asier Guridi
- > Aitor Zubia
- > Jon Pildain
- > Josu Goitia
- > Arkaitz Sasiain
- > Oier Palacin
- > Roberto Ferreiro
- > Joseba Agirre
- > Asier Biain
- > Bittor Uriarte
- > Nazario Gordoa
- > Maximo Gartzia
- > Carlos Gonzalez
- > Iñaki Guridi
- > Jokin Garai
- > Ernesto Elortza
- > Imanol Oleaga
- > Xabi Camino
- > Roman Agirre
- > Ernesto Agirre
- > Joseba Albizu
- > Jabi Mateos

REALEKO JOKALARIAK
Realako jokalariei dagokionez,
oraindik ez dute zehaztu nortzuk
etorriko diren. "Realeko beterran-
oak Indoor txapelketan dihar-
dute buru-belarri, eta azken aste-
ra arte ez dugu ezagutuko Oña-
tira etorriko diren jokalarien

izenak", esan digu futbol saileko
presidente Jabi Azpiazuk. Dena
den, Indoor txapelketan jokatzen
dutenetako batzuk dira Bittor
Alkiza, Imanol Idiakez, Meho
Kodro eta Tayfun Korkut.

Aloñako ziklistak Gipuzkoako txapelkun

Aloñako txirrindulariek emaitza
bikainak lortu zituzten Urretxun
jokatutako Gipuzkoako txapelke-
tan. Irati Barrenak eta Xabier
Murgiondok txapelak jantzi
zituzten alebin mailan. Gainera,
Aloña Mendiko beste hiru ziklista
podiumera igo ziren; hain zuzen
ere, Eneritz Lizarralde, Ekaitz
Txintxurreta eta Iker Alberdi
hirugarren tokian sailkatu ziren,
lehenengo biak alebin mailan eta
hirugarrena, infantiletan.
Txirrindulari sailekoak oso
pozik itzuli zire dominekin.



ALOÑA MENDI TXIRRINDULARI SAILA

KIROLA > ARKU-TIROKETA

Euskal Herriko Basoko arku- tiroketa txapelketa domekan

Bosgarren jardunaldia eta azkena jokatuko dute

M.B. > OÑATI
Txantxiku Arkulariak taldeak
antolatuta, Euskal Herriko Baso-
ko arku-tiroketa txapelketaren
bosgarren jardunaldia jokatuko
dute etzi. Hain zuzen ere, Aran-
tazu auzoan dagoen zozo-pase
gune inguruan egingo dute, Bello-
tza baserritik gertu.

Euskal Herriko 70 arkularik
parte hartuko dute. Txapelketa
09:30ean hasiko dute eta eguer-
dira arte egongo dira.

HAINBAT DEBAGOIENDAR
Euskal Herriko txapelketako
azken jardunaldia izanik, etzi
erabakiko da zeintzuk diren mai-

la bakoitzeko irabazleak. Koldo
Elortza oñatiarrak, Jose Luis
Fernandez de Arroiabe eskoria-
tzarrak, eta Antonio Vidriales
aretxabaletarrak aukera asko
dituzte euren ligak irabazteko.
Bestalde, liga irabazteko
aukerarik ez duten, baina txapel-
keta ona egiteko asmoa duten be-
ste hainbat debagoiendar ibiliko
dira; hain zuzen ere, Rafa Ugar-
te, Iñaki Odriozola, Santi Ugar-
te, Mikel Guisado eta Gorka Biku-
ña oñatiarrak; Irune Lacalle are-
txabaletarra; eta Angiozarko
Oihana Marzan.
Antolatzaileek txapelketa
ikustera joateko dei egin dute.

HEZKUNTZA > DEIALDIA

Udako Unibertsitaterako dirulaguntzak eska daitezke

M.B. > OÑATI
Oñatiko Udalak dirulaguntza
emango die uztaileko Udako
Unibertsitatearen parte hartu
gura duten herritarrei. Lagun-
tza jaso gura dutenek bete beha-
rreko baldintzak dira ikaslea
edo langabea izatea, Oñatin
errolatua egotea eta ikasta-
roa ordaindu izanaren agiria
aurkeztea.

ESKERAK, UDAL ERREGISTROAN
Laguntza jaso gura dutenek
udaletxeko erregistroan egin
beharko dute eskaera, Euska-
ra-Hezkuntza Batzordeari
zuzenduta. Dagoeneko zabalik
dago eskaerak egiteko epea.
Udalak emango duen lagun-
tza udako ikastaroaren matri-
kularen %50 ordaintzen lagun-
tzeke izango da.

KULTURA > ERAKUSKETA

Herritarrengan eskulturenganako grina "pizteko" erakusketa jarri du Kerexetak

Burdinaz, egurrez eta harriz egindako 40 lan jarri ditu ikusgai eskultore oñatiarrak

Kultura etxean dago ekainaren 6ra arte, astelehenetik domekara (18:00-20:00)

MIREIA BIKUÑA > OÑATI
Esteban Kerexetak (Oñati, 1950) *Itzarri* delako erakusketa jarri du ikusgai kultura etxean, ekainaren 6ra arte. Burdinaz, egurrez eta harriz egindako 40 bat eskultura jarri ditu, eta astelehenetik domekara ikus daiteke 18:00etatik 20:00etara.

ARGAZKIGINTZATIK ESKULTURARA
Itzarri jarri dio izena erakusketari jendearengan eta gazteengan eskulturarenganako grina piztu gura duelako. "Oñati, eskulturan, oso triste ikusten dut. Ingaruko herrietan, Bergaran eta Arrasaten, badira taila-taldeak eta eskultoreak, eta tarteka erakusketak egiten dituzte. Hortaz, erakusketa honekin eskulturarekiko grina piztu nahiko nuke herrian", esan digu.
Argazkilari lanak egin zituen hasieran Kerexetak, baina berehala egin zuen jauzia eskulturarara. "Bolumenak erakartzen nin-



Burdinaz, egurraz eta harriz egindako 40 bat eskultura ikus daitezke erakusketan.

MIREIA BIKUÑA

duen eta argazkiak ez zidan horretarako aukerarik ematen", esan digu.
Eskulturak egiterako orduan gaia edo materiala hartzen ditu oinarri. "Unean uneko gorputzak eskatzen didana aukeratzan dut, edo materiala edo gaia. Politika,

erlijioa, kultura eta foklorearen biltzen ditut oinarri moduan, besteak beste", dio.

URDURI EZ
Bere lana Oñatin erakusteagatik urduri dagoen galdetzerakoan zera esan digu: "Ez, nire lana era-

kutsi gura dut, besterik ez. Beste herri batzuetan erakutsi ondoren, orain Oñatin erakusketa jartzeko unea dela pentsatu dut, baina ez daukat arrazoi berezirik. Ikusi beharko dut herritarrengan eta gazteengan zirrarak sortzen dudana".

MUSIKA

Ganbara Txiki, Antiguako txapelketan

Abesbatza guztiek Josu Elberdinen pieza bana kantatu beharko dute

M.B. > OÑATI
Ganbara Txiki abesbatzak erronka berri bati egingo dio aurre bihar: hain zuzen ere, Zumarragako Antigua txapelketan lehiatuko da. Oñatiarrekin batera, Madrilgo ValleHermoso haur abesbatzak, Bartzelonako Vivaldi abesbatzak, eta Asturiaseko Valle de Nalon kontserbatorioko ahots zuriko abesbatzak kantatuko dute.
Lehiaketa 17:30ean hasiko dute Antiguako elizan, eta antolatzaileek Zumarragako elizatik irtengo diren doako autobusak ipini ditu.

JOSU ELBERDINEN HITZALDIA
Bestalde, lehiaketaz gain, antolatzaileek bestelako ekin-tzak egingo dituzte. Alde bate-tik, Susa Herrerak tailerra egingo du abesbatzetako arduradunendako. Beste alde bate-tik, Josu Elberdin konpositorak hitzaldia egingo du.
Elberdin da biharko txapelketarako antolatzaileek aukeratutako konpositorea. Hori horrela, abesbatza guztiek bere piezaren bat kantatu beharko dute.

oharrak

HITZALDIA
> **Sare sozialen gaineko ikastaroa gurasoendako**
Tuenti eta Facebook gurasoendako. Kontrol eta ikuskatze sistemak delako hitzaldia egingo dute Txantxiku Ikastolan, ekainaren 7an eta 10ean. Pantallas Amigas taldeko koordinatzaile Jorge Floresek Internet, telefono mugikorrak eta bideoak modu osasungarrian erabiltzeko aholkuak emango dizkie gurasoei.

INFORMATIKA
> **Askotariko ikastaroak egingo dituzte KZgunean**
Egun bakarreko eta hamar eguneko ikastaroak egingo dituzte kultura etxean dagoen KZgunean, ekainean. Besteak beste, oinarrizko Internet, Gmail, Blogger, Sare Sozialak eta Flickr.
Informazio gehiago gura duena KZgunetik pasa daiteke (09:00- 13:00- 16:30-20:30) edo 943 08 16 34 telefonora dei dezake.

AUZOAK > JAIK

Gaur, 999 taldearen kontzertua Errekalden

The Lurkers, Kañeria 13, Golpe de Estado eta Bitz taldeekin egingo dute emanaldia 21:00etan hasita

M.B. > OÑATI
Errekalden jaiak ospatuko dituzte gaurtik domekara arte. Egitarau zabala osatu dute antolatzailer taldekoek, baina musika eta kirol hitzorduek toki berezia izango dute.
Gaur, 21:00etatik aurrera kontzertua egingo dute Errekaldeko plazatxoan: 999, Kañeria 13, The Lurkers, Golpe de Estado eta Bitz taldeek zuzeneko egingo dute. Bihar, aldiz, 19:00etan Asfikzia eta Galdu Arte taldeen txanda izango da. Domekan, azkenik, Ganbara Txikik emanaldia egingo du 20:30ean.
KIROL HITZORDUAK
Aspaldiko proba berreskuratuta, Oñati Motor Taldeak Errekaldeko lehenengo goitibehera jaitseira egingo du domekan, 12:00etan.

Irteeera Larrain Gain elkartean egongo da, eta helmuga, Moia kaleko Telefonicarene eraikin parean. Bestalde, bihar 10:00etan 4x4 autoen irteera egingo dute, 11:00etan, hirunakako saskibaloitxapelketa eta 16:00etan jaietako lehenengo motor topaketa.

BESTE EKITALDI BATZUK
Errekaldeko jaiak gaur hasiko dituzte, 19:00etan, txorimaloen laguntzarekin. Jarraian sagardo eta txorizo dastatzea eta garagardofesta egingo dituzte. Biharko, berriz, mus txapelketa eta Hiru Luma taldearen txotxongilo emanaldia antolatu dituzte.
Domekarako, auzo bazkaria, auzoari buruzko bideoaren aurkezpena, Oñatz taldekoen eta bertso eskolako saioak iragartzen dituzte.



999 taldeko abeslari Nick Cash.

GOIENKARIA

INGURUMENA > ASTE BERDEA

Biodibertsitatea eta elikadura landuko dituzte Aste Berdean

Maiatzaren 27an euskal paisaia izango dute berbagai Joseba Errekondok eta Asier Agirrek

Elikagai ekologikoen gainean jardutera dator Ekolapikoko kide Sabrina Pato ekainaren 3an

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Ekainaren 5ean Ingurumenaren Nazioarteko Eguna dela gogoan hartuta, Aste Berdea antolatu du Udaleko Ingurumen Sailak. Dagoneko badira lau bat urte ingurumenari eskainitako ekitaldiak antolatzen dituztena eta aurtien hiru berbaldi eta film emanaldi

bat egongo dira hiru astean zehar: maiatzaren 27a eta ekainaren 10a bitartean, hain zuzen.

Ingurumenari dagozkion gaiak ezagutarazteko eta era berean herritarrek sentsibilizatzeko helburuarekin antolatzen dute urtero Aste Berdea. Eta aurtien aparteko ahalegina egin dute arlo

ezberdinak eta gai interesgarriak eskaintzeko herritarrei; hala, biodibertsitatearen, elikaduraren, argiteriaren eta Afrikak bizi duen egoeraren gainean jardungo duten adituak etorriko dira gureru. Joxe Anjel Antxia Ingurumen zinegotziak herritarrek gonbidatu gura izan ditu ekitaldietara: "Egitarau benetan polita egin dugu, aukera zabalarekin eta gaitan jantzita dauden adituak ekarrita. Horregatik, aretxabaletar guztiak gonbidatu gura ditugu gai interesgarri horiek ezagutzera etor daitezen".

Ekitaldi guztiak Arkupe kultura etxean dira (19:00).

EUSKAL HERRIKO PAISAIK

Lehenengo berbaldia datorren egunean da, hilak 27, eta Jakoba Errekondo eta Asier Galdos paisajistek egingo dute berba Euskal Herriko paisaiak izan duen garapenaren gainean. Galdos da, hain zuzen, Urkulu urtegi inguruaren gaineko plana egin duena.

Paisaia bakoitza lurralde horretako ingurumenak jasandako gizakiaren eraginaren ondorio zuzena dela azalduko dute, eta euskaldunon kultura osatzen dabilen eran gure paisaia aldatzen dabilela argitu. Beste kulturetatik egokitutako nekazaritza, abeltzaintza, eraikuntza eta tek-

Aste Berdearen egitaraua:

Maiatzak 27 (19:00)

Berbaldia: *Euskal Herriko paisaiaren garapena*
Hizlariak: Jakoba Errekondo eta Asier Galdos (paisajistak)

Ekainak 3 (19:00)

Berbaldia: *Elikadura ekologikoa*
Hizlaria: Sabrina Pato (dietista, Ekolapiko)

Ekainak 8 (19:00)

Berbaldia: *Contaminación lumínica*
Hizlaria: Oscar Ortuño (Aranzadi Zientzia Elkartea)

Ekainak 10 (19:00)

Filma: *África, ¿estás ahí?*
Hizlaria: Ekologistak Martxan

nologiak gure paisaian diraute la diote, eta gure kulturari: "Eta bai kulturak, bai paisaiak erresistentziarako eta iraupenerako joera dute, baita geurek ere".

EKOLAPIKO PROIEKTUA

Ekainaren 3an elikadura ekologikoaren gainean jardungo du Sabrina Pato dietistak. Biolurrek abian jarritako Ekolapiko proiektuko kidea da eta helburuen artean dituzte elikagai osuntsuak eskuratzea, elikadura orekatua izatea eta ingurumenarekiko errespetua garatzea. Gainera, sukaldaritzan eta jantoki munduan esperientzia handia du Patok eta umeen elikaduraren inguruan dabil lanean.

Ekainaren 8an, ostera, kaleko argiteriak sortzen duen kutsaduraren gainean jardungo du Aranzadi Zientzia Elkarteko kide Oscar Ortuñok. Kutsadura horrek gizakiarengan eta ingurumenean duen eragina aztertu, daukan kostuaren berri eman eta legediak zer dioen argituko du.

Eta ekainaren 10ean, eguna, Ekologistak Martxan taldeak iazko Ekozinemaldian aurkeztutako filma emango dute: *África, ¿estás ahí?* Kanpo zorra eta zor ekologikoa ditu gai filmak eta multinazionalak zelan jokatzaren duten Afrikako hiru herrialdetan erakusten du: Maroko, Mozambique eta Ugandan. Filma eman ostean, Ekologistak Martxan taldeko aditu batekin solasaldia egongo da.



Joxe Anjel Antxia -Ingurumen zinegotzia- eta Anabel Diez -teknikaria- Aste Berdearen berri ematen duen kartelarekin Santa Kurtz kaleko lorategian.

M.A.

HEZKUNTZA > LAGUNTZAK

Dirulaguntzak eskatzeko epea zabalik dute guraso elkarteek

M.A. > ARETXABALETA

Inolako irabazi asmo barik eta irakaskuntza arautuan lan egiten duten guraso elkarteek aurtengo dirulaguntza eskaerak bidera ditzakete Udalera. Hilaren 18ko (martitzena) Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zuen Udalak deia eta ekainaren 2an bukatuko da eskaerak aurkezteko epea.

Dirulaguntzak izango dira, batetik, noizean behin egindako jarduerendako, eta, bestetik, eskola ikasturteko ohiko jarduera programak aurrera eramateko. Hona batzuk: jarduera osagarriak eta eskolaz kanpoko programak; hezkuntza, kultura eta kirol arloetakoak; aisialdi, garapen iraunkor eta hezkidetzarekin zerikusia duten jarduerak; eta guraso-

ak hezteko programak. Horiek guztiak gutxienez euskaraz egin beharko dituzte.

DIRUAREN BANAKETA

Udalak 4.000 euro bideratuko ditu herriko ikastetxeetako guraso elkarteetara laguntzeko. Laguntza guztiaren %30 elkarte guztien artean banatuko du; hortaz, kopuru bera jasoko du bakoitzak. Beste %20 emango du ikastetxean dagoen ikasle aretxabaletarren kopurua kontuan hartuta. Eta gainerako %50a banatuko du elkarte bakoitzak garatuko dituen jardueren ezaugarriak kontuan izanda.

> ERLIJOA

Gaur egingo dituzte Santa Ritaren omenezko mezak

Gaur, maiatzak 21, esango dituzte Santa Ritaren omenezko mezak agustindarren komentuan: 11:30ean eta 18:00etan. Santuaren eguna bihar da, hilak 22, baina Leintz Pastoral Barrutiko arduradunek erabaki dute egun bat aurreratzea ospakizuna.

Urtero legez, arrosak bedeinkatuko dituzte meza bukaeran. Arrosa horiek norberak eroan behar dituela gogorarazi dute.

> ASTRONOMIA

Zerua behatuko dute gaur plazan jarritako teleskopioetatik

Hiru teleskopio jarriko dituzte gaur (22:00) Herriko Plazan eta zeruko objektuak behatzen saiatuko dira, Ilargiko kraterak eta Saturno planetaren eraztunak, esaterako. Loramendi Elkartek antolatu du ekitaldia, Ilargi Astronomia Elkarteko kideekin batera. Iaz egin zuten lehenengoz eta arrakasta izan zuen. Zerua behatzeko, baina, eguraldiak lagundu behar du; hala ez bada, bertan behera geratuko da.



Dantzaria, Inaxio Garro alkatearen eta Pedro Sanchez Jaurlearitzako ordezkariaren aurrean; atzean, Basotxoko erretiratuak. M.A.

GIZARTE ZERBITZUAK > ERRETIRATUAK

Berrituta Basotxo taberna zerbitzu hobea emateko

Txukunberri enpresak dauka tabernaren ardura eta bost langile egongo dira; eguaztenean inauguratu zuten Jaurlearitzako ordezkariekin

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA
Eguaztenean inauguratu zuten Basotxo erretiratuen egoitzako taberna, hainbat egunean itxita egon ostean. Berrikuntza lantxo

batzuk egin dizkiote egun horietan, tartean argiteria eta kafe-makina aldatu, ordenagailua jarri eta sukalde barruko aldaketak langileen lana errazteko.

Hori guztia egindakoan inauguratu dute –aurrekuarekin eta zinta moztuta– eta bertan izan ziren Inaxio Garro alkatearekin batera Jaurlearitzako Gizarteratze Programako arduradun Pedro Sanchez eta bazterketa jasateko arriskuan dauden herritarren gizarteratzean lan egiten duten hainbat kide. Udalak ekitaldia

aprobetxatu zuen azken 23 urteotan Basotxo tabernaren ardura izan duen Mari Jose Etxebarriarteuni eskerrak eman eta lore sorta eskaintzeko.

PINTXOAK ETA OGITARTEKOAK
Dagoeneko 25 urte baino gehiago ditu Basotxo erretiratuen egoitzako tabernak. Lehenengo, Mitarte plazan izan zuen egoitza eta azken 22 urteotan Errekabarren kalean. Etxebarriarteun familiak izan du horren ardura orain arte, baina martxoan –aurten– Udalak erabaki zuen Durangoko Txukunberri Osoko Zerbitzuak enpresari ematea taberna biziberritu eta indartzeko asmoarekin.

Hori horrela, lehengo langilearekin batera beste lau daude orain tabernaren eta garbitasunaren arduradun; guztiak langabezian zeuden aretxabaletarrak. Zerbitzu hobea emateko asmoarekin ordutegia luzatu dute: aste-egunetan, 11:00-21:00, eta aste buketan, 10:30-22:30. Gainera, edatekoa bakarrik ez, jatekoa ere egongo da hemendik aurrera; batetik, pintxoak, eta bestetik, ogitartekoak, pizzak... bazkari edo afaritarako.

Izan ere, gogorarazi gura dute erretiratuendako bakarrik ez dela taberna: "Egia da, erretiratuei beste prezio bat egiten die, baina edonor etor daiteke, eta oso prezio onak dituzte. Gainera, mahaiak eta aulkiak jarriko dituzte kanpoan", dio Mirari Aiastuik, Gizarte Zerbitzuetako langileak. Era berean, erretiratuen elkarteko kideek jakinarazi dute dagoeneko igartzen direla tabernan egiten hasi diren hobekuntzak.

> LEHIAKETAK
Andramaixetako kartel eta esaldi lehiaketak abian dira

Andramaixak iragarriko dituen kartelak gura ditu Kultura Sailak. Edonork parte har dezake, eta hona jarri beharrekoa: *Andramaixak 2010 Abuztuaren 14a, 15a, 16a eta 17a Aretxabaleta*. Aurkezteko azken eguna uztailaren 2a da eta saria, 300 euro.

Bestalde, esaldi lehiaketa ere deitu dute. 12 urtetik gorako aretxabaletarrek parte har dezakete taldeka edo bakar-ka eta esaldiak aurkezteko azken eguna ekainaren 30a da.

oharrak

IKUSKIZUNA
> 'Mozart gogoan' domekan
Opera Divertimento taldeak Mozarten gaineko ikuskizuna eskainiko die ume eta gazteei etzi, hilak 23, Zاراia aretoan (19:30). Sarrera, doan.

KONTZERTUA
> Kanabera eta metalezko instrumentuen emanaldia
Leizarra musika eskolako ikasleek egingo dute emanaldia martitzenean (18:30).

KONTZERTUA
> Flauta ikasleen emanaldia
Leizarra musika eskolako flauta ikasleek emanaldia egingo dute eguaztenean, hilak 26 (18:30).

ELKARTASUNA > ARE-KROSA

Sahararren aldeko krosa etzi

Udaletxe parean irten eta herrian zehar egingo dute takarradan (10:30); hiru lasterketa egongo dira adinaren arabera banatuta

M.A. > ARETXABALETA
Herri sahararraren aldeko Are-Krosa egingo du Iesbaa taldeak domekan, hilak 23. Hirugarren aldiz antolatu du eta herritarrek, takarradan eginez, sahararren eskubideak aldarrika ditzaten gura dute antolatzaileek.

HELDUEK HIRU BUELTA
Domekako hitzordua udaletxe parean da. Hiru lasterketa egingo dituzte bertatik hasita eta adinaren arabera banatuta (10:30): 8 urte artekoak; 8 eta 12 urte artekoak; eta helduak. Hona helduek egingo duten ibilbidea: Herriko Plaza; Errekabarren kalea; Andramari auzunea; Mitarte kalea; Santa Kurtz kalea; Otalora kalea eta Herriko Plazan hel-

muga. Ibilbide horri hiru buelta eman beharko dizkiote helduek, 4.500 metro inguru; gaztetxoek, ostera, ibilbide motzagoak izango dituzte.
Lasterketa horietarako dortsalak dagoeneko salgai dituzte La Caixan 3 euroren truke. Egu-nean bertan ere izena eman ahal izango dute, korrikalariek hasiera puntuan jarritako mahaian, eta dortsalak erosi (10:00).

GIZA ESKUBIDEEN ALDARRIA
Iesbaa elkarteak ekitaldian parte hartzera animatu gura ditu herritarrek, giza eskubideen aldeko aldarria delako: "Herri sahararra 35 urtean bananduta bizi izatera behartu dute, giza eskubideak errespetatu barik".
Era berean, diruz lagundu gura duten herritarrek kontuak dituzte zabalik La Caixan eta Euskadiko Kutxan.



Umeak eta gaztetxoak Are-Krosa hasteko gertu. M.A.



Zenbaki

Aholkulariak

• Juridikoa:

- Zibila: Banantzeak, Dibortzioak, Herentziak,
- Penala: Hutsegite epaiketak, Salaketak, Zirkulazio istripuak, ...
- Administratiboa: Zigortzaile txostenak, Errekurtsoak, ...
- Merkantila: Kontratuak, Sozietateen eratzeak, ...

• Laborala: Ezintasuna, Erretiroa, Erreklamazioak, ...

• Fiskala: Etxebizitzaren salerosketak, Enpresen balorazioak, Bideragarritasun-Txostenak,...

• Kontalibiltatea: Pertsona fisiko eta juridikoak, ...

Basabe poligonoa F-O-10, 1. ARETXABALETA. Tel.: 943 71 21 12 • www.zenbaki.es



EMPRESA CERTIFICADA ISO 9001:2000

Mobiliario

ARENZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



Orain dela bi urteko martxan, Apotzagan egin zuten geldiunea parte-hartzaileek.

ESKORIATZAKO UDALA

INGURUMENA > V. ELIZATEEN MARTXA

Elizateak bisitatzeko aukera paregabea etzi

Herriko Plazan elkartuko dira, 07:00etan, eta antolatzaileek 100 lagun inguru espero dituzte

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Etzi, domeka, V. elizateen martxa egingo dute herrian. Antolatzailerik lanetan dabilen Edorta Barandiaranek jakinarazi digu aurten ere 07:00etarako egin dutela hitzordua Herriko Plazan eta ez dagoela aurretik izena eman beharrik; jarritako orduan eta tokian agertuta nahikoa da.

Bi urtean behin egiten den martxa da; Txikirri-Txikirri mendi ibilbidearekin txandakatzen da. Martxaren izenak dioen

moduan, Eskoriatzako elizate guztietatik pasatzen da. Ibilbidea, dena dela, ez da beti bera; urte batean alde batera egiten da eta hurrengoan, alderantziz. Aurten, plaza-tik Bolibarrerako bidea hartuko dute mendizaleek; jarraian, Mendiolarantz abiatuko dira eta Gellao, Apotzaga, Marin, Zari-mutz eta Mazmelatik pasa ostean plazara itzuliko dira.

Barandiaranen esanetan, 25 kilometro inguruko luzera du ibilbidea. Horrenbeste kilome-

trorekin, hamarretakoa egitea aurreikusi dute; San Adrian ermitan jarriko dute. Herriko Plazan ere zerbait hartzeko aukera egongo dela azaldu digu.

LAGUN TALDEAK ANTOLATUTA

Esan bezala, bosgarren aldiz egingo dute martxa hori. Eskoriatzako lagun talde bat hasi zen antolatzen eta lehenengo urtean 30 herritar inguruk parte hartu zuten. Ondorengo bi edizioetan kopuru hori 80ra igo zen eta orain dela bi urtekoan 100 lagun izan ziren. Eta aurten ere kopurua antzekoa izango dela uste dute antolatzaileek.

GERTAERA > LAPURRETA

Intxaurtxuetako garajetan sartu ziren eguaztenean

Ertzaintzaren arabera, garaje barruan zegoena ostu zuten; autorik ez zuten eraman

M.B. > ESKORIATZA

Joan den eguazten goizaldean Eskoriatzako Intxaurtxueta auzoko komunitate-garaje batean lapurreta egin zuten. Bergarako Ertzaintzaren komisiarian jakinarazi digutenez, garajeen ateak indarrez zabaldu zituzten eta barruan zego-

ena eraman zuten hainbat ezezagunek.

Azaldu digute 06:00etan kal-tetu baten deia jaso ostean ertzainak lapurretak izandako tokira joan zirela eta orain gertatutakoa ikertzen ari direla. Dena dela, argitu dute autorik ez dutela lapurtu.

> JAIALDIA

Txomin Txapel eguna dela-eta olinpiadak, bazkaria, manifestazioa eta kontzertua daude gaur herrian

Urtero moduan, Txomin Txapel eguna egingo dute gaur unibertsitatean. Ekitaldiak 11:00etan hasiko dira, unibertsitatean egingo dituzten olinpiadekin. 13:00etan, Txomin Txapel klaustrora jaitziko da eta jarraian poteoa hasiko da, trikitilariak lagunduta. Unibertsitatean bazkaldu ostean, arratsaldean, 19:00etan, manifestazioa abiatuko da aparkalekutik eta gauean, Jeimon Turk Band, Egurre eta Kitto! eta The Convicts taldeek kontzertua eskainiko dute. Unibertsitatearen jaia dela-eta, unibertsitateko aparkalekuaren erdia itxita egongo da autoendako.

oharrak

UMEAK

> PlayStationa gaur ludotekan

Gaur, arratsaldean, Tortolis ludotekara joaten diren umeak PlayStationean jolastu ahal izango dira.

GAZTEAK

> Larrugintza tailerra, afaria eta karaokea egunotan gaztelekuan

Larruarekin eskulanak egitea gustuko duten gazteek jakin dezatela tailerra izango dutela gaur eta bihar, 18:00etan, gaztelekuan. Bihar, gainera, afari

merienda eta karaokea egingo dituzte toki berean.

DANTZAK

> San Juan bezperako dantzak

Bihar, zapatua, euskal dantza herrikoien eta Europa osoko gaineko ikastaroa dago, Patxi Montero irakaslearen eskutik. Saioa bi ordukoa izango da, 18:00etatik 20:00etara, kultura etxean; prezioa 5 euro da. San Juan bezperan egingo den erromeriarako prestatuko dira saio horretan.

Gazteen bertso jaialdiak harrera ona izan zuen

Senide eta lagun asko batu ziren martitzen arratsaldean Arizmendiko Almen guneko bosgarren eta seigarren mailetakoko eta Luis Ezeizako laugarren eta bosgarren mailetakoko 200 gaztetxok inguruk egindako bertso jaialdia ikusteko. Taldeka abestu zituzten ikastetxean aurretik asmatutako bertsoak. Askotariko gaiak landu zituzten han; tartean, gaur egungo gizarte kontsumistaz jardun zuten eta txikiak Hansel eta Gretelen Txokolatzeko etxea ipuina abestu zuten.



MIRIAN BITERI

JENDARTEA > OSPAKIZUNA

Herri afaria egingo dute Mundumirari hasiera emateko

Lehenengo, kalejira egingo dute, 19:30ean; eta ondoren, afaria Herriko Plazan, musikak girotuta

ARANTZAZU EZKIBEL > ANTZUOLA

Munduko kulturen festa herrikoitu nahian, Mundumira jaialdiko egubakoitza antzuolarrei begira antolatutako jaia izango da. Ofizialki jaia zapatuan hasiko den arren, egubakoitzean festa giroak hartuko ditu herriko kaleak.

KALEJIRA ETA AFARIA

19:30ean kalejira izango da, Herriko Plazatik hasita, Bentazarreko mutiko alaiak taldearekin. Eskusoinua, biolina, gitarra, dulzaina, txirula, aho-soinua eta perkusioa lagun dituztela, ikusleak kantuan jartzen dituzte. Horretarako, euskal kantu tradizionalak osatutako kantu liburuxkak banatuko dituzte.



Bentazarreko mutiko alaiak taldeko kideak.

GOIENKARIA

19 HERRIALDETA KO JANA

Egubakoitzerako munduko jakien postuak martxan egongo dira –dena 19 herrialde ezberdin–; gainera, plazan mahaia eta

aulkiak egongo dira herritarren esku. Hortaz, afarirako jana eta edana norberak eraman behar du; postuetan eros daitezke, edo etxetik eraman.

IKUS-ENTZUNEZKOA

Iñaki Otxoa de Oltzari buruzko filma

Datorren egubakoitza mendiari lotutako eguna izango da. Arratsaldeko zazpitan, Torresorran Iñaki Otxoa de Oltza zenaren gaineko filma emango dute: *Iñakiren ahotsa*. Orain dela bi urte hil zen alpinista nafarra Annapurnan; filmak haren mendizaletasuna deskribatzen du. Esan behar da Otxoa de Oltzaren heriotzaren inguruan gertatutakoa elkartasun adibidetzat jo izan dela.

Filmaren ondoren SOS Himalaia fundazioa aurkeztuko dute. Otxoa de Oltzaren senitarte-ko eta lagunek bultzatutako fundazioa da, Himalaiako umeei laguntza emateko asmorekin.

Bentazarreko Mutiko Alaiak taldeak girotu du afalordua, eta baita ondorengo orduak ere. Mundumira jaialdia haste-ko modu ezin hobea!

Lizarragako auzotarrek presoaren aldeko dirua batu zuten

San Isidro azokan Lizarraga auzoko gazteek talo postua jarri zuten herriko plazan. Lehenengo aldia da horrelako zerbait egiten dutena auzotarrek. Taloe-kin lortutako dirua presoaren senitarte-koendako izan zen. Auzotarrek adierazi digute giro oso polita sortu zela eta herritarrek ondo erantzun zutela. Senideei elkartasuna adieraztea zen asmoa.



JOSETXO ARANTZABAL

> MUNDUMIRA

Mundumirako kamiseten salmentarekin lortutako diruaren herena Anelkarrendako izango da

Itzar liburu dendan daude salgai Mundumirako kamisetak 24 eurotan. Zapatura arte –maiatzak 29– salduko diren kamisetetatik lortutako herena Anelkar elkartearendako izango da. Zapatuan saltzen direnak, osterara, ez. Hortaz, Anelkartik dei egin dute kamisetak erosteko zapatua baino lehen. Itzar liburu dendan daude salgai, Kalebarrenen.

Kamiseten salmentarekin batutako dirua Anelkarrek erabiliko du Kongo eta Senegalgo proiektuetara bideratzeko. Horrez gain, adierazi dute joan den zapatuan San Isidro azokan 37 kamiseta saldu zituztela. Gogoratu behar da Mundumirako kamiseta %100 organikoa dela, kotoi organikoarekin egindakoa.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

oharrak

IKASTAROA

> Memoria lantzeko ikastaroa egingo dute erretiratuen elkarteak

Bizikasiren laguntzarekin antolatu dute ikastaroa. Maiatzaren 25ean, eta ekainaren 1ean, 8an eta 15ean izango da ikastaroa, 16:00etatik 18:00etara. 20 lagunek eman dute izena.

LIBURUTEGIA

> KZgunean begiralea egongo da maiatzaren 25ean

Maiatzari dagokionez, KZguneko zerbitzua begiralearen laguntzarekin martitzetan izango da. Begiralea egongo da hilaren 25ean, 16:00etatik 20:00etara.

ZERBITZUAK

> Bergarako jaiak direla-eta gaueko autobus zerbitzu berezia egongo da asteburuan

Gaur, hilak 21, Antzuola-Bergara-Elgeta noranzkoan autobusak aterako dira Antzuolatik, 00:00etatik 06:00etara, orduro. Elgeta-Bergara-Antzuola noranzkoan, autobusak Bergaratik pasako dira 00:45etik 06:45era orduro.

Bihar autobus zerbitzu bera egongo da; eta, gainera, zerbitzu bereziari gainontzeko aste bukaeretako zerbitzua gehituko zaio.

LEHIAKETA

> Balkoietako lore apainketa lehiaketako sariak uztailean emango dituzte

Udalak XIV. urtez antolatuko du aurten balkoi eta leihoetako lore apainketa lehiaketa; baina aurtengoak berritasun bat izango du: beste urte batzuetan ez bezala, sariak banatuko dituzte herriko jaietan uztailean.

MUNDUMIRA

> Auto pribatuendako zirkulazioa mugatu egingo dute

Herritarrek Antzuolatik irten eta sartzeko baimena izango duten arren, eskatuko zaie autoa erdigunetik ateratzea. Horretarako, Goizpe-rreren aparkalekuak egokituko dituzte. Udalak, baina, autoak kanpoan utzi barik gajeetan sar dezaten ere eskatu die herritarrei.

KULTURA > ONDAREA

Ondarea Berreskuratzeko Taldeak batzar irekia egingo du eguenean

Parte-hartzea lortu nahi dute auzolanean hainbat egitasmo egiteko

EDU MENDIBIL > ARAMAIO

Aramaioko Ondarea Berreskuratzeko Taldeak (AOBT) bilera bate-ra deitu ditu herritarrak. Hurrengo eguenean, 19:00etan, izango da batzarra, udaletxean.

Bi helburu nagusi ditu taldeak: alde batetik, taldea berrindartzea, jendea erakartzea; eta, bestetik, egin daitezkeen lanak aztertzea. Hain zuzen ere, hainbat egitasmo ditu esku artean AOBTk. Urkiolako Parkekoak Aramaioko bailara zeharkatuko duen PR ibilbide bat markatzen hasi dira eta bide horren hasiera egokitu nahi dute taldeko kideek. Hain zuzen ere, Ametzuko bidea, Sastiña ermitaren atzealdean dagoena konpondu nahi dute. Ekainaren 5erako egin dute hitzordua eta batzen den jendearen arabera ikusiko da zenbat egunetako lana izango duten. Sasi-garbitzeko makinak edota aitzurrak eramatea eskatu dute AOBTkoek. Goizeko bederatzi-tan elkartuko dira Aramaioko



Alex Mendikute, garbitu nahi duten bidearen hasieraren ondoan, Sastiña atzean. E.M.

plazan eta lana amaitutakoan bazkaria egitea da asmoa.

ONDARE HANDIA

Alex Mendikute AOBTko presidentearen arabera, Aramaion ondare handia dago ezkutuan eta lan handia dago egiteko, Murumendin esaterako: "Aramaioko

lehenbiziko kokalekua izan zen Murumendi eta arkeologoen artean oso ezaguna da inguru hori". Udalaren laguntza badutela dio Mendikutek. Eta etorkizunerako beste bi proiekturi ekiteko asmoa: Andre Mariko bidea egokitzea eta Arraga auzoko ur saltoko bidea hobetzea.



Koikili, Aramaio eta Legutioko ikasleekin, atzo.

JULEN IRIONDO

HEZKUNTZA > SAN MARTIN

Koikiliren bisita izan zuten Aramaioko neska-mutikoek

Legutio eta Aramaioko 60 bat ikaslerekin jolasean jardun zuen Athleticeko jokalariaik


E.M. > ARAMAIO

Zuiako Koadrilako euskara zerbitzuak antolatuta, San Martin ikastetxeko haurrek Koikiliren, Athleticeko jokariaren bisita izan zuten eguen goizean. Besteak beste, kirolaren eta jolasen bitartez euskara bultzatzea helburu duen Hitzarri aholkularitza enpresako bazkideetako bat da Athleticeko atzelaria eta goiz osoa, 09:00etatik eguerdira arte eman zuen jolasean Legutioko eta Aramaioko lehen eta bigarren mailako

letako ikasleekin. 60 neska-mutiko inguruk jardun zuten Koikilirekin. Lehen mailako futbol denboraldia amaitu berri, ume-jolasetan gustura murgildu zen otxandiarra. Eta zapatuan amaitutako denboraldiaren gainean balorazio positiboa egin zuen jokolari zuri-gorriak.

Jolasen ostean Koikilik bere eta taldearen argazkiak banatu zituen umeen artean, eta opari batzuen zozketa ere egin zuten. Athleticeko kamiseta sinatu zuen San Martin eskolarendako, eta neska-mutikoei ere eman zien sinadura.

Esan beharrik ez dago primeran ibili zirela denak. Gainera, eguraldia ere izan zuten lagun. Hori bai, ikasleek Mesik baino lan handiagoa eman zioten Koikiliri.



SAN MARTIN

San Martin eskolako jaia zapatuan

Bihar, zapatua, San Martin eskolako jaia ospatuko dute. Arratsaldeko lauretan hasiko dira ekitaldiak: malabareak, aurpegi margotzea, grafitia eta beste hainbat. Era berean, haurrendako jolasak izango dira 18:00etatik aurrera. Bukatzeko, afari meriendaren osterako, Al Djaren saioa iragarrita dago. Afari meriendako tortilak, gazta, bizkotxo eta abarrak gurasoen esku izango dira eta edaria, ogira eta kafea guraso elkartearen kontura. Umore ona ezinbestekoa dela diote antolatzaileek.

> ZINEMA

'Julie & Julia' gaur gauean eta 'Los increíbles' filma domeka arratsaldean kultura etxean

Gaur, egubakoitza, *Julie & Julia* filma ikusteko aukera izango da kultura etxean, 22:15ean. Sukaldaritzaren gaineko komedia da, Meryl Streep eta Amy Adams aktoreek porotagonizatuta. Sarre-rak euro baten, ohikoa denez. Domekan, gaztetxoei zuzendutako emanaldia izango da, 17:00etan: *Los increíbles* botako dute.

> GAZTEAK

Plantilla tailerra, zapatu arratsaldean gazte lokalean, 12 urtetik gorako neska-mutikoendako

Udalak antolatuta, 12 urtetik gorako gaztetxoei zuzendutako jarduera izango da bihar, zapatua, gazte lokalean, 16:30ean hasita. Hain zuzen ere, plantilla tailerra izango da bertan. Gaztetxoek kamiseta, patinetea edo bestelako objekturen bat eraman dezakete, haren gainean marrazkia egin ahal izateko.

> JAIK

San Martin jaiak: Udalaren kartel lehiaketa eta jaietako batzordearen bilera astelehenean

San Martin jaietako kartel lehiaketa deitu du Udalak. Adinaren arabera bi maila bereiziko dituzte: gaztetxoaren arteko saria Elkar dendetarako 60 euroko bonua da eta nagusiarena, berriz, 150 eurokoa. Lanak maiatzaren 31ra arte jasoko dituzte udaletxean. Astelehenean, hilaren 24an, Jai batzordearen bilera udaletxean, 18:00etan.

IRISGARRITASUNA > LANAK

Gaur arratsaldean zabalduko dute osterara ere Ozkarbi elkarte

Bi astez egon da itxita; erretiratuendako aretoa egokitzeaz gain, egoitza txukundu egin dute

Ozkarbi eguna ekainaren 6an izango da; parte hartzeko gonbita egin die zuzendaritzak bazkideei

MIRIAN BITERI > ELGETA

Aurreikuspenak bete egin dira eta gaur, egubakoitza, arratsaldean zabalduko dute Ozkarbi elkartearen egoitza, bi astez itxita egon ostean. Elkarteko presidente Iban Arantzabalek azaldu digu lanak dagoeneko amaituta daudela eta sukaldetik beheko jangelara doan eskailera baka-rrik falta dela; datorren astean jartzeko asmoa dutela gaineratu du. Haren arabera, dena dela, "erabiltzaileek normal erabili ahal izango dute egunotan elkar-tea afarietarako edo nahi dute-nerako".

Amaral de Sousa enpresak egin ditu obra horiek. Bere garaian, Ozkarbi akordioa egin zuen Udalarekin, herriko erreti-

ratuek elkartearen egoitza moduan erabil zezaten. Horretarako, areto bat atondu eta irisgarritasun lanak egin dira. Ezinduei egokitu-tako komun berria egin dute beheko solairuan, eta aldapatxo-ak sarreran. Zuzendaritzak, gai-nera, lan horiek aprobetxatu nahi izan ditu eta elkarteko hormak margotu eta mahaia-lik lixatu eta barnizatu egin dituzte.

OZKARBI EGUNA EKAINAREN 6AN

Obrak direla-eta Ozkarbi egune-ko bazkaria atzeratu egin behar izan dute. Ozkarbiko presiden-teak aurreratu digu dagoeneko zehaztu dutela ekimen horren data: ekainaren 6an, domeka, egingo dute esandako eguna. Urtero moduan, bazkideak baz-



Obrak amaitu dituzte Ozkarbi elkartearen.

LARRAITZ ZEBERIO

kaltzeko batuko dira egun horre-tan mahaiaren bueltan.

Horren harira, zuzendaritza batzordeak bazkideak gonbida-

tu nahi izan ditu bazkarian par-te har dezaten eta, nahi izanez gero, elkartearen egin diren obrak ikus ditzaten.

Elgeta txuri-urdirin taldea sortu dute herrian

Realzaleek dagoeneko badute lagunartea: Elgeta txuri-urdirin taldea. Astelehenean egindako batzarrean taldearen izena aukeratu eta ofizialki erregistra-tzea onartu zuten; astean joatekoak ziren Donostiara azken horren gaineko tramiteak egiteko. Dagoeneko 34 bazkide ditu; izena eman gure dutenek Patxi tabe-rnara jo dezakete. Irudian, zale bi taberna horretan.



LARRAITZ ZEBERIO

oharrak

TASAK

> **Ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko epea zabalik**

Herritarrei jakinarazten zaie ekainaren 30era arte daukatela trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko zergaren agiriak borondatez ordaintzeko.

UMEAK

> **Udaleku irekietarako izenematea, hilaren 30era arte**

Udaleku irekietan izena eman daiteke oraindik. Horietan interesa dutenek udaletxera joan behar dute maiatzaren 30a baino lehen. Uztailaren 5etik 30era bitartean izango dira horiek, 09:00etatik 13:00etara.

LEINTZ GATZAGA > EKITALDIAK

Erakusketa eta umeendako ikuskizuna

Aste bukaeran egingo dituzte, Udalak antolatuta

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Emaus fundazioak antolatutako erakusketa ekarri du Udalak kultura etxera eta ikusgai izango da aste bukaeran: *Formula-rik iraunkor eta solidarioena*:+3Rs=- CO2. Ehun hondakinekin, hau da, arropa,

oinetako eta antzeko hondakinekin zer gertatzen den jakinaraziko diete herritarrei panelen bitartez.

Arroparen kudeaketa nola egiten den ezagutarazteko asmoarekin sortu da *Formularik iraunkor eta solidarioena* kanpai-

na. Azalpenak emateaz gain, hausnarketarako bidea zabaldu gura dute erakusketarekin, arropen bizi-zikloa luzeagoa izan dadin.

Emaus fundazioak sortutako Sin Desperdicio marka solidario-riko materiala egongo da ikusgai eta erakutsiko dute edukion-

tzi zurira botatako arropa eta oinetakoe-kin zer egiten duten Arrasaten jarritako tailerrean.

XURDIN IPOTXAREN IKUSKIZUNA

Bestalde, umeek Xurdirin ipotx urdinaren gorabeherekin ondo pasatzeko aukera izango dute bihar, zapatua, (17:00), San Migel plazan. Antzerkia, kantuak, dantzak eta jolasak eskainiko dizkiete Xurdirinek eta haren lagunek 3 eta 10 urte arteko neska-mutikoei ordu-bete iraungo duen emanaldian.

Aperribay, s.l.

Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

FUTBOLA > DERBIA

Mondra-Bergara: agur kutsua duen derbia jokatuko dute bihar

Liga amaitzeko bi jardunaldiren faltan jokatuko dute Bergarak eta Mondrak

Agur kutsua izango du derbiak, zelaian izango diren batzuek futbola utziko dutelako

XABIER URTZELAI > BERGARA

Mondrak eta Bergarak ligako azken derbia jokatuko dute bihar Mojategin (16:30). Eta ,batendako baino gehiagorendako, amateur mailan jokatzeko duten azken derbia izango da.

Has gaitezen aulkietatik, azken urteotan talde zuri-morea zuzentzen ibili diren Andoni Azkargortak eta Iker Zaitegik ez dute-eta jarraituko. Eta bisitarien aulkian ere azkenekoz eseriko da Manu Diaz, Bergarako entrenatzailea. Diazek urtebete lasai hartzeko asmoa du: "Bergarako zale finena bilakatuko naiz, baina presio barik; futbolaz gozatu, beste barik". Azkargortak, berriz, entrenatzaile lanetan jarraituko du, seguru, baina oraindik ez du ezer zehaztu.

KAPITAIN IZANDAKOEN AGURRA

Entrenatzaileekin batera, kapitainaren besokoa janztear den ondo dakiten eta bizitza osoa etxeko taldean egin duten Ander Bereziartua *Keixi*-rendako eta Mikel Otero *Txanpi*-rendako ere partidu berezia izango da. *Keixi*-



Txanpi-k eta *Keixi*-k botak zintzilikatzeko erabakia hartu dute; bi jokalariek urte mordoia egin dituzte euren taldeetan. GOIENKARIA



rendako Mojategin jokatu duen azken partidua izango da eta *Txanpi*-k harmailetatik jarraitu beharko du partidua, Mondraren kontrako derbian min hartu zuen-eta belaunean.

Eta eurekin batera ziurrenik futbola utziko dute Jon Azpeitiak

(Mondra), Oier Loiolak (Bergara), Iñaki Muxikak (Bergara), Jon Altzolak (Bergara) eta Jon Urteagak (Bergara).

Gauzak horrela, nahiz eta aparteko puntu beharrik ez izan, derbi lehiatua izatea espero dute bi taldeetako entrenatzaileek:

"Batez ere agur esango dutenendako partidu berezia izango da, eta nik uste dut merezi dutela partidu txukun batekin agur esatea", adierazi du Manu Diazek.

Aloñak, bestalde, Oiartzunera egingo du bidaia bihar (16:30, Karla Lekuona zelaia).

> MAHAI-INGURUA

Jose Luis Korta eta Iñaki Perurena MUN hilaren 26an

Arrakastaren bidean, lidergoa eta motibazioa izenburupean mahai-ingurua antolatutako MUK maiatzaren 26rako (18:30); sarrera doan izango da, eta gonbidapenak Kirol Zerbitzuan eskatu ahal dira.

Eta izenburu horrekin bat egiten duten Jose Luis Korta eta Iñaki Perurena izango dira mahai-inguruan. Bata arraun munduan, bestea herri kiroletan, eta, gainera, biak ala biak telebistako saioetan protagonista.

> EUSKAL SELEKZIOA

Ekainaren 5ean egingo dute Oñatin euskal selekzioaren eguna

Ekainaren 5ean, XII. euskal selekzioaren eguna ospatu dute Oñatin. Hala, eguneko hitzorduen barruan dago Antxintxikak antolatuta egingo duten 10.000 metroko atletismo lasterketa irekia (18:45).

Ekitaldia, baina, goizean hasiko da, ikurrinaren igorarekin. Ondoren izango dira gazteendako herri lasterketak, euskal jolasak, pailazoak, herri bazkaria eta Debarro pilota txapelketako finalak.

> FUTBOLA

Bergarako udako futbol txapelketan 31 talde izango dira

Ekainaren 1ean hasiko dute Ipintzan jokatu duten amateur mailako futbol txapelketa, udako torneoak.

31 talde izango dira, eta horietako sei emakumezkoenak izango dira. Hala, gizonezkoen mailan, 17 taldek hamakako futboleko ligan hartuko dute esku, eta zortzi taldek beterranoen mailako zortziko futboleko jokatu dute. Ekainaren 1ean, 18:00etan, Getokuak eta Dream Teamek hasiko dute txapelketa.

> ARETO FUTBOLA

Eskoriatzako taldeak beste urtebete egingo du Euskal Ligan

Azpeitiko taldearen kontra 2-0 irabazi ostean, Eskoriatzako areto futbol taldeak beste urtebete egingo du Euskal Ligan.

Hala, liga amaitzeko jardunaldi baten faltan Eskoriatzak dagoeneko batu ditu lasai egoteko nahiko puntu. Hori bakarrik ez, etxeko zaleen aurrean partidu oso ona egingo da iritsiko dira-eta ligako azken jardunaldira. Oraingo asteburuan Kurutzaga dute kontrario.

TXIRRINDULARITZA > MENDEKOSTE SARIA

Ziklista amateurrek Mendekoste sarian

Lehendakari txapelketak hitzordu bikoitza izango du: bihar Beasainen eta domekan Bergaran

X.U. > BERGARA

Oraingo asteburuan, Lehendakari txapelketan lehiatzen dabiltzan ziklistek lan bikoitza izango dute: zapatuan, torneo horretako bigarren lasterketa egingo dute Beasainen –Loinaz saria– eta domekan Bergarara etorririko dira –75. Mendekoste saria.

Amateur mailako lasterketa izango da, eta tartean izango da ibarreko ordezkari Xabier Aran-



Jonathan Castroviejo, 2007an, helmugarako bidean.

I.A.

tzeta antzuolarra. Lasterketa 09:30ean hasiko dute, San Antonion, eta 107 kilometroko ibilbidea egin ostean –ia denak Debagoienean–, 12:10 inguruan Bergarara iritsiko dira. Azken kilometroetan Asentziara igoko dira Kanpanzartik.

JAIETAN, PARRANDARIK EZ

Bestalde, gazte mailan Lokatza-Sumofic taldeko ziklista batzuek ez dute herriko jaiez gozatzerik izango. Zapatuan Anoetan izango dute hitzordua, Oiartzabal memorialean, eta domekan Urdu-lizen lehiatuko dira, Euskal Herria torneoan. Bergarakoekin batera lehiatuko dira, baita ere, Oñatiko ziklistak eta baita Dorletako Amakoak ere.



Zapatuan Bergaran izango da lasterketa eta domekan Oñatin.

GOIENKARIA

GOITIBEHERAK > BI LASTERKETA ASTEBURUAN

Aspaldiko partez goitibeherak itzuliko dira gure errepideetara

Zapatuan Mendekoste jaien barruan Bergaran egingo dute goitibehera lasterketa eta domekan Oñatin Errekaldeko jaietan hartuko dute erreleboa

XABIER URTZELAI > BERGARA
Jendeak goitibehera gosea du, eta oraingo astebururako egin dituzten bi hitzorduek erakusten dute hori. Urteak dira Debagoienean goitibehera lasterketarik egiten ez dena, eta oraingo asteburuan bi lasterketa izango dira ikusgai.

BIHAR BERGARAN
Bihar, zapatua (12:00), Mendekoste jaien barruan egingo dute

goitibehera txapelketa. San Martzialerako bidean egingo dute lasterketa, eta, txapelketan sei goitibehera lehiatuko badira ere, zazpigarren batek erakustaldia egingo du.

OÑATIN DOMEKAN
Domekako lasterketan izena emateko, berriz, azken ordura arte izango da aukera: "Jendeak behin eta berriro komentatzen zigun

horrelako lasterketa bat antolatu behar genuela. Eta motor munduarekin nolabaiteko harremana badaukanez, animatu egin gara", adierazi du Oñatiko motor taldeko kideak.

Oñatiko goitibehera lasterketa ez da Euskadiko txapelketa barruan egongo: "Berandu ibili gara, eta aurtengo esperientzia positiboa bada, akaso datorren urtean antolatuko dugu". Jaitsierari dagokionez, ibilbidea ez da luzea, Larrain-gain elkartetik behera: "900 metro inguru ditu, baina ez da jaitsiera batere erraza, malda handia du-eta. Gainera, azken kurba ikusgarria da".

> ESKALADA
EMFren boulder txapelketako izenematea zabalik

Mundumira jaiaren barruan Euskal Mendi Federazioko bosgarren boulder txapelketa egingo dute datorren astean Antzuolan, eta dagoeneko zabalik dago izenemate epea.
Boulder txapelketan izena emateko sar zaitezte *www.emf-fum.com* helbidean, eta bertan aurkituko duzuen izenemate orria betetzearekin batera 12 euro ordaindu beharko dituzue 2101-0081-11-0012018305 kontu korronte zenbakian. Webgune horretan aurkituko dituzue txapelketaren gaineko xehetasun gehiago. Eskalatzailleek federatuta egon beharko dute.

> PADDLEA
Juan Luis Etxaniz eta Patxi Vallejos, neguko txapelketako irabazleak

Neguko I. AKE paddle txapelketak baditu irabazleak: Juan Luis Etxaniz eta Patxi Vallejos. Finalean Jorge Aranes eta Joseba Oregi izan zituzten aurrean (6-2, 2-6, 6-4).
Finalean, bi bikoteek txapelketa osoan erakutsitako mailari eutsi zioten, eta kanporaketa asko erraz gainditu eta gero indarrak pare-parean egon ziren. Hirugarren postuan sailkatu ziren Eneko Ugalde eta Gurutz Beitia, Josu Mondragoni eta Iban Mansori irabazita. Txapelketa mistoan, berriz, Juan Luis Etxaniz eta Amaia Zabaleta izan ziren onenak.

> MENDIA
Boluntarioak behar dira Aiba! mendi martxa antolatzen laguntzeko

Ekainaren 6an egingo dute Aramaioko ibarrari bira Arrasatetik (Aiba!) –zabalik dago izenemate epea–, eta martxa hori antolatzeko boluntarioak behar dituzte. Laguntzeko gertu zaudetenok joan Besaideko egoitzara martitzen edo eguaztenetan (19:30).
Aiba! Aramaioko errekek biltzen dituen tontorren ibilbidea da, eta, aurreko hiru ekitaldietan Meatzerrekako urak albo batera utzi bazituzten ere, aurtten Loo tontorra igo eta Aramaio errekekako ur guztiak batuz egingo dute ibilbidea. Mendi zeharkaldiaren gaineko informazio gehiago: *www.besaide.org*.

asteburuko hitzorduak

FUTBOLA	Infantil txiki, kopa Ilintxa-Bergara Zapatua. 10:30. Bikuña.	SASKIBALOAIA
Bigarren maila Betiis-Reala Domeka. 21:00. Sevilla.	Alebinak, txapeldun fasea Bergara-Arrasate Domeka. 12:30. Ipintza.	Maila autonomikoa Ibaizabal-Aloña Mendi Zapatua. 20:00. Gadakao.
Erregional ohorezko maila Mondra-Bergara Zapatua. 16:30. Mojategi.	Alebinak, kopa Anaitasuna-Aloña Mendi Domeka. 09:30. Azkoitia.	Infantil emakumezkoak LEK Arrasate-Oiartzun Zapatua. 10:30. Musakola.
Oiartzun-Aloña Zapatua. 16:30. Oiartzun.	Aretxabaleta-Zumaiaiko Domeka. 11:00. Ibarra.	Santo Tomas-Soraluce BKE Zapatua. 10:00. Donostia.
Lehenengo erreg. Igoera Bergara B-Allerru Zapatua. 17:15. Agorrosin.	Emakumezkoen Kopa, finala Mondra-Eibar Zapatua. 18:30. Ipintza.	XAKEA
Mondra-Oiartzun Zapatua. 18:30. Mojategi.	Emakumezkoen kopa Bergara-Eibar Zapatua. 16:00. Ipintza.	Bergara Hiria Domeka. 16:00. Agorrosin.
Ohorezko gazteak, kopa Beti Gazte-Mondra Domeka. 15:30. Lesaka.	Emakumezkoak kadete F11 Beasain-Arizmendi Zapatua. 11:45. Igartza.	ZIKLISMOA
Lagun Onak-Aloña Mendi Zapatua. 12:00. Azpeitia.	Emakum. Kadete F11 Zarautz-Mondra Domeka. 12:30. Asti Txiki.	Mendekoste saria, Amateur mailakoak Zapatua. 09:30. Bergara.
Gazteak, igoera fasea Aretxabaleta-Behobia Zapatua. 12:00. Ibarra.	Emakumezko. F8 Kadete Bergara-Ilintxa Domeka. 12:00. Ipintza.	Alebin eta infantil laster. Zapatua. 16:30. Arrasate. Markulete industrialdea.
Kadeteen ohorezko maila, igoera fasea Kostkas-Aretx. Arizmendi Zapatua. 15:30. Matigoxote.	Aloña Mendi-Euskalduna Zapatua. 17:30. Azkoagain.	PILOTA
Kadeteen ohorezko maila, kopa eta jaitsiera Aloña-Hondarribia Zapatua. 12:00. Azkoagain.	ESKUBALOAIA	Bergara Hiria torneoko finalak Astelehena. 19:30. Bergara.
Lehenengo kadet. Igoera Behobia-Aloña Mendi Zapatua. 11:30. Irun.	Euskadiko txap, igoera fasea Univ.Deust-Soraluce BKE Zapatua. 18:00. Bilbo.	Profesionalak, Mendekoste jaialdia Zapatua. 17:00. Bergara: Xala-Arretxe II.a.
Vasconia-Arrasate Zapatua. 15:30. Donostia.	Gizonezkoak, kopa Arrate-Ford Mugarri Zapatua. 17:00. Eibar.	Profesionalak, Mendekoste jaialdia Martitzena. 17:30. Bergara: Irujo-Laskurain Titin-Pascual
Kadeteak, kopa Aretxab. Elgoibar Zapatua. 10:00. Ibarra.	Emakumezkoak, kopa Bera Bera-Verkol Aloña Zapatua. 18:00. Donostia.	Udaberri txapelketa Gaur, 19:30. Bergara Azpeitia-Bergara Zapatua, 15:30. Bergara Bergara-Intxurre Bergara-Eskoriatza Bergara-Intxurre Euskal Jolas-Olalde
Infantilen ohorezko maila Kostkas-Arrasate Domeka. 11:00. Matigoxote.	Gazteak, kopa Aloña-Rotula Studio Gaur. 19:30. Ordizia.	GOITIBEHERAK
Sanse-Aretx.-Arizmendi Zapatua. 12:00. Felix Garin.	ARETO FUTBOLA	Mendekoste saria San Martzialeko aldapan Domeka. 12:00. Bergara.
Infantilen kopa Amaikak Bat-Bergara Domeka. 16:00. Errotazar.	Euskadiko Txapelketa Kurutzaga-Eskoriatza Zapatua. 18:00. Durango.	Errekalde saria Larrain-gain elkartean Domeka. 12:00. Oñati.
Aloña Mendi-Urki Domeka. 11:00. Azkoagain.		
Infantil txiki, parte-hartze Aloña Mendi-Orioko Zapatua. 10:00. Azkoagain.		



ULMA Forja, Koop. E
Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA

DEIA

Eguna: 2010eko maiatzaren 28a.
Ordua: 10:30ean lehen deialdia eta 11:00etan bigarrena.
Tokia: ULMA Taldeko auditorioa – Oñati (Gipuzkoa)

GAI ZERRENDAA

- Aurreko akta onartzeari buruzko txostena eta Batzar Nagusi honen akta onartzeko bazkideak izendatzea
- 2009ko ekitaldiko memoria irakurtzea eta onartzea, eta 2010eko gestio plana berrestea
- ULMA Taldeari buruzko txostena
- 2009ko ekitaldiko kontuak aztertzea eta, hala badagokio, onartzea
- Auditorea izendatzea
- 2009ko interesak sortzea eta kapitalizatzea
- Emaitzak banatzea
- Heziketako eta Kooperatiba Sustapeneko eta interes publikoko beste xede batzuetarako ekarpenaren (H.K.S.E.) erabilera
- Egituraz gaindiko erakundeekin zerikusia duten gaiak
- Ekonomia araubideko estatutu-xedapenak
- Menpeko ekarpen finantzarioen jaulkipena
- Kontseilu Errektoreko kideak berritzea
- Zaintza Batzordeko kide bat berritzea
- Kontseilu Sozialeko kideak berritzea
- Galderak eta eskaerak


KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA
Oñati, 2010eko maiatza

OHARRA: Bazkide guztiei gogorarazten zaie kanpo auditoriak aztertutako urteko kontuak, emaitzak banatzeko proposamena eta gestio txostena egoitza sozialean eskura dituztela Batzar Nagusira bitartean aztertu ahal izateko.

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada giro!

Arlutz taberna



Gustuko musika

Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34

Anduaga Jatetxea



Eguneko menua | Bokatak
Plater konbinatuak | Errazioak

Araba Ibilbidea 31, behea | Aretxabaleta | 943 79 96 54



Loteria eta kinielak

DORLETA TABERNA

Loramendi, 8 Tel.943 79 94 15 ARETXABALETA

OTZETA JATETXEA



Aranburuzabala 9 ESKORIATZA Tel.: 943 71 31 67

BASABE

Menuak eta afariak



Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 77 31 19

HIRUSTA JATETXEA



Ilargi plaza 4. Tel.: 943 79 06 57



Matikua jatetsxea

Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68

Gurea

TABERNA



Lotoak eta kinielak


Durana 32 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 64

IOSU

*taberna
harategia*

Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak

Mitarte 1
Tel.: 943 77 03 08



> FILM LABURRA
Aratzek lehenengo saria irabazi du Atzegiren film labur sariketan > 32



> KONTZERTUA
Or2tan eta Grupo Sanjuan talde aretxabaletarrak Espaloian > 33

> ANE SANZ DE GALDEANO
Oñatiarra da, 16 urte ditu eta igerilaria da; kirol horretan Euskadiko txapelduna da junior mailako 50 libreetan > 34



Mendiko meteorologiari buruz jakin beharrekoak

Anbotoko Gerriko koba eta Udalatx mendia atzean.

OXEL ARRIETA

IKASTAROA

Gloria Latasa klimatologian adituak emango du ikastaroa ekainean, Arrasaten

ARRISKURIK EZ

Mendian arriskuak ekiditeko aholkuak emango ditu

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Besaide mendizale elkartean mendiko meteorologiari buruzko ikastaroa egingo dute ekainean. Klimatologian eta meteorologian aditu Gloria Latasa izango da irakaslea, eta hiru egunean (ekainaren 1ean, 8an eta 17an), mendira goazenean kontuan hartu beharreko faktoreen gainean egingo du berba. Besteak beste, eguraldi mapak irakurtzen eta interpretatzen; eguraldiaren egoera konprometituak antzematen; eta mendian gertatzen diren bat-bateko eguraldi aldaketen aurrean jokatzeko erakutsiko du.

EGURALDI MAPEN INTERPRETAZIOA

Latasak esan digu mendira joateko gutxieneko informazioa jaso beharko genukeela: "Etxe ondoko mendira joateko ere eguraldi iragarpena ikustea ezinbestekoa da".

Eguraldi iragarpen onak eta fidagarriak Interneten kontsul-

ta daitezke: www.aemet.es; www.euskalmet.euskadi.es; eta www.meteofrance.com webguneetan, besteak beste.

Gaineratu digu iragarpenez gain oso inportantea dela egural-

di mapak interpretatzen jakitea: "Adituak eman duen iragarpena eguraldi maparekin bat datorren jakiteko, eguraldi mapak interpretatzen jakitea garrantzitsua da. Bestalde, mendian gaudene-

an eguraldiak izan ditzakeen aldaketak interpretatzea inportantea da: zeruaren kolore aldaketak edo lainoen koloreak zer esan gura duen. Horretarako baliagarriak dira ikastaroak".

Gloria Latasa > Klimatologian aditua

"Informazio onarekin ezusteak ekidin daitezke mendian"

M.B. > ARRASATE

Mendira goazenean ahalik eta arrisku gutxien izateko aholku batzuk eman dizkigu Gloria Latasak.

Mendira goazenean zer hartu behar dugu kontuan?

Egingo duen eguraldiaren gaineko gutxieneko informazioa beharrezkoa da, edozein mendira

joateko. Informazio onarekin ezuste asko ekidin daitezke.

Eguraldi onarekin irten baina bat-batean giroa okertzen bada, zer egin beharko genuke?

Taldean bagoaz, guztiok elkarrekin egon. Ahal bada, galdu aurreko lekura itzuli, eta laguntza eskatu.

Neguan egoten diren istripuak ekidin daitezke?

Bai. Batzuek ez dute mendia ezagutzen eta beste batzuek konfiantza handiegia izaten dute. Mendian ibiltzeko baldintza txarrak badaude, hobe da etxean geratzea, mendia ondo ezagutzen edo mendi adituak garela uste badugu ere.



GOIENKARIA

Abantailaz
betetako kluba!

Goiena
kluba

MAIATZEKO ZOKETA

Telefonoa: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com
Kuota: 45 euro



ARRIKRUTZERA BI SARRERA

Bidali KLUBA SARRERAK
[Bazkidearen zenbakia]
5195 zkra.



UMEENTZAKO LIBURUAK

Bidali KLUBA LIBURUAK
[Bazkidearen zenbakia]
5195 zkra.



ELHUYAR-EN PANPINA ETA JOKUA

Bidali KLUBA PANPINA
[Bazkidearen zenbakia]
5195 zkra.



elhuyar.org/zoozoraa



SKUNK-FUNKEKO KAMISETA

Bidali KLUBA KAMISETA
[Bazkidearen zenbakia]
5195 zkra.



MUNDUMIRAKO MATERIALA

Bidali KLUBA MUNDUMIRA
[Bazkidearen zenbakia]
5195 zkra.



SARI NAGUSIA APIRILA-EKAINA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOKETATUKO DA
GAU 1 TXOPEBENTA LANDETXEAN



Maiatzean 20 urte beteko ditugu;
Estatuko lehenengoak izan ginen.

- Tel. 94 625 49 23 / 629 45 50 79
- Basetxeta Auzoa.
- Gautegiz-Arteaga (Bizkaia)
- www.nekatur.net/txohebenta
- www.toprural.com

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZA mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena
Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu
bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotatik sartzeko, haiek
zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

FILM LABURRAK > ATZEGIREN FILM LABUR LEHIAKETA

Film labor onenaren saria, Aratzendako

NEREA MENOR > ARETXABALETA

Atzegik antolatzen duen 3. film laburren lehiaketako irabazlea izan da Aratz, Aretxabaletako Atzeratuen Aldeko elkarteak. *Are-Baleko Sekretua* izeneko lana aurkeztu zuten aretxabaletarrek, eta, aurreko edizioan moduan, sari nagusia irabazi dute oraingoan ere. "Poz handiz hartu zuten berria", adierazi digu Jokin Antxiak, elkartearen arduradunak.

1.500 euro irabazi dituzte, eta talde osoa Gorgonzolara (Italia) joango da. Gainera, hiri hartan

urrian egingo den *Festival de Cinema Nuovo*-ren VI. ediziora aurkeztuko da.

ETXEKO LANA

Fikziozko film laburra egin du taldeak, eta taldeko kideak protagonistatzat hartu. Irakurtzen dabilen liburu barruan sartu eta bertako pasadizoak bizi izango dituen lagun baten istorioa kontatzen digute film laburrean. "Etxeko lana izan da guztia", dio Antxiak. "Kamera lanekin eta gidoiarekin laguntza izan dugu, baina elkar-

teko 16 lagunek egin dituzte protagonista lanak".

"Gure helburua ondo pasatzea zen, guztion artean zerbait egin eta barre egitea", dio arduradunak.

LEHIAKETA

Aurkeztutako lanek urritasun bat duten pertsonak etorkizunetan nola biziko diren erakutsi behar zuten; eguneroko bizimoduaren moldatzeko eta parte hartzeko behar dituzten baliabideak jarriko dizkien gizarte baten.



Aretxabaletako Aratz taldekoak, txapela eskuan dutela.

ARATZ

MUSIKA > KONTZERTUA

Alos Quartet hari laukoteak joko du domekan Oñatin

N.M. > OÑATI

Alos Quartet laukoteak emanaldia egingo du domekan Oñatiko Musikaldiaren hirugarren jardunaldian. 11 pieza eskainiko dituzte Santa Ana antzokian, 19:30ean egingo duten kontzertuan.

Biolina, biola, biolontxela, nyckelharpa eta kalinba erabilita musika estilo asko lantzen dituzte taldeak. "Gaur egungo musikaren esparru zabal eta askotarikoa jasotzen da taldearen errepertorioan, hari laukote klasikoaren ikuspegi berri bat erakutsita", dio taldeak bere musikaren gainean.

IBILBIDE HANDIKO MUSIKARIAK

Xabier Zeberio, Francisco Herrero, Lorena Nuñezek eta Pello Ramirezek osatzen dute Alos Quartet taldea. Ospe han-

diko askotariko orkestratan lan egiteaz gainera, kideak folk taldeetako kide ere badira: Oskorri eta Benito Lertxundiren taldekoak, adibidez.

1999tik 2004ra bira berezia egin zuten Dulce Pontes abeslari portugaldarrarekin. Beste talde batzuekin elkarlanean egingo dako hainbat grabazio ere azpimarragarriak dira: Bide Ertzean, Ken Zazpi, Rafa Rueda eta Los Piratasekin.

2004an aurkeztu zuen taldeak lehen lana, *Alos Quartet* izenekoa, eta iaz azkenekoa, *10 tanta*: "Energiaz betetako lan berria". Sorpresaz betetako diskoa da, eta Angolako Waldemar Bastos kantariarekin lankidetzan egindako abestia da horren adibide.

> OPERA

Mozarten opera ezagunenak umeendako ikusgai

Aretxabaletako Arkupe kultura etxean *Mozart gogoan* ikuskizuna eskainiko dute etxi, 19:00etan. 5 urtetik gorako haurrendako eta haien gurasoendako antzezlan da, Andoni Barañoren arabera –Opera Divertimento konpainiako kidea.

Ordubete inguruan konpositore austriarraren askotariko operak eskainiko dituzte, bakoitzeko zatirik alaiena eta dibertigarrienak hartuz, saioa erakargarriagoa eginez. Azkena *Txirula magikoa* izango da, konpositorearen lanik ezagunenetarikoa.

Mozarten operak aukeratu dituzte oso aproposak direlako umeendako; hala uste du, behintzat, Barañok. Gainera, erraz asimilatze modukoak ei dira.

MUSIKA > ELKARTASUNA

Or2tan eta Grupo Sanjuanek joko dute etzi Elgetan

Sarrerengatik jasotako dirua Ipar Euskal Herriko ikastolei laguntzeko bideratzea erabaki dute taldeek; sarrera bakoitzak 5 euro balio du

MIRIAN BITERI > ELGETA

Etzi, domeka, arratsaldean Aretxabaletako bi talde igoko dira Elgetako Espaloia antzokiko taula gainera: Grupo Sanjuan eta Or2tan. Antolatzaileek azaldu digutenez, 19:00etan hasiko den emanaldi horretarako aretoa txukundu egingo dute, *salom pop* bat moduan. Horrekin batera, jakinarazi digute sarreretatik jasotako dirua Seaskarendako, Ipar Euskal Herriko ikastolak biltzen dituen elkartearendako izango



Grupo Sanjuan eta Or2tan musika taldeko partaideak.

JOSU SARASUA

dela. Bakoitzak 5 euro balioko du eta bazkideek 3 euro ordaindu beharko dituzte (gainerako bi euroak Espaloiak berak jarriko

ditu Iparraldeko ikastolen elkarteari laguntzeko).

Jazz, folk eta funk estiloekin tartekatuz, pop-rock kantuak

entzungo dituzte domekan antzokira joaten direnek. Or2tan taldea Oier Sarasuak (gitarra, klarineta, saxoa eta didjeridua),

Txus Gutierrezek (gitarra), Andoni Aranak (gitarra), Iker Iglesias (baxua) eta Iban Peñakobak (bateria) osatzen dute. Eskarmen-tudun musikariak batu dira talde horretan; Liken taldeko hiru partaide eta Txus Gutierrezen elkarlanetik sortutako esperimientua da. Doinu instrumental orijinal eta berritzaileak egiten dituzte, eta erritmo eta harmonia aldaketak ere egiten dituzte. Solok ere pisu handia dute, eta, horretarako, askotariko tresnak erabiltzen dituzte.

DISKO AZKARRENA

Igor San Juan buru duen taldeak, ostera, hainbat agerraldi egin ditu Debagoienean (besteak beste, Danbakako III. edizioan parte hartu zuen). Igor San Juan (gitarra eta ahotsa), Josu Sarasua (bigarren gitarra), Aitor Monedero (baxua), Jokin Vitoria (bateria) eta Mikel Azkaratek (saxoa) osatzen dute hori.

Yago Goronaeta > Cool Circus taldeko gitarra jotzailea

"Entzun duen jendeari asko gustatu zaio lana; gero, ikusi egin beharko da daukan harrera"

M.B. > ARRASATE

More circus than ever. Cool Circustalde arrasatearraren disko berriaren izenburua da. Asteon kaleratu duten bigarren lanaren gainera hainbat datu eta zehaztuta dituzten kontzertuen berri eman digu taldeko gitarra jotzaile Yago Goronaetak.

Zer topatuko dute zaleek diskoan?

Rock-and-roll garbiena. Musika mota aldetik, batetik, ZZ Top eta Aerosmith taldeen ukitua du, eta bestetik, baita Hellacopters eta Dictatorsen ukituak ere.

Zenbat kantu daude?

2010eko martxoan Elkarren grabatutako bederatzi abesti ditu; gainera, 2008an biniloan grabatutako beste lau kantu sartu ditugu lan honetan. Dagoeneko kalean dago, astelenean heldu zen eta dendetan dago salgai. Arrasaten, esaterako, Nothing Withouth



Yago Goronaeta.

dendan eta Iluntz tabernan aurki daiteke; Eskoriatzan eta Armaion ere salgai jarri dugu. Horrez gain, kontzertuetan erosteko aukera ere egongo da.

Kontzertu hitza aipatu duzu. Noizko lehenengoa?

Hilaren 28an Azpeitian joko dugu. Debagoienari dagokionez, Arrasaten sanjuanetan aurkeztuko dugu diskoa; ekainaren 26an izango da, txosnagunean. Ekainaren 29an, berriz, Eskoriatzako jaietan izango gara.

Pozik emaitzarekin?

Bai. Bihotza eta odola utzi dugu honetan. Hasiera batean, bukatzen duzunean, egia esan, ez dakizu gustatzen zaizun edo amorrua ematen dizun. Ase zaude, mila bider jo duzu eta, gainera, grabazio prozesua estresagarria denez, abestiarekin amaitzen duzunean ez dakizu ondo dagoen edo ez. Denborarekin, dena dela, ikusi dugu soinu ona daukala. Gainera, entzun duen jendeari asko gustatu zaio. Harrera ona izango duela ematen du; baina gero ikusi egin beharko da.

MUSIKA > DISKO AURKEZPENA

Legen Beltza Bergaran eta Arrasaten dago asteburuan

M.B. > BERGARA

Legen Beltza musika taldeak *Need to suffer* izeneko diskoa aurkeztuko du egunotan Debagoienean. Gaur, egubakoitza, Bergarako gaztetxean joko du thrash-death metal laukote azpeitiarrak, 22:00etan, Dark Code, Childrain eta DJ Lenirekin batera.

Bihar, berriz, Arrasateko 3 aretoan egongo dira gipuzkoarrrak, 23:00etan. Kasu horretan ere beste talde batekin joko dute; hain justu ere, Darkness by Oath talde arrasatearrarekin. Kontzertu horretarako sarrerak 8 euro balio du.


DISKO AZKARRENA

Ibilbide luzea du Legen Beltzak agertoki gainea. 1996an lokal batean entseatzen hasi zenetik gaur arte, sei disko kaleratu ditu. Kaleratu duen lan berria inoiz atera duen disko azkarre-

na, gogorrena eta ilunena da. Baina, oraingoan, soinu berritzaileagoarekin dator Joseba Azkuek (baxua), Xanti Rodriguezek (ahotsa), Iban Hernandezek (bateria) eta Ekaitz Garmendiak (gitarra) osatzen duten taldea. Autoeditatutako diskoa da, eta nahasketa eta masterizazio lanak Andy Classen teknikari alemaniarraren eskutik datoz. Belphegor, Dew Scented eta Legion of the Damned taldeekin lan egin duen teknika-ria da Classen.

SEI DISKO KALEAN

Disko berriko abestiak jotzeaz gain, aurreko lanetako kantuak ere entzun ahal izango dituzte zaleek Bergaran eta Arrasaten: hain justu ere, *Ziztu bizian* (1998), *Istoria triste bat* (2001), *Insanity* (2003), *Total insanity* (2004) eta *Dimension of pain* (2006) diskoenak.



MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA

AURREMATRIKULA: maiatzak 31tik ekainak 11ra
ATE IREKIAK: maiatzak 29, 11:00etan

Ibargarai, 1
20570 Bergara
943 76 38 40/943 76 24 91

Ordutegia

08:00etatik 14:30era
15:30etik 19:00etara

www.imaltuna.com
imaltuna@sarenet.es



Ane Sanz de Galdeano > Igerilaria

"Postu ona lortzea espero nuen, baina ez Euskadiko txapelduna izatea"

Aloña Mendi taldeko junior mailako igerilaria dugu Ane Sanz de Galdeano. Martxoan jokatu zen Euskadiko igeriketa txapelketan oñatiar gazte horrek urrezko eta brontzezko dominak lortu zituen: 50 libreetan urrea eta 200 libreetan brontzea. Baina igeriketan ez ezik, futbolean ere jokatzen du. Horrez gain, DBHko 4. maila egiten dihardu.

NAROA ODRIÓZOLA > OÑATI

Igeriketa eta futbola ditu gustuko Ane Sanz de Galdeanok, eta ordu dezente eskaintzen die. Igeriketan esfortzuaren emaitzak ikusi ditu; izan ere, 50 libreetan junior mailako Euskadiko txapeldun berria dugu Sanz de Galdeano. Harekin izan gara bizi izan duen esperientziaz hitz egiteko.

Lehenik eta behin, zorionak, Euskadiko txapelketan emaitza bikainak lortu zenituen-eta. Zer sentitzen da txapelduna izanda?

Eskerrik asko. Euskadiko igeriketa txapelketa Getxon izan zen martxoan eta oso pozik nago bertan lortutako emaitzekin. Askok entrenatu naiz hori lortzeko, eta, gainera, adinean eta mailan gora egin ahala, geroz eta zailagoa da dominak lortzea. Postu ona lortzea espero nuen, baina lehenengoa izatea ez nuen espero. Gainera, 50 libreetan urrezko domina lortzeaz gain, 200 libreetan brontzezko domina irabazi nuen.

Zenbat urte daramatzazu igeriketa egiten?

Txikitan aitarekin joaten nintzen igerilekura. 4 urterekin ikastaro batera apuntatu ninduten eta ordutik hona egiten dut igeriketa. Gutxi gorabehera, 12 urte daramatzat kirol hau egiten. Gaur egun, Aloña Mendi taldeko igerilaria naiz eta junior mailan nago.

Zer-nolako entrenamenduak izaten dituzu?


Igeriketa kirol gogorra da eta asko entrenatu behar da. Ordu eta erdiko entrenamenduak egiten ditugu egunero, astelehenetik egubakoitzera. Entrenamenduko, 3.000 metro egiten ditugu. Txapelketen garaia heltzen denean, oraindik eta gogorragoak izaten dira entrenamenduak. Gainera, askotan, goizeko seietan entrenatu behar izaten gara.

Noiz izango da hurrengo txapelketa?

Nire hurrengo erronkak uda parteko Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketak dira. Ordura bitartean, herri ezberdinetan antolatzen diren sarietan parte hartuko dut.

Espainiako txapelketara joango zara?

Ez, Espainiako txapelketara ezin izango naiz joan, oraindik ez dut-eta minimorik lortu. Hau



ARANTZAZU EZKIBEL

PERTSONALA

Herria: Oñati. **Adina:** 16 urte. **Ikasketak:** Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren maila egiten dihardut Zuazola-Larraña institutuan. **Zaletasunak:** Igeriketa, futbola, lagunekin irtetea... **Liburu gomendagarri bat:** Carlos Ruiz Zafonen edozein.

Ikusitako azken filma: Allen Coulterren *Recuerdame*. **Igeriketa estilo bat:** Estilo librea (crawl). **Amets bat:** Igeriketarekin aurrera jarraitzea. **Gustuko herri bat:** Oñati. **Oñatiko lekuri gustukoena:** Oñatiko edozein leku dut gustuko.

da, Espainiako txapelketara joateko ez da nahikoa Euskadiko txapelketa irabaztearekin; gutxieneko marka egin behar da. Hala ere, udan izaten da Espainiako txapelketa eta ordurako espero dut gutxieneko marka egitea.

Zure ustez, zeintzuk dira bakarkako kirolen alde on eta txarrak?

Bakarkako kirolekin, nik zerbait gaizki eginez gero, nire errua da eta ez beste inorena. Eta hori alde ona da. Alde txarrari dagokionez, berdina izango litzateke: hau da, irabazten badut, nik bakarrik disfrutatzen dudala. Adibidez, erreleboetako proban irabazten badugu, talde osoak irabazten du eta guztiok disfrutatzen dugu garaipenaz.

Igerilaria izateaz gain, futbolaria ere bazara.

Bai, badira urte batzuk futbolean jokatzen dudana. Aloña Mendi taldeko kadete mailako jokalaria naiz.

Zein kirol eskaintzen diozu denbora luzeagoa, futbolaria ala igeriketari?

Igeriketari eskaintzen diot denbora luzeagoa. Izan ere, entrenamendu handia eskatzen duen kirola da. Futbolean, bi orduz bakarrik entrenatzen naiz. Gainera, igeriketari lehentasuna ematen diot. Hau da, igeriketa txapelketa eta partidua baditut, txapelketara joaten naiz.

Zein duzu gustukoena?

Desberdinak dira eta biak ditut gustuko. Hala ere, bat utzi behar izanez gero, futbola utziko nuke lehenengo. Baina, oraingoz, biak egiten jarraitzeko asmoa daukat.

Nondik ateratzen duzu denbora guztia egiteko?

Antolaketa kontua da. Izan ere, orduak antolatuta, gauza guztiak egiteko denbora topatzen dut.

Ikasketei dagokienez, zer ari zara egiten?

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren mailan nago, eta, oraingoz, ondo doaz ikasketak.

Instrumenturik jotzen duzu?

Orain ez. Lehen, akordeoia jotzen nuen, baina denbora faltatik utzi egin behar izan nuen. Egun, etxean jotzen dut, noiz behinka, baina oso gutxitan.

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Beheko auzoan etxebizitza salgai. Bi logela, sukaldea, bainugela eta egongela. Oso eguzkitsua. 654 98 69 02.

Antzuola. Etxebizitza salgai erdialdean. Eguzkitsua. 2004ko uztaillean eraikia. Bi logela, egongela, komun bat eta sukaldea jantzita. Balkoia. Garajea aukeran. Galdetu Loreagatik. 659 66 02 55.

Aretxabaleta.Etxebizitza salgai erdialdean. 72 metro koadro eraikigarri. Hiru logela, sukaldea, egongela, komun bat eta sukaldea jantzita. Balkoia. Garajea aukeran. Galdetu Loreagatik. 659 64 67 38.

Arrasate. 110 metro koadroko duplex polita erdialdean, guztiz jantzita. Bi logela (hiru egiteko aukera), bi komun, egongela eta sukaldea. Guztiz berrituta. Berehala bitzitzeko aukerarekin. Prezio oso interesgarria. 659 64 67 38.

Arrasate. 110 metro koadroko duplex polita erdialdean, guztiz jantzita. Bi logela (hiru egiteko aukera), bi komun, egongela eta sukaldea. Guztiz berrituta. Berehala bitzitzeko aukerarekin. Prezio oso interesgarria. 673 32 78 91.

Arrasate. Etxebizitza salgai Udalaitz dorrean. Azalera erabilgarria 94 metro koadro gehi 11 metro balkoi. Hiru logela, bainugela bat, komuna, sukalde berriztatua, egongela eta trasteleku ederra sukalde ondoan. Bi igogailu. Oso eguzkitsua, den dena kanpoaldera begira. Gara-je itxia aukeran. 634 44 96 42.

Luz Saint-Sauveur (Frantziako Pirinioak). Etxebizitza salgai. Duplexa. Jantzia. 670 49 84 28.

Oion (Arabako Errioxa). 90 metroko etxebizitza saldu edo errentan ematen da. Dena kanpoaldera eta hego-mendebalde- ra begira. Jantzia. Erdigunean. Sukaldea, hiru logela (nagusia komun eta jantzigelarekin), bi komun, 25 metroko egongela eta bi terraza. 15 metroko ganbara. Igogailua. Gasoil berokuntza indibiduala. 665 70 28 06.

Oñati. Lope Agirre kalean 110 metro koadroko duplexa salgai. Sukaldea, egongela, 4 logela eta 2 komun. 372.000 euro. Deitu 659 53 87 62 telefonora.

Oñatiko Enpresa Zientzien campus berriatik hurbil. Estreina- tzeo. Azken solairuan, ikus- pegidun etxe tasatu berri oso eguzkitsua: 90 metro koadro gehi 20 metro koadroko gara- jea. Diseinu onekoa. Igogailua- rekin. 224.216 euro (BEZ barik). Informazio osorako deitu. 943 78 27 07.

Salou (Tarragona). Etxebizitza salgai edo errentan. Erdigune- an. Hondartzatik 150 metrora. Kanpoaldera eta hegoaldera begira. Sukalde-egongela, bi logela bikoitz horma-armairue- kin, komuna eta 15 metroko terraza. Aire girotua (hotza eta beroa). Jantzia. Leiho bikoitzak. Bi igogailu, igerilekua, aparka- lekua. 665 70 28 06.

Valentzia. Etxebizitza salgai hiri erdigunetik 4 kilometrora (Port Saplaya). 75 metro koadro. Sarrera, jangela-egongela, bi logela, bi komun, terraza, igo- gailua eta komunitateko igeri- lekua. Hondartzatik 200 metro- ra. 200.000 euro. 635 75 09 47 edo 676 51 80 58.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. 40 metro koadroko apartamentu berria erdigune- an. Guztiz jantzita eta kapritxo- soa. Aukera bikaina bikote edo pertsona bakarrearentzat. 943 85 06 23.

Benicarlo (Castello). Etxebizitza ematen da errentan hondartza- ko lehen lerroan. Zortzi perso- narendako lekua. Hornitua eta erosoa. 620 41 97 53 edo 964 46 50 05.

Eskoriatza. Etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, sukal- dea, jangela, egongela, bi komun eta trastelekua. 605 77 51 65 edo 943 71 48 65.

Luz Saint-Sauveur (Frantziako Pirinioak). Etxebizitza ematen da errentan udarako. Deitu 670 49 84 28 telefonora.

Oñati. 99 metro koadroko etxea ematen da errentan San Loren-

tzo auzoan. 4 logela, 2 komun, jantzitako sukaldea, egongela handia, garagea eta ganbara. Sukaldea, komunak eta lehio- ak berrituak. Eguzkitsua eta bista ederrak dauzka. 687 00 54 79.

Oñati. Hiru logelako etxea erren- tan. Bi bainugela, sukalde jan- tzia, egongela, bulego txikia, bi balkoi eta gas naturaleko bero- gailua. Laugarren solairua, igo- gailuarekin. 677 21 21 62.

Peñiskola. Apartamentuak errentan. Hamabostaldika. Bi logelakoak. Guztiz jantziak eta hornituak. Hondartzatik 50 metrora. 948 41 00 79 edo 616 95 04 00.

104. ERRENTAN HARTU

Mediterraneo aldean 4-6 per- sonendako etxebizitza hartu- ko genuke errentan abutzuan. 653 01 76 67.

105. ETXEA K OSATU

Arrasate. Bi ikasle behar dira etxebizitza osatzeko 2010-2011 ikasterterako. Uriburu kalean, uniertsitateik gertu. Prezio interesgarria. 699 49 87 89.

Arrasate. Etxea osatzeko gela bat dugu errentan. Deitu 630 71 35 83 zenbakira.

Arrasate. Logela hartuko nuke errentan, prezio onean. Miguel. 943 79 74 13.

Bergara. Etxea osatzeko pertso- na bat behar da San Antonion. Terraza handia eta berogailua. 646 32 94 38.

Bergara. Gela baten bila nabil, errentan hartzeko. Deitu 699 66 33 63 telefonora.

Bergara. Logela bat ematen da errentan, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. 230 euro hilean. Natalia. 670 85 86 68.

Eskoriatza. Pertsona ardura- tsua behar dugu etxebizitza osatzeko. Etxe berria da eta erdi- gunean dago. 650 82 83 48.

Logelak, Erasmus ikasleenda- ko. Irailaren hasieratik Gabonak arte Mondragon Unibertsitate- an ikasten egongo diren atze- rriko ikasleentzako logelak behar dira. 656 77 66 32.

106. BESTELAKOAK

Trukea. Exeterren (Ingalaterra- ko kostaldean) dagoen etxe bat eskaintzen dugu Gipuzkoako kostaldean dagoen beste baten truke. Abuztuaren 9tik 26ra bitartean. Informazio gehiago: *terrasti@gmail.com* edo 637 52 89 83 telefonoa.

2/ GARAJEAK

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Garaje bat alokatzen da unibertsitateik oso gertu (Usaetxe enparantzan), 60 euro hilean. *soliveira@hotmail.es* edo. 678 53 82 48.

Bergara. Boni Laskurain kale- an, Santa Marina parean, gara- je itxia ematen da errentan. 652 77 52 26.

204. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Garaje itxia hartuko nuke errentan Arrasate pasea- lekuan edo San Andresen. 652 77 13 77.

3/ LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

ELORRIO

Tanger jatetxea errentan ematen da jubilazioagatik. 2005ean berritua

94 682 00 52

IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera utzerik ere.

943 25 05 05

sailkatuak@goiena.com

www.goiena.net/sailkatuak

PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:

ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU.GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU/ALOKATU. GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 20 € (BEZ BARNE).

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Txistularia behar da ekainean ospatuko den ezkontza batera- ko, Debagoienean. Deitu 650 23 34 98 zenbakira.

402. ESKAERAK

20 urteko mutila prest nagusiak zaintzeko, egunero ordu batzuk. Esperientzia daukat. 609 98 02 52.

Arrasate. 20 urteko mutila ger- tu eraikuntzan, garbiketan edo zerbitzariaritzeko. 619 78 63 41.

Arrasate. Emakumea gertu sukaldean lagundu, plantxa edo garbiketak egiteko, orduka. 647 16 40 49.

Arrasate. Emakumea, 51 urte- koa, gertu pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. 943 79 60 89.

Arrasate. Gizona gertu garbike- tak egin, nagusiak zaindu edo sukalde laguntzaile lanetarako. 634 84 41 94.

Arrasate. Neska gertu etxean bertan bizi izaten lan egiteko. 679 04 42 68.

Arrasate. Zerbitzari edo garbi- keta lanak egingo nituzke. 619 78 63 41.

Bergara. Emakumea gertu hau- rrak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko. 610 34 97 88.

Bergara. Paperak dituen ema- kumea pertsona nagusiak zain- du edo etxeko lanak egiteko ger- tu. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. 606 64 16 09.

Debagoiena. 27 urteko mutila gertu sukaldari lanetarako. 689 68 56 81.

Debagoiena. Bertako esperien- tziadun neska gertu nagusiak zaintzeko, ospitalean gauak egi- teko eta sukalde laguntzaile lanetan jarduteko. 637 18 07 23.

Debagoiena. Emakumea etx- ez etxe pedikura eta manikura egi- teko prest. 10 euro. 654 79 07 58.

Debagoiena. Emakumea gertu dago pertsona edadetu- en zain- tza lanak egiteko eta baita edo- zein garbiketa lanetarako. 691 03 25 02.

Debagoiena. Emakumea gertu garbiketa lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Etxean ber- tan bizi izateko eta aste buka- eretan lan egiteko gertu. 699 60 91 90.

Debagoiena. Emakumea gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka edo etxean bertan bizi izateko prest. 650 67 16 47.

Debagoiena. Esperientziadun mutila gertu nagusiak zaindu edo zerbitzari lanetan jardute- ko. Ordu-tegi malgua. Deitu 646 07 79 60 telefonora.

Debagoiena. Esperientziadun neska umeak zaindu, nagusiak zaindu edo etxeko lanak egite-

ko gertu. Orduka edo etxean ber- tan bizi izatean. 689 88 97 66.

Debagoiena. Gizona edozein lan egiteko gertu. 645 72 92 87.

Debagoiena. Mutila gertu edo- zein lan egiteko. 689 93 58 41.

Debagoiena. Neska gertu etxe- an bertan bizi izaten lan egite- ko. Maria Mercedes. Deitu 680 60 18 24 telefonora.

Debagoiena. Neska gertu nagu- si edo umeak zaintzeko. Hilean 250 euro. Deitu 14:00etatik 15:00etara edo 17:00etatik 19:00etara. 943 53 29 18.

Debagoiena. Neska lanerako gertu. Umeak zaindu, garbike- ta lana edo jatetxeetan lan egi- teko. 600 24 58 27.

Debagoiena. Pintore edo taber- nako zerbitzari lan egiteko ger- tu nago. 697 88 35 62.

Debagoiena. Sei urteko espe- rientzia dut nagusiak zaintzen eta etxean lo egiten edo egu- nean zehar lan egingo nuke. Bes- telako lanetarako ere gertu nengoke. 638 89 98 60.

Debagoiena. Tabernako zerbi- tzari moduan urte askotan ibi- litakoa naiz. Herriko jaietan edo astebukaeretan lan egingo nuke. Edorta. edortamendi@yahoo.es. 617 89 41 03.

Oñati. Emakumea gertu nagu- siak zaintzeko. Trukean logela bat hartuko nuke bizi izateko. 647 83 85 77.

Oñati. Umeak zaintzen ditut uztaillean; esperientzia handia. Neska eskualduna naiz, ikaslea. 651 70 85 13.

Zarautzen umeak zaintzeko prest nago, uztaillean. Neska arduratsua naiz. 609 98 02 52.

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

Bergara. DBHko 3. mailako muti- koak eskola partikularrak har- tuko lituzke udan. Deitu ondo- ko telefonora 21:00etatik 22:00etara. 943 76 03 75.

502. EMAN

Arrasate. Esperientziadun sukal- daria zure etxean bertan jana- ria prestatzen irakasteko ger- tu. 650 40 29 69.

Arrasaten 6-12 urte arteko ume- ei ekaina-uztaillean eskola par- tikularrak emateko prest. Esko- letan esperientzia dut. 635 75 05 26.

Bergaran Bergara. Ingeleseko. Elkarrizketa lantzeko eskola partikularrak ematen ditut. 654 94 87 26. 654 94 87 26.

Eskola partikularrak ematen dira Antzuolan, Lehen eta Biga- rren Hezkuntzan laguntza behar duten umei. 678 47 43 54 edo 943 76 50 97.

Eskola partikularrak. 6-12 urte arteko umei udan eskola par-

tikularrak emateko prest. Esko- letan esperientzia dut. Deitu 635 75 05 26 telefonora.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Ford Escort Atlanta 1,6 16V sal- gai. Oso gutxi gastatzen du eta egoera onean dago. 1.000 euro. Telefonoa: 670 49 60 97.

Honda CR motorra salgai. 250cc. 1995ekoa. Egoera onean. Kas- koa, botak eta kaballetea opa- ri. 1.400 euro. 645 72 25 24.

Suzuki Samurai 1.3 autoa sal- gai. Beste gorpil joko bat sal- gai. Egoera onean. 615 72 72 41.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Setter ingles txakurkumeak sal- gai Setter ingles arrazako txakurkumeak salgai. Ar bat eta eme bat geratzen dira. Oilago- rretarako. 200euro. Deitu 699 78 35 25 edo 943 77 04 80 tele- fono zenbakietara.

Txakurkumeak. Bi hilabete- ko txakurkumeak salgai. Ama artzain alemaniarra da. Etxea zaintzeko egokiak. Deitu 685 70 60 14 telefono zenbakira.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Bizikleta. Specialized Enduro. 2005ekoa. L neurrikoa. Shima- no SLX atzeko kanbioa, berria. Rock Shox Ario, blokeoarekin. Amortiguadore berriak. Egoe- ra onean. 600 €. 695 75 54 00.

Jangelako altzariak salgai. Egu- rrezkoak eta tapizatuak. Mahaia eta sei aulki. Eskuz grabatuta- ko aulkiak eta mahaia. Berriak dira. Etxean egon ezean mezua laga. Rosa. 943 76 55 50.

Kafetera profesionala Futur- mat-Ariete markakoa. Bigrupo- koa. 629 40 73 54.

Karro-denda. Inesca Dakota karro-denda salgai. Argazkiak ikusi nahi izanez gero, posta elektronikoz bidaliko dizkizugu. 685 72 05 90 edo 655 71 33 76.

Karro-denda salgai. Bi logela- koa eta oso egoera onean. 626 86 35 77 edo 943 76 14 35.

Kotxe-kapota salgai. Chico Trio kotxe-kapota eta aulkia. Egoe- ra onean. 637 00 01 58.

Larruzko bisofa salgai (2-3 per- sonarentzako), erreformak direla eta. Lau urtekoak. Horre- kin batera ordenagailuarentzat armairua, egongelarako mahaia (estreinatu gabea) eta beste elementu batzuk opari. 500 euro. 688 61 76 77.

Logelarako altzariak. Ohe egi- tura eta bigau-mahai, gerezion- do egurrezkoak, isplua eta koo- droak. Egoera ezin hobean. 300 euro. 626 71 98 17.

Mobil home-a salgai Aurizbe- rrin (Burguete). 6 pertsonaren- dako modukoa. 661 93 29 56 edo 661 93 29 57.

Ordenagailuko pantaila salgai. 23 hazbetekoa. Ia berria. 943 79 60 89.

Snow-taula. US-R40 markako snow taula, fizioak eta botak, dena 100 euroan. Egoera one- an. 671 92 06 49.

Telebista ete minikatea. Sony Trinitron telebista. 25 hazbete- koa. LTDa. Egoera onean. 90 euro. Minikatea, CD eta MP3are- kin. Erabili gabea. 45 euro. 648 13 11 51.

802. EROSI

Kutxa-izozkailua hartu edo ero- siko nuke, 125 volt-ean dabile- na. 699 86 87 29.

Sega-makina txikia erosiko nuke. Saltzeko baduzu, deitu zenbaki honetara, mesedez. 605 73 68 70.

803. EMAN

Irritikasetea. Technics etxekoa eta pletina bikoitzekoa. Opari ematen da. Arratsaldez deitu. 943 79 11 25.

Josteko makina. Egoera onean dagoen josteko makina ematen dut. 943 76 35 15.

Umeentzako kotxe-kapota, maxi-cosia, parkea eta taka- taka ematen dira opari Arrasa- ten. 943 71 25 79.

804. HARTU

Motxila. Umea mendira erama- teko motxila bat gustura har- tuko genuke. Zuen libre bada- go, deiezaguzue. 646 37 76 57.

Umeendako gurgildun maxi- cosia edo McLaren hartuko nuke. 688 68 18 76.

806. GALDU

Aretxabaleta. Hirusta inguruan umearen jertsea galdugenuen. Gorria eta txanoduna. Aurkituz gero, deitu, mesedez 656 41 00 08 telefono zenbakira.

Argazki kamera Arrasaten. Argazki kamera txiki digitala gal- du nuen joan den maiatzaren 8an, Erguinen edo Zaldirar inguruan. Zilar kolorekoa eta SUDC elkartearena da. Aurki- tuz gero, deitu, mesedez 943 79 42 65 telefonora.

Diru-zorroa galdu nuen Arrasa- ten apirilaren 29an (eguenen). Ekaitz taberna eta Arrasate pasealekua artean. Barruan paper batzuk eta USBa nituen. Aurkitu baduzu, deitu, mesedez, zenbaki honetara: 648 01 32 45.

Jertsea. Domeka goizean, Oña- tiko plazan, jertsea galdu nuen. Beltza da eta goitik beherako kremaileraduna. Norbaitek aur- kitu badu, mesedez, deitu ondo- ko telefonora: 688 61 73 60.

Patina (skatea) galdu genuen Aretxabaletan, Araba etorbi- dean dagoen autobus geltoki ondoan, apirilaren 25ean. 943 79 58 98 edo 618 49 28 56.

807. AURKITU

Audifonoa Antzuolan. Audifo- noa aurkitu nuen domekan, maiatzaren 9an, Lizarraga bide- an. Udaletxean utzi dut.

808. BESTELAKOAK

Bergara-Gasteiz Eguner, Ber- gara edo Arrasate ingurutik, Gasteizera (Ejie aldera) joate- ko kotxea konpartitzeko norbai- ten bila gabiltzal Gure ordu-te- gia: 8:00-14:30. 637 91 33 81.

9/ HARREMANAK

902. HARREMANAK

Mutil bila. 38 urteko mutila, 35- 40 urteko mutil (ez gizon) bila. Konplexurik gabea eta mendia, bizikleta zein afariak gustuko dituen aurkitzea gustatuko litzaideke. Bidali SMS bat zen- baki honetara: 699 89 58 38.

DEBA GARAIA

INMOBILIARIA

Telesforo Aranzadi 2

T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA

- Arrizuri, 97 m², garajearekin.
- Aranerreka, 80 m², oso ondo.
- Matxiategi, 88 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- San Lorenzo, 78 m², oso ondo.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m², berria, garajea aukeran.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Iparragirre, apartamentua, 40 m², berria, garajea eta trastelekua.
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Urdangarin pasealekua, 99 m² + ganbara, berritzeko.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Arte kale, 81 m², oso ondo.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 m²,
- San Antonio, 65 m², eguzkitsua.
- Masterreka, 46 m², eraikuntza berria.
- **Etxebizitza berrien erakuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubieta, Martokan eta San Lorentzon.**
 - Jatetxea erdialdean bezeroekin. Salgai edo errentan ematen da.
 - Basarte, 69 m². Oso ondo.
 - Toki Eder plaza. 54 m². Apart



GOIENKARIA

Martitzenean pilota finalak GOITBn ikusgai

Maiatzaren 24an jokatuko dira finalak. 23 urtetik azpikoetan, Antsotegi-Lanak Jauregi-Aizpururen aurka jokatuko dute eta nagusitan, Larrañaga-Huntoriak Gorka-Galarragaren aurka. Julen Iriondo eta Migel Etxaniz izango dira esatariak.

GOITB
> Martitzenean, 22:15



GOIENKARIA

Bergarako jaien gaineko saioak 'Magazinea'-n

Gaur, maiatzak 21, bergararrek hasiera emango diete Mendekoste jaiei eta bost egunez jai giroan biziko dira herritarrak. Horregatik, *Goiena magazinea*-k tarte zabala eskainiko die jaiei.

GOITB, 'Goiena magazinea'
> Astelehena, 19:45, 21:15
> Martitzena, 19:45, 21:15

astea GOITBn						
Egubakoitza, 21	Zapatua, 22	Domeka, 23	Astelehena, 24	Martitzena, 25	Eguaztena, 26	Eguena, 27
13:15 Marrazki bizidunak . 13:45 Euskaldunak hizketan. 14:15 Onein 14:45 Berriak. 15:15 Erreportajea: Euskararen aldeko manifestazioa Iruñean. 15:45 Jazz jaialdia. 16:15 Herriz-herri: Doneztebe 16:45 Berriak. 17:15 Marrazki bizidunak. 18:00 Ilunpean 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak. 19:45 Goiena Magazinea. 20:45 Gipuzkoa kultura. 21:15 Goiena Magazinea. 22:15 Bertso saioa: Osinalde saria 22:45 Erreportajea: Zegama-Aizkorri. 23:15 Klik. 23:45 Magazinea 00:45 Emisio amaiera.	08:00 Marrazki bizidunak. 10:30 Barrebusa. 11:30 Onein 12:00 Goiena Magazinea. 13:00 Eltze beroa. 13:30 Erloklip 14:00 28 Klip 14:30 Barrebusa. 15:30 Marrazki bizidunak. 18:00 Herriz-herri 18:30 Gipuzkoa Kultura. 19:00 Jazz emanaldia. 19:30 Zegama-Aizkorri. 20:30 Kulturzulo. 21:00 Ilunpean. 21:45 Erreportajea: Lea Artibai 22:15 Euskararen aldeko manifestazioa. 22:30 Euskaldunak hizketan. 00:00 Harmailatik. 00:30 28 klip. 01:00 Jazz jaialdia. 01:30 Emisio amaiera.	08:00 Barrebusa. 09:00 Marrazki bizidunak. 11:30 28 Klip. 12:00 Bertso saioa: Osinalde saria. 12:30 Zegama-Aizkorri. 13:00 Ikusmira: Gernikako bonbardaketa. 13:30 Onein. 14:15 Goiena Magazinea. 15:15 Gipuzkoa Kultura. 15:45 Marrazki bizidunak. 18:15 Barrebusa. 19:15 Erreportajea: Lea-Ibarra 19:45 Euskaldunak hizketan. 20:15 Zegama-Aizkorri. 21:00 Goiena Magazinea. 22:00 Sakonduz. 22:45 GipuzkoaKultura. 23:15 Kulturzulo. 23:45 Zaldi lasterketa. 00:15 Emisio amaiera.	13:15 Marrazki bizidunak. 13:45 Onein. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Berriak. 15:15 Erloklip. 15:45 Lekeitioko zine jaialdia 16:15 28 Klip. 16:45 Berriak. 17:15 Marrazki bizidunak. 17:45 Klik. 18:15 Erreportajea: Iparraldea XXI . 18:45 Ilunpean. 19:15 Marrazki bizidunak. 19:45 Goiena Magazinea. 20:45 Gernika Lumoko XV. Sprint Duatloia. 21:15 Goiena Magazinea. 22:15 Harmailatik. 23:00 Gipuzkoakultura. 23:30 Goiena Magazinea. 00:30 Emisio amaiera.	13:15 Marrazki bizidunak. 13:45 IparraldeaXXI. 14:15 Onein. 14:45 Berriak. 15:10 Harmailatik. 15:50 Gernika Lumoko XV. Sprint Duatloia. 16:20 Jazz jaialdia. 16:45 Berriak. 17:10 Marrazki bizidunak. 17:35 Kurtulzulo. 18:15 Gipuzkoakultura. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak. 19:45 Goiena Magazinea. 20:45 Iparraldea XXI. 21:15 Goiena Magazinea. 22:15 Ilunpean. 23:00 Klik 23:45 Goiena Magazinea. 00:30 Emisio amaiera.	13:15 Marrazki bizidunak. 13:45 Herriz- herri. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Berriak. 15:10 Ilunpean. 15:50 Bergara Hiria Pilota txapelketa. 17:45 Marrazki bizidunak. 18:15 Herriz-herri: Doneztebe. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak. 19:45 Goiena Magazinea. 20:45 Iparraldea XXI. 21:15 Goiena Magazinea. 22:15 Ilunpean. 23:00 Klik 23:45 Goiena Magazinea. 00:45 Emisio amaiera.	13:15 Marrazki bizidunak. 13:45 Erreportajea: Lea-Ibarra. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Berriak. 15:15 Gipuzkoa kultura. 15:45 28 klip. 16:15 Lekeitioko zine jaialdia. 16:45 Berriak. 17:15 Marrazki bizidunak. 18:00 Iparraldea XXI. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak. 19:45 Goiena Magazinea. 20:45 Euskaldunak hizketan. 21:15 Goiena Magazinea. 22:15 Gipuzkoakultura. 22:45 Bertso saioa: Osinalde saria. 23:20 Iparraldea XXI. 23:45 Goiena Magazinea. 00:45 Emisio amaiera.

arrasate irratia

FM 107.7

Zapatua
10:00 Asteko gainbegiratua.

Domeka
10:00 Asteko gainbegiratua.

Astelehenetik egubakoitzera
10:00-12:00 Igo Autobusera! Albistegia Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa) Astelehenetan Kirolak Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin) Udal Gazte Bulegoa Sexologia Zerbitzua Astearen errepasoa (GOIENKARIArekin) Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak Zozketak (egubakoitzean) Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (irratia@goiena.com edo goiena.net atarian, irratiko bloga) 12:05 Euskadi Irratiko albistegia 12:10 Musika 13:00 Euskadi Irratiko albistegia. 14:00 Igo Autobusera! (errep.) 17:00, 19:00, 22:00: Errepikapenak

guardiako farmaziak

ARRASATE

Zapatua, 22	Ruiz Perez	Nafarroa Etorbidea, 1	943 79 14 09
Domeka, 23	Etxeberria	Zarrugalde, 42	943 77 16 30
Astelehena, 24	Azkoaga	Ferrerias, 1	943 79 15 15
Martitzena, 25	Azkoaga	Iturriotz, 17	943 79 79 99
Eguaztena, 26	Fernandez	Maisu Aranberri, 1	943 79 22 26
Eguena, 27	Irizar	Erguin, 11	943 79 12 39
Egubakoitza, 28	Amezua	Santa Marina, 32	943 79 09 74

BERGARA

Zapatua, 22	Mozos	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Domeka, 23	Mozos	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Astelehena, 24	Urritikoetxea	Oxirondo Plaza, 4	943 76 11 74
Martitzena, 25	Zabala	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Eguaztena, 26	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05
Eguena, 27	Estella	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Egubakoitza, 28	Mozos	Iparragirre, 2	943 76 12 15

OÑATI

Zapatua, 22	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Domeka, 23	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Astelehena, 24	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Martitzena, 25	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Eguaztena, 26	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Eguena, 27	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Egubakoitza, 28	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28

ARETXABALETA

Zapatua, 22	Anitua	Belorrieta Auzoa	943 08 11 43
Domeka, 23	Anitua	Belorrieta Auzoa	943 08 11 43
Astelehena, 24	Juan Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Martitzena, 25	Juan Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Eguaztena, 26	Juan Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Eguena, 27	Juan Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Egubakoitza, 28	Juan Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2010eko egutegia.
Bidali FARMA 25600 zenbakira. Gehienezko kostua 1,39 € + WAP deskarga kostua, operadorearen arabera, Altiria TICek kudeatuta (www.altiria.es).

herritarrak galdezka

MUSIKA ESKOLAKO MATRIKULAZIO EPEA
Bergarako irakurle batek mezu bat bidali digu honakoa galdetzen: "Semea Musika Eskolan apuntatu nahiko nuke, baina ez dakit noiz zabaltzen den matrikulazio epea".

Bergarako Musika Eskolan izena emateko epea maiatzaren 28ra arte egongo da zabalik. Instrumentuak ikaste-ko eta musika eskoletarako eman daiteke izena. Izena Musika Eskolan bertan eman daiteke edo 943 76 57 80 zenbakira deituta, astelehenetik egubakoitzera, 15:30-19:30 ordutegian.

ARAMAIOKO JAIETAKO KARTEL LEHIAKETA
Aramaioko herritar batek telefonoz deitu digu honakoa galdetzeko: "Uztailaren 2tik 11ra bitartean San Martin jaiak ospatuko dira Aramaion. Noiz bukatzen da kartela aurkezteko epea?"

Lanak aurkezteko epea maiatzaren 31ra arte egongo da zabalik. Bertan, Aramaioko edozeinek parte har dezake; lan guztiek originalak izan behar dute eta, gehienez, pertsona batek bi lan aurkeztu ahal izango ditu. Adinaren arabera bi kategoria egongo dira.

Egiguzu galdera eta geuk egingo diogu dagiokionari.
• Telefonoz: 943 25 05 05 • Faxez: 943 25 05 12
• Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
• Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

eguraldia

DEBAGOIENEAN



Zapatua, 22

Asteburuan eguraldiak hobera egingo du. Zerua oskarbi egongo da zapatuan eta eguzkia izango dugu egun osoan. Tenperaturak gora egingo du.



Domeka, 23

Domekan eguraldiak ez du aldaketarik izango. Zapatuan bezala, eguzkia izango dugu nagusi. Tenperaturari dagokionez, mantendu egingo da.

EUSKAL HERRIAN

Asteburu eguzkitsua izango dugu. Zapatuan eguzkia izango da nagusi, eta baita domekan ere. Tenperaturak gora egingo du zapatuan, eta domekan berdin jarraituko du.





Aretxabaletako **Antonio Larrinagak** eta **Tere Barandiaranek** urrezko ezteiak egingo dituzte bihar. *50 urte elkar ez da gauza makala/ Bizitzako gorabehera denak gainditu eta gero/ Denontzako eredu da zuen bizitza/ Ziur gaude zuena betirako maitasuna dela.*



Oñatiko **osaba Iban** eta Zarauzko **izeba Aritza** gaur ezkonduko dira. Zorionak eta ondo ibili AEBetan. "Zoriontsu izan, baina ez ahaztu nik lehengusu bat gura dudala! Patxo handi bat. Asko maite zaituztegu".



Bergarako **Izaskun Arrese** eta Arrasateko **Jokin Algaba** bihar ezkonduko dira Labegaraietako elizan. Bazkaria Gure Ametsan egingo dute, eta ondoren itsas bidaia egingo dute. Zoriontsu izan zaitezte-la opa dizuegu lagunok!



Arrasateko **Ainara Madina-beitia** eta Aramaioko **Sergio Arias** bihar ezkonduko dira Arrasateko udaletxean. Bazkaria Zelai Zabalen egingo dute eta eztei-bidaian Thailandiara joango dira. Familiakoen eta Aramaioko koadrilakoen partetik, zorionak!



Bergarako **Aitor Sanchez** eta Elgoibarko **Vanessa Gonzalez** maiatzaren 8an ezkondu ziren Elgoibarko parrokian. Bazkaria Etxeberrin egin zuten eta oso ondo pasa zuten. Orain Australiandaude eztei-bidaiaz disfrutatzen. Zoriontsu izan, bikote!

hildakoak

- **Joaquin Martinez Feo.** Arrasaten, maiatzaren 5ean. 86 urte.
- **Juan Mendibil Maiztegi.** Bergaran, maiatzaren 5ean. 77 urte.
- **Angel Basauri Barrena.** Elgetan, maiatzaren 9an. 72 urte.
- **Eugenia Arruabarrena Imaz.** Arrasaten, maiatzaren 10ean. 85 urte.
- **Pedro Carricajo Sendin.** Bergaran, maiatzaren 10ean. 42 urte.
- **Rosalia Blanco Mansilla.** Eskoriatzan, maiatzaren 10ean. 101 urte
- **Jorge Sarasua Gandiaga.** Arrasaten, maiatzaren 10ean. 58 urte.
- **Genoveva Aranburu Kerejeta.** Oñatin, maiatzaren 11n. 96 urte.
- **Maria Jesus Aldai Astola.** Aretxabaletan, maiatzaren 11n. 59 urte.
- **Pablo Romero de la Cruz.** Arrasaten, maiatzaren 12an. 81 urte.
- **Florencio Baladron Hernandez.** Oñatin, maiatzaren 12an. 66 urte.
- **Felix Bikuña Arrazola.** Oñatin, maiatzaren 13an. 84 urte.
- **Mila Agirrezabal Larrañaga.** Bergaran, maiatzaren 14an. 59 urte.
- **Isidro Zubillaga Ugalde.** Arrasaten, maiatzaren 14an. 79 urte.
- **Pascual Bazanbide Izuburu.** Aretxabaletan, maiatzaren 17an. 93 urte.
- **Esther Lopez de Armentia Belunza** Aretxabaletan, maiatzaren 18an. 84 urte

ESKER ONA

Mila Agirrezabal Larrañaga

Bergaran hil zen 2010eko maiatzaren 14an, 59 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2010eko maiatzaren 21ean.

ESKER ONA

Felix Vicuña Arrazola

2010eko maiatzaren 13an hil zen, 84 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Oñatin, 2010eko maiatzaren 21ean.

ESKER ONA

Esther Lopez de Armentia Belunza

Jose Zugastiren alarguna

Aretxabaletan hil zen 2010eko maiatzaren 18an, 84 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Aretxabaletan, 2010eko maiatzaren 21ean.

OROIGARRIA

Mila Agirrezabal Larrañaga

Bergaran hil zen 2010eko maiatzaren 14an, 59 urte zituela.

Zure eskutik erreza izan da bidea, muxu handi bat zuretzat, zaintzaile maitea.



Iosu eta Mariñe.
Bergaran, 2010eko maiatzaren 21ean.

OROIGARRIA

Marije Alday Astola

Aretxabaletan hil zen 2010eko maiatzaren 11n, 59 urte zituela.

Zu gurekin ez egoteak iluntasuna sortzen digu baina, ziur gaude hemendik aurrera argi egingo digun zeruko izarrik ederrena zu izango zarela.



Betirako zure lagunak:
Aurora, Arrate, Elena, Glori eta Rosa Mari.
Aretxabaletan, 2010eko maiatzaren 21ean.

OROIGARRIA

Rosalia Blanco Mansilla

Helduen Eskolako ikaslea

Eskoriatzan hil zen 2010eko maiatzaren 10ean, 101 urte zituela.

Asko ikasi dugu zuregandik. Eskerrik asko, Rosalia.



HELDUEK HEZIKETA IRAUNKORRA (H.H.I.)
EDUCACIÓN DE PERSONAS ADULTAS (E.P.A.)



EPA-HHI Helduen Eskolako irakasle eta ikasleak.
Eskoriatzan, 2010eko maiatzaren 21ean.

URTEURRENA

Emilia Lizarralde Guridi

Jesus Mondragonen alarguna

Arrasaten hil zen 2009ko maiatzaren 23an, 100 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzaren 25an, 11:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian ospatuko da.

Gure bihotzean izango zaitugu beti.



Elizkizunera joango zaretenoi, alde zuretik eskerrik asko sendikoen izenean.

Babeslea:



Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea

Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net



Maiatzak 21-27

LEIRE KORTABARRIA

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.

Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 13

Musika



OÑATI

> 999 punk talde klasikoak joko du gaur, egubakoitza, Errekaldeko jaietan

Errekaldeko jaiak ospatuko dituzte aste bukaera osoan; gaur, egubakoitza, garagardo festa (20:00) izango da, eta 999 talde ingeles aitzindariak joko du (21:30). Kañeria 13, The Lurkers, Golpe de Estado eta Bitz taldeek ere joko dute.

Antzerkia



ARRASATE

> 'ProtAgonizo' bakarrikzeta egingo du Ester Bellver aktoreak

Bere bizitzaren erreposoa egingo du aktore madrildarrak: haurtzaroa, gurasoak, errebistan hasitako lan ibilbidea, eta horrekin lotutako sentimenduak, beldurak... Hilaren 26an, eguaztena, izango da, Kultureteko areto nagusian, 19:00etan.

Ospakizunak



ESKORATZA

> Txomin Txapel eguna ospatuko dute unibertsitatean gaur, egubakoitza

Unibertsitatearen jaia ospatuko dute: olinpiadak (11:00), Txomin Txapel jaistea (13:00), trikipoteoa gero; bazkaria (14:30), kale-agerraldia (19:00) eta kontzertuak (22:00): Jeimon Turk Band, Egurre ta Kitto! eta The Convicts.

Erakusketak

BERGARA

> Bergara Hiria lehiaketako argazkiak, ikusgai

26. Bergara Hiria argazki lehiaketako lanak erakusketan ipiniko ditu Pol-Pol argazki taldeak. Tartean, zenbait bergararren lanak saritu zituzten, hauenak: Juan Jose Lopez Azurmendi, Jose Agustín Gurrutxaga, Felix Idigoras eta Joseba Leturia.

Aroztegi aretoan, maiatzaren 21etik 30era bitartean.

ARETXABALETA

> Lasarteko auto-zirkuituaren gaineko erakusketa

Kutxa Fototekako Fondoek antolatuta, Lasarteko auto-zirkuituaren gaineko erakusketa dago Arkupen.

Ordutegia: 11:00-13:00 eta 18:00-20:00; zapatuetan, 11:00-13:00; domeketan eta jaiegunetan itxita dago.

ARRASATE

> Ikusgai daude Jose Luis Zumetaren bi erakusketa

San Juan de Dios ospitale psikiatrikoko gaixoez egindako *Globo rojo* aldizkarian oinarrituta, Jose Luis Zumetak 38 serigrafiako erakusketa egin du, *Oi! Bihotz*. Hori ikusgai dago Kulturaten, hilaren 30era arte.

Bestalde, Arregi galerian Zumetaren beste zenbait lan ikus daitezke.

Kulturaten, maiatzaren 30era arte.

Musika

ARRASATE

> Legen Beltza eta Darkness by Oath taldeen kontzertua

Darkness by Oath talde arrasatearrak *Fear yourself* diskoko abestiak joko ditu kontzertuan. Gero, Azpeitiko Legen Beltza taldeak *Need to Suffer* diskoa aurkeztuko du. Kontzertua bukatutakoan metal festa izango da. Sarrera 8 euro da.

Bihar, zapatua, 3 aretoan, 23:00etan.

BERGARA

> Legen Beltza, Childrain, Dark Code eta DJ Lenimetal

Legen Beltza azpeitiarrek diskoa aurkeztuko dute kontzertuan. Horiekin batera, Childrain (Gasteiz), Dark Code (Bergara) eta DJ Lenimetal (Bergara) ere igoko dira agertokira. Sarrera doan da.

Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 23:00etan.

BERGARA

> Kontzertuak izango dira gauero Bergarako txosnagunean

Honako kontzertuak izango dira: Giza-proiektua, Klabo oxidado eta Emon (gaur, egubakoitza); Turbo shit, Governors eta Los Zopilotes Txirrius (bihar, zapatua); eta Napoka Iria eta Patinazo de Neurona (etzi, domeka).

Kontzertu guztiak Bideberrin, 22:30ean; domekakoa, 21:30ean.

ARRASATE

> Arrasate Musikaleko biolin-joleek kontzertua egingo dute

Banaka eta taldeka joko dute biolin ikasleek.

Hilaren 25ean, martitzena, tronpa eta tronpeta ikasleek egingo dute kontzertua.

Gaur, egubakoitza, parrokian, 19:00etan.

OÑATI

> Alos Quartet taldeak kontzertua egingo du etzi, domeka

Alos Quartet taldeak kontzertua egingo du. 1999an sortutako talde horrek musika klasiko nahiz modernoan ibilbide artistiko zabala duten musikariek osatzen dute. Besteak beste, Dulce Pontes, Oskorri, Kepa Junkera, Los Piratas, La buena Vida... talde eta musikariekin lan egin izan dute. Biolina, biola, biolontxelo, akordeoia, nyckelharpa eta kalinba joko dituzte.

Santa Ana antzokian, 19:30ean.

Ospakizunak

ARRASATE

> Andaluziako kultura astea ospatuko du Al-Andalusek

Andaluziako kultura astea itxiko du Al-Andalusek, honako egitarauarekin: gaur, egubakoitza, a play-back lehiaketa (22:30); bihar, zapatua, I. Al-Andalus domino txapelketa (16:00), galako afaria (21:00) eta *El Peli* umoristaren emanaldia (23:30); eta etzi, domeka, ate irekien jardunaldia, Aita Mennirekin elkarlanean (11:00)

PROPOSAMENA



BERGARA

> Gaur hasiko dira Bergarako jai nagusiak; barrakak eta txosnagunea zabalik geratuko dira

Gaur, jaitsiko da Bitorianatxo San Martin plazara (20:00). Barrakak ere zabalik geratuko dira (20:15) eta baita txosnagunea ere (20:30) eta kontzertua izango da. Bihar, goitibehera lehiaketa (12:00), bakailao lehiaketa (13:45) erremonteko partiduak (17:30) eta kontzertuak izango dira txosnetan (22:30) eta gaztetxean (23:00); domekan, txirrindulari lehiaketa jokatu da San Antoniotik hasita (09:30).

Bitorianatxo gaur jaitsiko da San Martin plazan, 20:00etan.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

MUSEO BAT BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO...

ERRUSIAR MENDIAREN SIMULAGAILUA

Sentsazio berriak frogatu nahi?

Errusiar mendiaren simulagailuan zirrara sentituko duzu eta Tranbia gidatzailean berriz zure abilezia neurtu.

Simulagailuen ordutegia: asteburu eta jai-egunetan 11:30etik-14:30era eta 15:30etik-19:00etara.



Informazio gehiago: www.miramon.org edota 943 012 478



Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramon.org

Ordutegia
Astelehenetan itxita.
Asteartetik ostiralera 10:00-19:00.
Asteburu eta jai-egunetan 11:00-19:00.

ARRASATE

> **Mila Carballok margo erakus-keta ipini du Harresi aretoan**

Mila Carballo donostiarrak bere margolanak erakusten ditu Iturriotz kaleko Harresi aretoan. Maiatzaren 30era arte dago ikusgai erakusketa.

Ordutegia: astelehenetik egubakoitze-ra, 18:00-20:00; zapatu eta jaiegunak, 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

BERGARA

> **Mari Carmen Laskurain bergararraren erakusketa**

Hil bukaerara arte, Mari Carmen Laskurain Loidi bergararraren 17 margolan ikusgai dira Nahikari tabernan. Paisaiak, natura hilak, loreak eta marinak dira.

Masterreka kaleko Nahikari tabernan.

Bestelakoak

ARETXABALETA

> **Zeru-behaketa publikoa egingo dute gaur, egubakoitza**

Loramendi elkarteak eta Ilatargi astronomia taldeak teleskopio batzuk ipiniko dituzte Herriko plazan, gura duenak erabil ditzan. Eguraldi txarra egiten badu, bertan behera utziko dute.

Gaur, egubakoitza, Herriko plazan, 22:00etan hasita.

ARRASATE

> **Ume eta gurasoendako jolas tradizionalak bihar, zapatua**

Txatxilipurdi elkarteak ume eta gurasoendako jolas tradizional saioa antolatu du. 3 eta 12 urte arteko umeei dago zuzenduta ekintza hori.

Bihar, zapatua, Santa Marinako ludotekan, 11:30etik 13:30era.

ARRASATE

> **Pastoralgileek topaketa eta hitzaldia izango dituzte**

Pastoralgileek topaketa egingo dute datorren egunean. Jose Ramon Trebiñok hitzaldia egingo die.

Hilak 27, San Andres aretoan, 17:30ean.

OÑATI

> **Txantxiku-joko txapelketa egingo dute gaztelekuan**

Antzinako txantxiku-jokoa berreskuratzeko asmoz, txapelketa antolatu dute gaztelekuan. Izenematea zabalik izango da txapelketa hasi arte.

Bihar, zapatua, 18:00etan.

OÑATI

> **Hiru Tenpluen ibilbidea egingo dute: Loiolatik Arantzazura**

Mundumirak eta Aloña Mendi elkarteak antolatuta, Hiru Tenpluen ibilbidea egingo dute bihar, zapatua.

Argibideak: 902 18 14 71.

ARRASATE

> **Erizaintzako laguntzaileen gaineko jardunaldiak**

Erizaintzako laguntzaileak gaur; etxez etxeko laguntza: oraina eta geroa jardunaldiak antolatu ditu Arizmendik hilaren 26rako. Izenemate epea bihar, zapatua, bukatzen da.

Argibideak: 943 77 20 25.

Zinema

ARRASATE	Prince of Persia Domeka: 20:00.	Rosa y negro 17:30, 20:00 (egubakoitze-tik domekara), 22:30 (egubakoitza, zapatua, eguaztena eta eguena), 18:00, 20:15 (astelehenetik eguenera).	Cómo entrenar a tu dragón (3D emanaldiak) 15:45 (zapatua eta domeka).
AMAIA ANTZOKIA	GASTEIZ	FLORIDA-GURIDI	Cómo entrenar a tu dragón 17:30.
En tierra hostil Domeka: 22:00. Astelehena: 19:30.	GURIDI	80 egunean (euskaraz, azpítituluekin) 18:00, 20:15 (egubakoitze-tik eguenera), 22:30 (egubakoitza, zapatua, eguaztena eta eguena).	Prince of Persia 15:45, 17:00 (zapatua eta domeka), 18:00, 19:15, 20:15, 21:30, 22:30, 23:45, 00:45.
Txori urdin Domeka: 17:00.	Iron man 2 17:30 (egubakoitzetik domekara), 18:00 (astelehenetik eguenera).	Yo soy el amor 18:00, 20:15 (egubakoitze-tik eguenera), 22:30 (egubakoitza, zapatua, eguaztena eta eguena).	Robin Hood 15:30 (zapatua eta domeka), 17:30, 18:30, 20:30, 21:30, 23:30, 00:30.
Let's get lost (J.B.A.) Eguena: 20:30.	Robin Hood 17:00, 19:45, 22:30 (egubakoitza eta zapatua), 17:00, 19:45 (domeka), 18:00, 20:30 (astelehenetik eguenera).	El pastel de boda 18:00, 20:15 (egubakoitze-tik eguenera), 22:30 (egubakoitza, zapatua, eguaztena eta eguena).	Noche loca 16:30 (zapatua eta domeka).
OÑATI	Viaje mágico a África 17:30 (egubakoitzetik domekara), 18:00 (astelehenetik eguenera).	Habitación en Roma 20:15 (egubakoitzetik eguenera), 22:30 (egubakoitza, zapatua, eguaztena eta eguena).	Océanos 15:50 (zapatua eta domeka), 17:50, 19:50.
KULTUR ETXEA	Un ciudadano ejemplar 20:00, 22:30 (egubakoitza eta zapatua), 20:00 (domeka), 20:15 (astelehenetik eguenera), 22:30 (eguaztena eta eguena).	Siempre hay tiempo 18:00, 20:15 (egubakoitze-tik eguenera), 22:30 (egubakoitza, zapatua, eguaztena eta eguena).	Alicia en el país de las maravillas (3D emanaldiak) 17:45, 20:00, 22:15, 00:30.
Ciudad de vida y muerte Egubakoitza: 22:30. Zapatua: 22:30. Domeka: 19:30, 22:30. Astelehena: 19:30.	Alicia en el país de las maravillas 17:00, 19:45 (egubakoitza eta zapatua), 17:00 (domeka), 18:00 (astelehenetik eguenera).	El escritor 20:15 (egubakoitzetik eguaztenara), 22:30 (egubakoitza, zapatua, eguaztena eta eguena).	Alicia en el país de las maravillas 16:40 (zapatua eta domeka), 18:40.
ELGETA	El plan B 20:00, 22:30 (egubakoitza eta zapatua), 20:00 (domeka), 20:15 (astelehena eta martitzena), 20:15, 22:30 (eguaztena eta eguena).	El pequeño Nicolás 18:00.	Que se mueran los feos 16:00 (zapatua eta domeka), 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.
ESPALOIA	Prince of Persia 17:30, 20:00 (egubakoitze-tik domekara), 22:30 (egubakoitza, zapatua, eguaztena eta eguena), 18:00, 20:15 (astelehetik eguenera).	Océanos 18:00.	Two lovers 21:50, 23:50 (egubakoitze-tik domekara).
Celda 211 Eguaztena: 21:30.	Perdona si te llamo amor 22:30 (egubakoitza, zapatua, eguaztena eta eguena), 19:45 (domeka), 20:15 (astelehenetik eguenera).	La nana 18:00, 20:15 (egubakoitze-tik eguenera), 22:30 (egubakoitza, zapatua, eguaztena eta eguena).	Baaria 16:15 (zapatua eta domeka), 19:00, 21:45, 00:30.
ARAMAIO	Que se mueran los feos 17:00, 19:45 (egubakoitze-tik domekara), 22:30 (egubakoitza, zapatua, eguaztena eta eguena), 18:00, 20:15 (astelehenetik eguenera).	El pequeño Nicolás 18:00.	Directo a la fama 17:00 (zapatua eta domeka), 18:45, 20:30, 22:15, 00:00.
KULTUR ETXEA	Prince of Persia 17:30, 20:00 (egubakoitze-tik domekara), 22:30 (egubakoitza, zapatua, eguaztena eta eguena), 18:00, 20:15 (astelehenetik eguenera).	Océanos 18:00.	El súper canguro 15:40 (zapatua eta domeka), 17:30.
Julie & Julia Egubakoitza: 22:15.	Que se mueran los feos 17:00, 19:45 (egubakoitze-tik domekara), 22:30 (egubakoitza, zapatua, eguaztena eta eguena), 18:00, 20:15 (astelehenetik eguenera).	Maiztazaren 21etik 27ra.	Un ciudadano ejemplar 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.
Los increíbles Domeka: 17:00.	Que se mueran los feos 17:00, 19:45 (egubakoitze-tik domekara), 22:30 (egubakoitza, zapatua, eguaztena eta eguena), 18:00, 20:15 (astelehenetik eguenera).	YELMO CINEPLEX	El escritor 19:30, 22:00, 00:20.
EIBAR	Prince of Persia 17:30, 20:00 (egubakoitze-tik domekara), 22:30 (egubakoitza, zapatua, eguaztena eta eguena), 18:00, 20:15 (astelehenetik eguenera).	Iron man 2 15:40 (zapatua eta domeka), 18:10, 19:20, 20:40, 22:00, 23:20, 00:40.	El plan B 20:40, 22:40, 00:40.
COLISEO ANTZOKIA	Prince of Persia 17:30, 20:00 (egubakoitze-tik domekara), 22:30 (egubakoitza, zapatua, eguaztena eta eguena), 18:00, 20:15 (astelehenetik eguenera).		Maiztazaren 21etik 27ra. Gauerdiko emanaldiak, egubakoitzean eta zapatuan.
COLISEO 1	Que se mueran los feos 17:00, 19:45 (egubakoitze-tik domekara), 22:30 (egubakoitza, zapatua, eguaztena eta eguena), 18:00, 20:15 (astelehenetik eguenera).		
COLISEO 2	Que se mueran los feos 17:00, 19:45 (egubakoitze-tik domekara), 22:30 (egubakoitza, zapatua, eguaztena eta eguena), 18:00, 20:15 (astelehenetik eguenera).		



ROBIN HOOD **

Desberdina eta ezagunegia aldi berean

> **Zuzendaria:** Ridley Scott.

> **Aktoreak:** Russell Crowe, Cate Blanchett, Max von Sydow.

> Erresuma Batua-AEB, 2010.

> 141 min.

Zinema mutuan hasita, Robin Hood-ek aukera ugari izan ditu gure pantailetan agertzeko. Pertsonaiaren izena aipatzerakoan berehala abentura hitza datorkigu burura. Sherwood-eko basoan babesturik bizi diren lapurrak pozik bizi ziren jaun zapaltzaileen kontra borrokatzen. Eta han, festetarako, bizitza arriskuan jartzeko eta amodiorako denbora zegoen. Film horien tonua, batez ere Michael Curtizen filmean, dibertigarriagoa eta arinagoa zen, eta horri aktoreen glamourra gehitzen badiogu, ikusleen ametsak suspertze-ko gai den film bat daukagu. Ridley Scott-ek istorioari beste tonu desberdin bat eman nahi izan dio. Dena ilunagoa da, ezkutuko abenturak guda bihurtzen dira, eta gertatutako guztiari zergatia topatu nahi diote. Testuingurua aztertu nahi da, garaiko politika eta pertsonaien handinahia, agin-

tari batzuen desmitifikazioa eta garaiaren alde zikinak. Scott-ek Robin Hooden hasiera kontatzen digu, mitoa bihurtu baino lehenago, eta istorioari tonu lurrekoa ematen digu, baina hori bai, beste film batzuetan erabilitako teknikak erabiliaz. Horrela, Robin Hood-ek kontraesan bat badirudi ere, desberdina izanez ezagunegia egiten zaigu, eta ezustekoaren falta sumatzen dugu.

Scott-ek zinema historikoa gustukoa du. *Gladiator*, *El reino de los cielos* edo *1492: la conquista del paraíso* dira horren adibide. Zuzendaria ondo mugitzen da ekoizpen handiko filme-tan: argazkia zoragarria da, agertzen diren aktoreek sinesgarritasuna ematen diete pertsonaiei, baina musika ohiko koruekin, erritmo desberdinarekin filmatutako eszenak... nahiko ezagunak egiten zaizkigu. Eta azkenean, gatz pixka bat falta zaio ikusten dugunari. Filma sendoa da, nahiko landua eta ondo ikusi daitekeen horietakoa , baina ez gaitu liluratzten.

Antonio Zabala

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

bono fotoa



Ibarreko ze herritan dago Zurrategi plazako kioskoa?

Argazkia eta galdera > Miguel Angel Elkoroberezibar

ZORIONAK AURREKO ZENBAIKO IRABAZLEARI:

Arrasateko **Fermin Lezeta**.
Erantzun zuzena: **Lausita**.

ETXEZ ETXEKO BANAKETA
Larchago ardoak eta produktu ekologikoak
943 76 98 51

GARMENDIA ARDOEK EMANDAKO
BOTILA ARDO PACKA*
ZOTZ ASMATZAILEON ARTEAN!

* Larchago iskillarapeko ekologikoa: botila bat.
Larchago beltz berezia: botila bat. Lerchago krianza: botila bat.

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK.....

HERRIA TELEFONOA

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Goienako edozein egoitzara

Debagoiena itsasoa zenean...

FOSILAK Jesus Narvaezek 3.000 pieza inguru ditu, Euskal Herrian bertan eta kanpoan aurkitutakoak

NAUTILUS MUSEOA Duela 110 milioi urteko bizitza erakusten duen Mutrikuko museo horretako fosilak Narvaezenak dira

ZALE AMORRATUA Aste honetan ere Mutrikuko flysch beltzean ibili da lanean, azterketak egiten

ARRITXU BARRUSO > ARRASATE

Jesus Narvaezek, 17 urte zituela, eskalatzen ari zela Txindokiko pareta baten txirla baten fosila aurkitu zuen eta txundituta geratu zen; nola zen posible 1.300 metroko altuera duen mendi baten itsasoko txirla bat egotea? Liburuetara eta adituengana jo zuen eta berehala azaldu zioten duela 120 milioi urte itsasoa Errioxaraino iristen zela eta Euskal Herria urpean zegoela, 2.000 metroko sakoneran. Orduan sortu zitzaion espeleologiarekiko eta fosilekiko zaletasuna. Ordutik hona, iragana begira bizi da, edo, hobeto esanda, iraganeko bizitzaren berri ematen duten fosilei begira. Auto-didakta izan da, baina dinosauroen garaiko kontuak inork baino hobeto ezagutzen ditu eta Euskal Herriko fosilen bilduma zoragarria eta oso preziatua edukitzea lortu du.

3.000 PIEZA INGURU

Narvaezi etxea txiki geratu zaio urte hauetan guztietan aurkitutako fosilak gordetzeko. 3.000 inguru

du dituela kalkulatzen du, besteak beste, Aizkorri, Kurtzebarrin, Anboton eta Urbasan aurkitutakoak. Ganbaran gordetzen ditu batzuk, eta etxeko sarrerak ere museo bat dirudi. Baina Narvaezek badu beste museo bat, benetako altxorra: Mutrikuko Nautilus museoa. "Nire betiko nahia eta ametsa izan da fosilak ondo antolatu eta txukun-txukun museo baten ikustea". Jesus Narvaezek 2007an lortu zuen bere ametsa betetzea, Mutrikuko Nautilus ikasgune geologikoa ireki zutenean.

ORAIN DELA 110 MILIOI URTE

Mutrikuko ikasgune geologikoan sartzean 110 milioi urtean atzera egingo dugu. Garai hartan dinosauroak jaun eta jabe ziren lehorrean, eta itsasoan, berriz, amoniteak ziren nagusi. Bada, Jesus Narvaezek asko daki amoniteez, eta ikasgunean erakusten diren 28 fosilak hark eta haren emazte Espe Azkarragak aurkitu eta berreskuratutakoak dira. Pieza handiak dira, 100 kilo edo gehiago pisatzera iristen dira



JESUS NARVAEZ Euskal Herri osoko fosilak ditu; batzuk etxean eta beste batzuk Mutrikuko Nautilus museoa. ARRITXU BARRUSO



batzuk. Lan gogorra egin behar izaten dute horrelako piezak berreskuratzeko: "Bi edo hiru egun behar izaten ditugu haitzetik ateratzeko, eta ondoren, garbitu eta batzuetan konpondu egin behar izaten dira".

HURRENGOAN PENTSATZEN

Jesus Narvaezek lanean jarraitzen du, azterketak egin eta fosilak bilatzen. Haren nahia da etxean, ganbaran eta Mutrikuko lokal baten dituen pieza guztiak egunen baten museo handia

go baten ikustea. Asteon, Mutrikuko flysch beltzean jardun du lanean eta oporretara doanean ere ez zaio sekula ahazten maletan geologiarako mailua, mapak eta lanerako beharrezko dituen tresnak sartzea.

ahobero

"Euskarak tratamendu egokia eta normala dauka; komunikazio tresna gisa tratatzen da"

Miguel Sanz

> Nafarroako presidentea

Nafarroan euskaraz bizi izateko eskubidea aldarrikatu zuten joan den zapatuan mila eta milaka pertsonak Iruñean. Euskararen alde Nafarroan sekula egin den manifestazio jendetsuena izan zen; euskara egoki eta normal tratatzen ez den seinale, ala?

iturri onetik

Angiolillo izeneko liburutegia zabalduko dute Bergarako gaztetxean ekainean

Duela 113 urte Angiolillok bere azken orduak iragan zituen ziega liburutegi bihurtu zuen Bergarako gaztetxeak duela hamar urte. Orain hamargarren urteurrena ospatuko dutela-eta, liburutegia indartu egin nahi dute eta liburutegi alternatibobilakatuko dute. Hori horrela, herritarrei eskatu diete etxean dituzten liburu interesgarriak gaztetxera eramateko. Ekainaren erdialdera inauguratuko dute.

piperrautsa

Mikel Irizar > 'www.goiena.net/blogak/piperrautsa'

Besaidetik

Asteon oso argi irudikatu da Gipuzkoaren eta Bizkaiaren arteko ezberdintasuna: Bilbon Alondegi berria inauguratu den bitartean, Donostian enegarren aldiz jarri da kolokan Tabakaleraren etorkizuna. Lehena egin da zarata eta txapligu artean, eta bigarrenak aldiz azaleratu egin ditu donostiarren etsipena eta bilbotarrekiko inbidia.

Gipuzkoan gero eta maizago entzuten dudan mezua: 'gu ez gara ezertan ados jartzen eta bitartean haiek egin eta egin ari dira'. Ni Besaide inguruan bizi naiz, bien tartean, eta ez nator bat. Bizkaia bertikala da eta Gipuzkoa horizontala. Gipuzkoa ez da Bizkaia txiki bat, handitu zain dagoena. Besaidetik ikusita, ez da Donostian beste Alondegi bat behar. Nahikoa litzateke Tabakalera soil eta eder bat.

ai, ene!



I-podaren osagarriak komunera ere iritsi dira

Paperari eusteko balio duen bozgorailu horrekin komuneko egonaldiak atseginagoak eta luzeagoak izango dira.

www.ziza.es



Orain da garaia!



ARIZMENDI IKASTOLAREN LANBIDE HEZIKETA

ERAIKUNTZAKO PROIEKTUEN GARAPENA ETA APLIKAZIOA • GORPUTZ ETA KIROL EKINTZEN ANIMAZIOA
OBRA ETA PLANEN BURUTZAPENA • ERIZAINZARAKO LAGUNTZA OSAGARRIAK

AURREMATRIKULAZIO EPEA
MAIATZAREN 31 TIK EKAINAREN 11 RA



902 11 20 25

LANBIDE@ARIZMENDI.IKASTOLA.NET
WWW.ARIZMENDIPRO.EU

Arizmendi
ikastola